

XXXI Jornadas de Investigación en Psicodidáctica

XXXI. Psikodidaktikako Ikerkuntza Jardunaldiak

LIBRO DE ACTAS

Facultad de Educación de Bilbao
del Campus de Leioa

21 de noviembre de 2024
2024ko azaroak 21

Editoreak:

Ursula Luna

Amaia Mariezkurrena-Serrano

Araitz Uskola

Maria Victoria Urruzola

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

Jornadas de Investigación en Psicodidáctica (31.^a 2024)

XXXI Jornadas de Investigación en Psicodidáctica [Recurso electrónico] = Psikodidaktikako XXXI. Ikerkuntza-jardunaldiak / Ursula Luna, Amaia Mariezkurrena-Serrano, Aritz Uskola eta Maria Victoria Urruzola (eds.). – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2025]. – 1 recurso en línea: PDF (260 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

Textos en euskara y español.

ISBN: 978-84-1319-685-5

1. Psicopedagogía – Investigación. 2. Psicopedagogía – Congresos. I. Luna Velasco, Úrsula, coed. II. Tít.: Trigésimas primeras Jornadas de Investigación en Psicodidáctica. V. Tít.: Psikodidaktikako XXXI. Ikerkuntza-jardunaldiak.

(0.034)37.015.3

ÍNDICE

Sexu-hezkuntza eta Lehen Haurtzaroa: xxi. mendeko erronka / Sex Education and Early Childhood: The challenge of the 21st Century <i>Aitana Abaroa Gorritxo</i>	5
Genero ikuspegiaren integrazioa lehen hezkuntzako historiaren irakaskuntzan: Kasu-azterketa / Integration of the gender mainstreaming into the teaching of primary history: Case analysis <i>Nekane Aristondo, Iratxe Gillate, Alex Ibáñez-Etxeberria, Janire Castrillo</i>	19
Enredar(nos): Generar espacios de mediación entre cultura visual, educación artística y arte contemporáneo / Entangle(us): Generate mediation spaces between visual culture, artistic education and contemporary art <i>Uxue Azkarate Gamba, Idoia Marcellán Baraze</i>	39
La formación del profesorado acerca de los hábitos alimentarios y la educación saludable en los centros de Educación Primaria / Teacher training on eating habits and healthy education in Primary Schools <i>Ainhoa Elorriaga Aparicio, Naiara Berasategi Sancho, Leire Darretxe Urrutxi</i>	55
Transformando a través del arte. Bizitegi: análisis de una experiencia de teatro comunitario / Transforming through art. Bizitegi: analysis of a community theater experience <i>Nerea Erdozain Toribio, Natalia Monge Gómez</i>	69
La visión del alumnado del Grado en Educación Primaria sobre el pensamiento computacional al abordar el diseño de actividades sobre las Ciencias de la Naturaleza / The vision on computational thinking of Primary Education Degree students when approaching Natural Sciences' activities design <i>José María Etxabe Urbieto, María Victoria Urruzola Esnaola, Nahia Delgado de Frutos, Héctor Galindo Domínguez</i>	85
Digitalización y creación de modelos HTR basados en IA para textos en euskera de Educación Primaria / Digitization and AI-Based HTR Model Development for Basque Primary Education Texts <i>Leire Fernandez-Atorrasagasti, Irune Ibarra, Mikel Iruskieta</i>	101
Aro Modernoko emakumeei ikusgarritasuna emateko esku-hartzea / Intervention to make the figure of women in modern age visible <i>Saioa Sagastizabal, Iratxe Gillate, Alex Ibáñez-Etxeberria</i>	113
Online pornografiaren kontsumoa Arabako nerabeen artean: sextingarekiko eta gizarte-babesarekiko lotura / Consumption of pornography online in teenagers from Alava: relationship with sexting and perceived social support <i>Uxue Llano Abasolo, Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor</i>	131

Mugimendu Autonomoa Haur Hezkuntzan: diziplinarteko ikerketa proiektua / Autonomous Learning in Early Childhood Bilingual Education: An Interdisciplinary Project Approach <i>Maidier Huarte, Nere Inda, Jone Sagastui, Koldobike Etxabe, Dorleta Apaolaza, Janire Castillo, Regina Guerra, Nagore Martinez-Merino, Miriam Peña-Zabala, Josune Rodríguez-Negro, Mikel Iruskieta</i>	147
Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak eta Bigarren Hizkuntzaren ikaskuntza: literatura akademikoaren errebisio bat / A Review of the Academic Literature: The Potential for Students with Special Educational Needs to Acquire a Second Language <i>Ane Olmedillo-Berasategi, Mikel Gartziaarena, Leire Ugalde</i>	161
Irakasleen rola birpentsatu eta ikas-esperientzia aberastu: Eskola Txikiak eredua / Rethinking the teacher's role and enriching the learning experience: the Eskola Txikiak model <i>Garazi Ormazabal-Arizkorreta</i>	171
La satisfacción laboral de docentes de la República Dominicana en función del sexo y de la antigüedad laboral / Job satisfaction of teachers in the Dominican Republic based on sex and work seniority <i>Karen Y. Sánchez-Rosa, Arantza Fernández-Zabala, Inge Axpe Saez, Lorea Azpiazu Izaguirre</i>	189
Baso-eskola proiektu pilotuan parte hartutako ikasleen ebaluazio hezigarria / Educational evaluation of students participating in the baso-eskola pilot project <i>Maialen Sistiaga-Poveda, Josu Sanz-Alonso</i>	203
Formando formadores en la UPV/EHU: Percepción de competencias profesionales adquiridas por estudiantes de educación mediante Aprendizaje-Servicio / Training trainers at the UPV/EHU: Perception of professional skills acquired by education students through Service-Learning <i>Isabel Margarita Ugalde Salas, María Teresa Vizcarra Morales</i>	225
Trastornos alimentarios en Educación Primaria: Factores de Riesgo y Ajuste Escolar / Eating Disorders in Primary Education: Risk Factors and School Adjustment <i>Elda Ugarte Mota, María Sánchez Gómez, Eider Goñi Palacios, Iker Izar de la Fuente Díaz de Cerio</i>	243

SEXU-HEZKUNTZA ETA LEHEN HAURTZAROA: XXI. MENDEKO ERRONKA

SEX EDUCATION AND EARLY CHILDHOOD: THE CHALLENGE OF THE 21ST CENTURY

Aitana Abaroa Gorritxo¹

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco UPV/EHU

Laburpena

Lan honen xede nagusia sexu-hezkuntzak Haur Hezkuntzan duen presentzia ezagutzea da. Sexualitatea gizabanakoaren funtsezko atala da, jada jaiotzetik gizaki sexuatuak baikara. Ondorioz, nahitaezkoa da horri txikitatik erantzutea haurraren garapen integrala lortzerako bidean. Hori dela eta, EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 90 irakasleri sexu-hezkuntzak lehen haurtzaroan duen eta izan beharko lukeen lekuari buruz galdetu zaie. Horietako 84k inkesta baten bidez erantzun dute, non adierazi duten, gai garrantzitsua bada ere, egun ez dutela formaziorik gaiaren inguruan eta sarritan ezta eskolaren edota familien babesik ere. Beste 6 irakaslek gaiaren sakondu dute elkarrizketen bitartez, haien kezka, jakintzak eta desioak adieraziz. Ostean, datu horiek aurretik osatutako oinarri teorikoarekin alderatu dira. Ondorioz, irakasleentzat sexu-hezkuntza gai garrantzitsua bada ere, egun hezkuntza-sistemak ez die horretarako aukerarik ematen, ez baitituzte ez beharrezkoak diren baliabideak ezta formakuntza ere.

Hitz gakoak: sexualitatea, garapen integrala, haurtzaroa, ongizatea, sexu-hezkuntza.

Abstract

The main objective of this study is to explore the presence of sexuality education in early childhood education. Sexuality is a fundamental aspect of human beings, starting from birth, making it essential to address it from an early age for the child's overall development. To understand its role in early childhood education, a survey was conducted with 90 teachers from the Basque Autonomous Community, 84 of whom responded. They highlighted that while sexuality education is important, they lack training on the subject and often don't receive support from schools or families. Additionally, 6 teachers were interviewed, sharing their concerns and desires regarding the topic. The findings were compared with existing theories, revealing that despite its importance, sexuality education is not adequately supported by the education system, which fails to provide necessary resources and training for teachers.

Keywords: sexuality, comprehensive development, childhood, wellness, sex-education.

¹ Harremanetarako: Aitana Abaroa Gorritxo, Psikodidaktika doktore programa. Universidad del País Vaco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Sarriena auzoa, z/g (48940-Leioa).
E-mail: aitana.abaroa@ehu.eus

Sarrera

Sexu-hezkuntzaren inguruan hitz egitea zaila bada, are zailagoa izaten da haurren sexu-hezkuntzaz aritzea. Izan ere, sexualitatea eta sexu-hezkuntza historikoki nerabezaroari atxikitu izan zaizkio, jaiotzetik gutako oro sexuatuak bagara ere. Izan ere, ezin daiteke ahaztu gure sexualitatea bizitza osoan zehar garatzen dela, hori aldatzen doan arren (Defaz *et al.*, 2019).

Haurrek sexualitatea eta garapen sexuala dutela jabetzea oztopatzen duten arazo nagusiak ezjakintasuna, sinesmen faltsuak (Calvo, 2021) eta ikerketa falta dira (González, 2020). Ondorioz, haur-sexualitatea eta haren garapena alde batera utzi dira gizartean, haurraren funtsezko atal hori aintzat hartu gabe. Hori arazo larria da haurrak lehen haurtzaroan beren genero identitatea, besteak beste, garatzen hasten baitira, haien bizitza osoa baldintzatuko duena. Ondorioz, Haur Hezkuntzako etapako irakasleak prest egon behar gara hortik abiatuta sortzen diren beharrei erantzuna emateko.

Hortik abiatuta, ikerketa honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetako irakasleek sexu-hezkuntzarekiko dituzten pertzepzioak ezagutu nahi izan dira. Horrez gain, sexu-hezkuntzak EAEko hezkuntza-sisteman duen lekua aztertu nahi izan da, araudia egungo errealitatearekin eta irakasleen usteekin nahiz esperientziekin bat datorren jakiteko.

Oinarri teorikoa

Sexualitatea eta haur-sexualitatearen garapena

Sexualitatea gizakien osotasunaren atal bat da, genitaletatik haratago doana. Sexualitatea bizitza osoan zehar garatzen dugu, jaiotzen garenetik hil arte, eta ondorioz, etengabeko eraldaketan dago (Defaz *et al.*, 2019). Torregrosak (2019) azaldu bezala, haur guztiak sexudunak direnez, eta horrek haien garapenean eragina daukanez, haurren sexualitateari loturiko beharrak asetzea funtsezkoa da. Dena den, sarritan zaila izaten da sexu-hezkuntzak haurtzaroan duen garrantziari erreparatzea, ez baita erraza haur-sexualitateaz hitz egitea tabuz eta aurreiritziz jositako gizartean (Calvo, 2021).

Haur-sexualitatearen inguruko informazioa eskasa da, gaiaren inguruko lanak ez baitira ugariak eta gehienak haurren aurkako sexu-abusuen inguruan aritzen baitira, ikuspegia haur-sexualitatearen atal oso zehatz batean jarriz (Cacciatore *et al.*, 2024). Dena den, badakigu haur-sexualitatearen eta helduen sexualitatearen ezaugarriak ez direla berberak (Cacciatore *et al.*, 2024), norbanakoaren garapenak aurrera egin ahala sexualitatea bera aldatzen doalako (Defaz *et al.*, 2019). Izan ere, sei urte bete arte haurrek sexualitatearekiko kuriositatea dute, eta jakin-min hori haien gorputza eta emozioak esploratzen doazen heinean sortzen da (Cacciatore *et al.*, 2020). Horrela bada ere, kontuan izan behar dugu haur ororen sexualitatea ez dela modu berean eta batera garatzen, prozesua norbanakoaren arabera gertatzen baita, gizabanakoaren garapenaren beste alderdi batzuetan bezala (García-Piña, 2016). Dena den, ohikoa da Haur Hezkuntzako geletan haurrek sexu-adierazpenak izatea, adibidez masturbazioa emozioak erregulatzeko, edo berdinen arteko jolas ezkutatuak izatea (Cacciatore *et al.*, 2020).

Azaldutakoa kontuan izanda, funtsezkoa da etapako irakasleek eta hezitzaileek haur-sexualitatea eta horren garapena ondo ezagutzea, horrek ahalbidetuko baitu haurren beharrei erantzun egokia ematea eta prozesuan laguntzea, aurreiritziekin eta ezjakintasunarekin bat datozen jarrerak alde batera utziz, adibidez, gorputza esploratzeagatik haurra zigortzea.

Sexu-hezkuntza

Sexu- eta osasun-hezkuntza gizakion oinarritzko eskubidea da, bizitza zoriontsua eta gogobetegarria bizitzeko tresna (Chinelli *et al.*, 2024). Horren baitan sexu-hezkuntza integrala (SHI) sartzen da. SHIa sexualitate positiborako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak garatzea ahalbidetzen duen prozesua da, haur eta gazteak bizitza osasuntsu eta seguru bat izateko prestatuko dituen (Cabrerá-Fajardo, 2021). UNESCOren (2021) hitzetan, sexu-hezkuntzak sexualitatearen alderdi kognitiboak, emozionalak, fisikoak eta sozialak ikas-irakastea helburutzat duen prozesua da SHIa, tokiko curriculumean oinarrituta egon behar dena. Horrez gain, SHIak haur eta gazteei aukera ematen die harreman sozial osasuntsuak garatzeko, haien eskubideak ezagutzeko eta babesteko, eta erabaki kontzienteak hartzeko, besteak beste (UNESCO, 2021; European Expert Group on Sexuality Education, 2016). UNESCOk (2021) Agenda 2030ean kokatzen du SHIa, adieraziz garapen iraunkorreko hiru helbururekin bat egiten duela: Osasuna eta ongizatea (3), Kalitate oneko hezkuntza (4) eta Genero berdintasuna (5). Horietan zehazten da haurrak eskubidea duela bere gorputzari eta osasunari dagokion informazioa eskuratzeko, genero-berdintasunean oinarritutako hezkuntza jasotzeko eta bere garapen integrala ahalbidetuko duten ezagutzak bereganatzeko, horietan sexu-hezkuntza kokatuz (UNESCO, 2021).

Eskola- eta familia-harremanak

Sexu-hezkuntza noren ardura den zehaztea kontu korapilatsua izaten da. Zenbaiten hitzetan hori eskolaren eginkizuna da, beste batzuek, ordea, familiaren ardura dela diote. Argi dagoena da eskola eta familia direla haurraren gainetik hurbilen dauden agenteak, eta ondorioz, bi horien ardurapean egongo dela haurrak sexu-hezkuntza jasotzea. Rodríguez *et al.*-en (2021) hitzetan, eskola-familia loturak indar handia izan dezake sexu-hezkuntza sustatzeko momentuan.

Familiei dagokienez, gogoan izan behar da horiek direla haurraren lehen erreferenteak. Haurrek haienganako atxikimendua izango dute, eta haiekin babestuta eta lasai sentituko dira (López, 2020). Izan ere, familiaren baitan hasiko da haurra lehen giza-balioak eta harremanak izateko ereduak bereganatzen; hortaz, Cervallos eta Jerves (2014) ikerlarien hitzetan, familiari dagokio haurra afektuan, balioetan eta sexualitatean hezteak. Gurasoen ardura izango da haurrek hezkuntza integral bat jasotzea, umeen garapenean positiboki eragingo duena, eta horretarako nahitaezkoa izango da familiak parte-hartze aktiboa izatea hezkuntza prozesu horretan (Rodríguez *et al.*, 2021). Halere, nahi ala ez, haurrak inguruan dituen pertsona guztiengandik jasoko du sexualitatearekin zerikusia duen informazioa; hala nola, gurasoak, neba-arrebak edo la-

gunak (Cacciatore *et al.*, 2019). Eskolari dagokionez, UNESCOren (2021) hitzetan irakasleak eta hezitzaileak izan behar dira sexu-hezkuntzaren arduradun nagusiak. Erakunde berberak adierazten du horretarako baliabide eta formakuntza egokiak nahitaezkoak direla, irakasleei euskarria eta babesa emango dizkietelako. Villalobosek (2023) dioenez, irakasleen zeregina ikasleei sexualitatearen inguruko ezagutzak eskaintzea izan behar da, haurrak eta gazteak sexu-identitatea esploratzen eta eraikitzen ari baitira. Gaiak garrantzi handia badu ere, irakasleek gaiarekiko dituzten baliabideak eta trebakuntza ez dira nahikoa izaten, eta beraz, irakasleek dituzten tresnak ez dira nahikoa kalitatezko SHla eskaintzeko (Bramhagen eta Lundström, 2024).

Sexu-hezkuntza EAEko araudian

Azken urteetan EAEn Haur Hezkuntza arautu duen legea 237/2015 dekretua izan da, 2023. urteko ekaineko 75/2023 dekretuak ordezkatu zuena. Ikerketa honetan, egotzaren diagnosi egokia egiteko funtsezkoa da biei erreparatzea, ikerketa burututako denbora-tartean biak egon baitira presente euskal eskoletan.

2015. urtean ezarritako curriculumean (237/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa) ez da esplizituki sexu-hezkuntza izendatzen, baina legedi osoan zehar zenbait zertzelada ematen dira. Hasteko, legeak hezkuntza inklusiboan jartzen du ikuspuntua eta horren baitan hezkidetzak kokatzen du, adieraziz garrantzitsua dela eskolan gertatzen den aniztasun afektibo-sexualari erantzutea. Horrez gain, bertan adierazten ez den arren modu esplizituan landu behar denik, sexu-hezkuntza landu behar dela modu esplizituan adierazita egon ez arren, hezkidetzaren baitan jorratu beharreko alorra da sexu-hezkuntza, aniztasun afektibo-sexualari erantzuteko nahitaezkoa. Gainera, etaparako zehazten diren bi esperientzia-eremuak «Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua» eta «Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua» dira, eta hezkuntza afektibo-sexuala lehenengo horretan sartzen da. Legedian azaltzen denez, 0-6 etapan haurrak haien sexu- eta genero-nortasunak garatzen ari dira, betiere gizartearen eta gizartearen baitako balioen nahiz jarreraren eraginpean. Haurrak prozesu hori ahalik eta askeen bizi dezan funtsezkoa izango da hezitzaileek haurrei sexualitatea bizitzeko aukera ematea eta nork bere burua deskubritzeko jakin-mina piztea, horretarako espazio seguruak eskainiz. Azkenik, haurren arteko harremanei erreparatuz, horiek orekatuak izan behar direla zehazten da legedi horretan, eta horretarako estereotipo eta aurreiritzi sexistak identifikatu behar dira, horiek guztiak alde batera uzteko.

Bigarrenik, dekretu berrienari erreparatuz (75/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculum ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena), hezkidetzak da lehendabizi adierazten den kontzeptua. Oraingo legedian, sexu-hezkuntzak presentzia handiagoa dauka, adierazten baita funtsezkoa dela haurren garapen integrala sustatzeko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoak eta rola deuseztatuz. Curriculumaren arabera, hori izan behar da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa, ikastetxeen orientazio pedagogikoko orientazio-irizpide izatearekin bat, maila eta modalitate orotan. Horrez gain, oinarrizko printzipiotzat hartzen da Haur Hezkuntzak izaera globala

izan behar duela eta, aldi berean, ikasleen arteko ekitatea bermatu behar duela; nesken eta mutilen arteko berdintasunari, sexu- eta genero-aniztasunari, etnia- eta arraza-aniztasunari eta jatorri-aniztasunari balioa emanez; gaitasun funtzionala eta egoera pertsonalak, sozioekonomikoak eta kulturalak aitortuz; eta norberaren identitatea errespetatuz.

Horren ostean irakasleen formakuntza nolakoa izan behar den zehazten da, hori 2015. urteko dekretuan adierazten ez zen alderdia izanik. Hezitzaileen formakuntza-ren helburua hurrei haien garapen pertsonalean, afektiboan eta konpetentzian laguntzea izan behar dela esaten da, sexu-hezkuntza hor sartuz. Prestakuntzak ikerketa, berrikuntza, garapen eta ikas-irakaskuntza prozesuen ebaluazio jardunbideak barnean hartu behar ditu, eta horiek praktikaren hausnarketatik abiatu behar dira, formazio-sareetan esku-hartzeak ere eginez. Hezitzaileen prestakuntzak hezkuntza inklusiboa, hezkidetza, dibertsitate afektibo-sexuala eta premia bereziak hartu beharko ditu bere baitan, horiei arreta berezia jarritz. Hala ere, bi legediak aztertu ostean ondorioztatu daiteke sexu-hezkuntzak gure araudian duen pisua ez dela handia. Gainera, hori egiten denean, ohikoena modu inplizituan burutzea da, beste eremu edo konpetentzia batzuetan adieraziz. Ondorioz, sexu-hezkuntza lantzea irakasle bakoitzaren esku geratzen da, norberak dituen helburuen, baliabideen eta asmoen esku.

Ikuspuntua Haur Hezkuntzako jardueran eta curriculumean jarri da, asmoa lehen haurtzaroan (0-6) zentratzea baita. Dena den, Lehen Hezkuntzako irakasleen hitzak jasotzea garrantzitsutzat jo da haiek jasotzen dituztelako haurrak Haur Hezkuntzatik, aurreko etapa horretan egindako lanketarekin jarraituz eta haurraren bidelagun bihurtuz, lehen haurtzaroan izandako irakasle eta hezitzaileei lekukoa hartuz. Lehen Hezkuntzako curriculumei, zaharrari eta berriari, laburki erreparatuz, bai 236/2015, bai 77/2023 Dekretuetan sarritan adierazten da eskolek aniztasun afektibo-sexuala egon badagoela aitortu behar dutela eta horri erantzun behar diotela, diskriminazio egoerak txikitu ahal izateko. Horrekin bat, etapako ikasleek osasun- eta sexu- hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela aipatzen da, baina horiek prebentzio programa gisa sailkatzen dira. Horrez gain, ez zaio sexu-hezkuntzari erreferentzia gehiagorik egiten. Azaldutakoa kontuan izanda, aztertutako bi curriculumek ez dute sexualitatea bere osotasunean hartzen, ikuspuntua sexu-gaixotasunen transmisioaren eta haurdunaldiaren prebentzioan soilik jarritz. Bietan antzeko kontuak aipatzen dira, ez da aldaketa garrantzitsurik igartzen, eta ondorioz ez da aurrerapen nabarmenik egon 2022-2023 ikasturtera arte indarrean egon den 236/2015 Dekretutik egungo 77/2023 Dekretura.

Helburuak

Lan honen helburu nagusia egungo irakasleek sexu-hezkuntzaren inguruan dituzten usteak eta jarrerak ezagutzea da, hortik abiatuta eskoletan eta sisteman egon daitezkeen beharrak eta gabeziak identifikatzeko. Horretarako, zenbait helburu espezifiko ere zehazten dira:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleek sexu-hezkuntza beharrezkotzat jotzen duten aztertzea.

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleek sexu-hezkuntzari buruz dituzten iritziak ezagutzea.
- Sexu-hezkuntzak EAEko hezkuntza sisteman duen lekua identifikatzea.

Metodoa

Lanaren helburuei eusteko, ikerketa aplikatu bat diseinatu eta burutu da, horretarako metodologia mistoaz baliatuz, datu kuantitatiboak nahiz kualitatiboak jasoaz. Ikerketaren eta ikerketa tresnen diseinua Juaristiren (2003) gidalerroak kontuan izanda burutu dira. Datu kuantitatiboak *ad-hoc* sortutako galdetegi baten bidez jaso dira. Galdetegi berrikuspen literarioan jasotako informazioan eta lanetan oinarrituta daude, baina gure lurraldeko beharretara egokituta. Hortik abiatuta, datu kualitatiboak sakoneko elkarrizketen bidez eskuratu dira, aurreko galdetegitik abiatuta sortu direnak, jasotako emaitzetan sakontzeko asmoz.

Metodologia mistoa erabiltzea Johnson eta Onwuegbuzie (2004) eta Hernández-Sampieri *et al.* (2010) autoreek babesten dute, zeintzuek esaten duten aukera ematen duela aztergaia hobeto ulertzeko, arazoari erantzun osoagoa ematen baitiote, metodo kualitatiboan eta kuantitatiboan indarguneak eta ahuleziak nabarmentzean. Bestalde, erabilitako tresnen inguruan Juaristik (2003) esandakoa hartu dugu kontuan, zeinaren ustez sakoneko elkarrizketak informazio iturri oparo diren, gizartearen iritziak, jarrerak eta balioak modu errazean jasotzea ahalbidetzen dutelako. Gainera, sakoneko elkarrizketak baliabide egokiak dira aurretik daukagun informazioan sakontzeko eta emaitza oparagoak eskuratzeko, baita tabu gisa jotzen diren gaiak lantzeko ere (Juaristi, 2003), kasu honetan sexu-hezkuntza.

Prozedimendua

Ikerketan parte hartu duten eskolak zoriz aukeratu dira, eta horiek eskola publikoak zein itunpekoak izan dira. Gainera, EAEko hiru lurraldeetako eskoletara jo da, ahalik eta esperientzia eta ahots gehien jasotzeko asmoz. Etika eta datu pertsonalen babesa bermatzeko, landa-lana hasi aurretik partaide bakoitzari lanaren inguruko informazioa eta baimen informatua helarazi zaizkie. Haien datuak modu anonimoan jaso eta analizatuko direla azaldu zaie, horiekin egingo dena eta lortu nahi dena argitzearekin bat. Ikerketan parte hartzeko irakasle bakoitzak baimen hori sinatu behar izan du, adieraziz ados dagoela horretan azaltzen diren baldintzekin eta bere datuak lanean erabiltzearekin.

Irakasleekin harremanetan jartzeko modua posta elektronikoa izan da, lana, haren helburuak eta edukiak aurkezteko. Hor bertan ikerlanean parte hartzeko deialdia egin zaie. Bete beharreko inkesta *Google Forms* baten bitartez helarazi zaie, hori lankideen artean zabaltzea errazteko. Era berean, eskolako zuzendaritza-taldeari inkesta langileentzako zabaltzeko eskatu zaio. Galdetegia bete ez duten irakasleei elkarrizketetan parte hartzeko aukera eman zaie.

Datu guztiak izan ostean, horien analisia burutu da. Analisi kuantitatiboari dagokionez, datuak *Excel* batera irauli dira eta, ondoren, dagozkion grafikoak sortu dira. Hortik

abiatuta, lortutako informazioa gaika sailkatu da. Bestalde, atal kualitatiboari erreparatuz, lehendabiziko urratsa elkarriketak transkribatzea izan da. Horren ostean, informazioa sailkatzeko sei kategoria-sistema ezarri dira, eta elkarriketa bakoitzean jasotakoa horietan banatu da. Analisi osoa egin eta gero lanaren emaitzak burutu dira, eta ondoren, horiek oinarri teorikoarekin alderatu dira lanaren eztabaida eta ondorioak idazteko.

Parte-hartzaileak

Lan honetan EAEko 90 irakaslek hartu dute parte, horietatik % 44k Haur Hezkuntzan egiten du lan, % 46,6k Lehen Hezkuntzan eta % 9,5k bi etapetan. Ikastetxeak, eta ondorioz irakasleak, zoriz aukeratu dira. Galdetegia Haur eta Lehen Hezkuntzako 84 irakaslek erantzun dute. Galdetegia pasa ostean, hura bete ez duten irakasleei elkarriketetan parte hartzeko deia egin zaie, eta guztira 6 irakasle elkarriketatu dira: bi Lehen Hezkuntzako irakasleak dira eta lau, Haur Hezkuntzakoak, nahiz eta horietako bi azken urteetan Lehen Hezkuntzan ere jardun duten. Horrez gain, elkarriketa egin zen momentuan irakasleetako bat PT lanetan ari zen eta beste bat eskolako zuzendaria zen. Horrekin batera, adin aniztasuna ere bilatu da eta elkarriketatuen artean graduatu berri bat, irakaskuntzan 5-10 urtez zeramatzaten hiru irakasle, eta irakaskuntzan 30 urte zeramatzaten bi irakasle elkarriketatu ziren.

Emaitzak

Atal kuantitatiboaren emaitzak

Inkestaren emaitzek argi uzten dute irakasleek sexu-hezkuntza beharrezkoa ikusten dutela eskoletan. Izan ere, % 92,9k adierazi du sexu-hezkuntza lantzea funtsezkoa dela haurtzaroan, eta aldi berean, % 6k uste du beharrezkoa izan ez arren, lagungarria izan daitekeela. Dena den, egun irakasle gehienek ez dute ez baliabiderik ezta formakuntzarik ere hori haien irakasle jardunean txertatzeko. Zehazki, % 65,3k adierazi du ez duela gaiarekiko inolako formakuntzarik. Gainera, horretan formatzeko aukerak ez omen dira ugari partehartzaileen ia erdiaren ustez (% 48,8); hortaz, hori irakasle bakoitzaren esku eta norbere aukeretan geratzen da.

Hori guztia errazagoa litzateke sexu-hezkuntza gure hezkuntza sisteman txertatuta egongo balitz. Irakasle guztiek adierazi dute sexu-hezkuntza curriculumean araututa egon beharko litzatekeela, baina % 16,3k uste du hori modu inplizituan egin beharreko kontua dela. Ondorioz, haiek ez lukete «sexu-hezkuntza» terminoa esplizituki adieraziko, baizik eta zeharkako modu batean. Dena den, % 94k dio sexu-hezkuntzak espazio propioa izan beharko lukeela ikasleen egunerokotasunean.

Gehiengoak sexu-hezkuntza haurtzaroan lantzeko premia antzematen badute ere, horri noiz eta non heldu izaten da zalantza. Lehendabiziko galderari erantzunez, inkestatuen % 10,7k uste du Haur Hezkuntzako umeak txikiegiak direla horretarako, baina zifra hori % 2,4ra jaisten da Lehen Hezkuntzako etapara begiratzean. Ehuneko horietan sakonduz, Haur Hezkuntzako irakasleetako batek ere ez du uste haurrak oso txikiak di-

renik aipatutako bi etapetako batean ere sexu-hezkuntza lantzeko; ordea, Lehen Hezkuntzako irakasleen ustetan bai. Beraz, erantzunean aldaketa azken talde horren eskutik dator. Nerabezaroari erreparatuz, ordea, irakasle talde osoaren % 95,2k adierazi du sexu-hezkuntza adin tarte horretan lantzen hastea berandu dela, aurretik heldu beharreko kontua dela, alegia.

Bigarren galderari dagokionez, ez da erraza izaten adostea sexu-hezkuntza lantzearen ardura norena izan beharko litzatekeen, familiarena edo eskolarena. Irakasleen % 96,4aren ustetan hori eskolan landu beharko litzateke, haurrek hezkuntza hori jasotzen dutela bermatzeko modu bakarra baita; eta adierazi dute horretan ezin dezaketela irakasleek edo tutoreek soilik parte hartu, eskolako agente oro inplikaturik egon behar dela prozesuan (jantokiko langileak, zuzendaritza taldea, etab.). Izan ere, irakasle horien % 78,6k sexu-hezkuntza ikasle ororen eskubidetzat hartzen du, eta sexu-hezkuntza jasotzea ezin daitekeela familiaren hautu bat izan adierazten du. Dena den, familiarekin elkarlana ezinbestekotzat jotzen da, haurraren hezkuntza integrala hurbileko agente nagusien ardura izan behar baita, kasu honetan eskolarena eta familiarena.

Atal kualitatiboaren emaitzak

Sexu-hezkuntza definitzen

Sexu-hezkuntza zer den galdetzean, elkarrizketatuek hori gorputzaren ezagutzarekin, identitatearen eraikuntzarekin eta harreman sozialekin lotu dute, norbere buruarekiko eta besteekiko errespetuan oinarritzen den hezkuntza prozesua dela adieraziz. Ildo beretik, umearen genero-identitatean nahiz identitate-sexualean eragin handia izango duela uste dute, hezkuntza haurraren alderdi horiek garatzeko eta eraikitzeke prozesuan lagungarritzat hartuz. Gainera, sexu-hezkuntza haurraren garapenak aurrera egin ahala sortuko diren beste beharrezkoak edo egoerei aurrera egiteko baliabide dela diote, hil arte garatzen goazena: «Sexu-hezkuntza nik esango nuke dela norberaren gorputzaren ezagutzea, beranduago sortuko den identitate-sexuala modu natural batean lantzeko. Haur Hezkuntzan baina baita bizitza osoan zehar ematen den hezkuntza dela uste dut.» - IR6

Irakasleen formakuntzaren inguruan

Elkarrizketatuen erdiak adierazi du egon badagoela formatuta sexu-hezkuntzan. Ezagutza hori dutenek adierazi dute hori jada irakasle lanetan egonda eskuratu dutela, online eskainitako ikastaro laburren bidez. Dena den, ikastaroak ez dira zehazki sexu-hezkuntzari eta hori lantzeari buruzkoak izan, baizik eta Hezkidetzak edo antzeko gaien ingurukoak, sexu-hezkuntza soilik atal murriztu batzuetan egonik presente. Horiek irakasleei dohainik eskaini izan zaizkien formakuntzak dira, zenbaitetan derrigorrezkoak. Bestalde, egon badira elkarrizketatu batzuk informazioa haien kabuz eskuratu dutenak baina haien burua gaien trebatuta ikusten ez dutenak: «Egia esan ez daukat formakuntzarik gai honen inguruan. Bai irakurri ditudala gauza batzuk, gehienbat Naizenek argitaratu dituen materialak, baina ez daukat formakuntza askorik.» - IR5

Hortik abiatuta, elkarrizketatutako irakasleek sexu-hezkuntza falta susmatzen dute bai gizartean bai hezkuntza-sisteman, eta adierazten dute dagoena urria eta kalitate eskasekoa dela. Sexu-hezkuntzak curriculumean pisu handiagoa izan beharko lukeelakoan daude, ez baitu ia presentziarik: «Izan ere, eskolako errealitatea hurbiletik ezagututa, esan beharra dago sexu-hezkuntza gero eta presentzia handiagoa duela hezkuntzan, oraindik kalitatezko eta beharrezko sexu-hezkuntza jasotzeko nahikotxo falta arren»- IR3

Laburbilduz, gehiengoak adierazi du irakasleek ez dutela nahikoa formakuntzarik sexu-hezkuntzaren inguruan. Alde batetik, gehiago ikertu beharko litzatekeen gaia dela uste dute, sarritan sexu-hezkuntza eta haurtzaroa, batez ere Haur Hezkuntzako etapa, ez baitira uztartzen, gaiari buruz dagoen ezagutza murriztuz. Bestetik, unibertsitatean sexu-hezkuntza nola landu txertatzeko beharra adierazten dute, hezkuntzako unibertsitate graduatan hain zuzen ere, egun erantzukizun hori guztia norberaren ardurapean geratzen baita: «Ezin dute kontu hain garrantzitsua kolokan utzi, are gutxiago pisu guztia irakasleengan jarri, gaiari buruz hezita ez gaudenean.»- IR2

Familia-eskola elkarlana

Haurraren sexu-hezkuntzan eskolak duen rolari erreparatu diote elkarrizketatuek, ikuspuntua erakunde horrek haurraren eraikuntzarako beharrezko diren ezagupenen transmisioan duen eraginean zehazki. Adierazi dute alderdi horren helburua haurraren ongizate integrala lortzea dela, ezagupenaren bidez horrek izan ditzaken behar ezberdinei erantzuna emateko prestatzen direla haurrak (emozioen eta harremanen kudeaketa, nork bere gorputza ezagutzea...): «Eskolak, familia eta gizartearen parean balore zein ideien transmisio-agente nagusienetarikoa den heinean, sexu-hezkuntza jorraztearen eginkizuna eta ardura izan beharko luke.»- IR3

Elkarrizketatuen ustez, heziketa hori izateak eragin positiboa izango du haurrengan, harreman osasuntsuagoak eraikitzea, haien gorputza ezagutzea, haien burua hobeto ezagutzea eta norberarekiko konfiantza nahiz autoestimua izatea ahalbidetuko baitu, besteak beste. Gainera, kontuan izan behar da inpaktu hori ez dela bakarkakoa, baizik eta taldeko haur guztiei eragingo diela: «Beraz, banakako eraginaz izateaz haragato, ikastaldearekikoa ere eukingo luke gizartean bizitzen ikastea helburu duen gaia den heinean.»- IR3

Horrez gain, jakinarazi dute hezitzaileen ardura dela haurrek sexu-hezkuntza jasoko dutela ziurtatzea, hori eskubidetzat baitute. Gainera, hori umeak eskolan hasten direnetik egin behar da, haur-eskoletan ere. Irakasleek argi adierazi dute haur guztien-gana heltzeko modu bakarra dela eskola, sarritan uste baita gurasoen eginkizuna dela sexualitatearen nondik norakoak jorratzea haurrekin, baina argi utzi dute ezetz, bestela ez litzatekeelako umeen eskubide hori beti bermatuko: «Bai, argi dago eskolan landu behar dela. Gurasoek haien parte landuko dute nahi badute, baina guk ziurtatu behar dugu gizarte honetan, eta derrigorrezko hezkuntzan ere, umeek badakitela pertsona sexualak direla eta, gainera, nola harremandu mundu horretan.»- IR1

Dena den, aditzera eman dute eskola-mailan nahiz curriculumean zehaztuta egon beharko litzatekeen kontua dela. Lotuta egon behar da nola landu adin bakoitzean, behintzat gutxieneko nondik norako batzuk ezarriz, eta gaiari dagokion garrantzia ai-

tortuz. Hori gai nagusi gisa nahiz zeharkako bezala ulertu beharko litzateke, jorratu edota lortu nahi denaren arabera,

Haur Hezkuntzan kontuan izateko edukien inguruan

Nork bere gorputza ezagutzea izan da irakasleek gehien errepikatu duten erantzuna. Lanketa Haur Hezkuntzan egitea funtsezkotzat hartu dute elkarrizketatuek, batez ere etapa horretako adituek. Horrekin bat, beste zenbait edukiri ere erreparatu diete, hala nola harremanen kudeaketa eta emozioak ezagutzea, jakinaraziz horiek lantzean haur bakoitzaren ezaugarriak, berezitasunak eta beharrak izan behar direla kontuan, gelako aniztasuna kontuan izanda:

Haur Hezkuntzan kalitatezko esku-hartzeak egiteko asmotan, helburu nagusia ume guztiengana ailegatzea izan beharko litzateke, bakoitzaren berezitasun, behar eta gaitasunak kontuan izanda; hau da, emandako urrats bakoitzean ikasgelako aniztasuna presente izatea eta aniztasunaren aukera guztiak aintzat hartzea. Ideia printzipal horretatik abiatuta, HH eta para eta etapa horretako ezaugarrietara egokitutako edukiak landuko nituzke; hala nola, gorputza (norberaren eta besteen gorputza ezagutzea, berdintasun eta ezberdintasunak...), emozioak (emozioen ezagupena, identifikazioa eta adierazpena), genero-identitatea eta sexu-orientazioa (emakumezkoen zein gizonezkoen egokitutako rolak malgutuz eta sexuen arteko aukera eta eskubideen berdintasunerako bidean ekarpenak eginez)... behin hori barneratuta izanda Lehen Hezkuntzan gaiarekiko beste eduki batzuetan sakontzeko (adibidez, sexu- harremanetan). IR3

Sexu-hezkuntza gelan lantzeko dauden baliabideei dagokienez

Gaur egun irakasleen eskura dauden baliabide didaktikoak urriak direla baieztatu dute irakasleek, horietako batzuk ez baitute horrelakorik ezagutzen. Ildo beretik, hedatuenak EAEko eta Nafarroako adingabe transexualen familiek osatzen duten «Naizen» erakundeak bere webgunean eskainitakoak direla ere esan dute (abestiak, istorioak...). Alabaina, kontuan izan behar da horiek ez dutela sexu-hezkuntza bere osotasunean lantzeko asmoa, baizik eta transexualitateari buruzko edukiak edo nondik norakoak jorratzekoa.

Eztabaida eta ondorioak

Ikerketa honen asmoa Haur Hezkuntzako (HH) eta Lehen Hezkuntzako (LH) irakasleek sexu hezkuntzari buruz duten iritzia ezagutzea izan da; hori haurraren garapen integralerako eta ongizaterako funtsezkoa ikusten duten ala ez, eskoletan nolako lekua izan beharko lukeen eta gaiari buruz duten ezagutza, alegia. Emaizten ikuspegi orokor honek adierazten digu haurrek kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzea ezinbestekotzat hartzen dutela, baina irakasleen ustez egungo hezkuntza sistemak ez duela hori ahalbidetzen, eta formakuntza falta dela-eta, irakasleek haien burua ez dutela horretarako gai ikusten.

Lortutako emaitzei erreparatuz gero, gaur egungo irakasleek ez dute formakuntzarik sexu-hezkuntzan, eta horrekin bat adierazi dute horretarako aukerak ez direla ugariak, egin nahi izatekotan norbere kabuz izan behar dela. Baieztapen hori arazo larria da zenbait arrazoiengatik: lehenik, hezkuntzako graduatan ez da hori jasotzen, haurraren sexualitateari buruzko edukia alde batera utziz. Gainera, horretan trebatuta egon nahi duten arren, irakasleek ez dute haien burua prest ikusten hori ikasleekin lantzeko, ikas-tetxeetan ez baita lotuta egoten hori nola egin.

Idea berari eutsiz, atal teorikoan azaldu bezala, sexu-hezkuntza haurren garapenerako eta ongizaterako funtsezko alderdia da, eta irakasleek hala uste dute; hori kontuan izanda, deigarria da jakitea sexu-hezkuntzak ez duela ia presentziarik EAEko curriculum dekretuetan. Alde batetik, 237/2015 Dekretuan ez zaio inolako aipamenik egiten sexu-hezkuntzari, hezkidetzak soilik aipatzen da, baina horiek biak elkarlanean aritu arren ez dira berdinak; hots, hezkidetzarekin ez da zertan beti sexu-hezkuntza landu, ezta alderantziz ere. Bestetik, jada lanean zehar adierazi bezala, egia da 75/2023 Dekretuan nolabaiteko aipamena egiten zaiola sexu-hezkuntzari; izan ere, «hezkuntza afektibo-sexuala», «sexu-hezkuntza» edo baliokideak diren terminoak agertu ez arren, zehazten da Haur Hezkuntzako etapan ikasleek sexualitatearen giza dimentsioa, haren aniztasunean, ezagutu eta baloratu behar dutela. Hortik haratago gutxi esaten da gaiari buruz. Irakasle-taldeak duen iritzia ezagututa eta adituen esanak irakurrita, zaila egiten da ulertzea sexu-hezkuntzak gure hezkuntza-sisteman duen presentzia eskasa.

Horrek guztiak zenbait gabezia eragiten dituela argi dago, ez baitago horretan jarduteko irizpiderik. Ondorioz, irakasleen esku dauden aukerak murriztuagoak dira, norbere esku geratuz erabaki guztiak. Sexu-hezkuntza gelatan lantzeko tresnak ez dira ez ugariak, ezta ezagunak ere. EAEn erakunde publikoek ez dute horrelakorik eskaintzen. Horrekin bat, elkarriketatutako irakasleek gaiak sorrarazten dizkien kezka igorri dituzte. Hasteko, ez dute haien burua babestuta ikusten gurasoen aurrean, sexu-hezkuntza lantzea eta hori nola egin ez dagoelako zehaztuta ez curriculumean, ezta eskola eskotan ere. Gainera, marko teorikoan azaldu bezala, familiaren eta eskolaren arteko kooperazioa onuragarria izango da haurrarentzat, maila pertsonalean nahiz hezkuntza-mailan. Orduan, horretarako aukerak eskaini beharko lirateke eskolan, gurasoen eta hezitzaileen arteko elkarlana sustatzeko, funtsean ikasleei haien garapenean laguntzeko, beti haurra prozesuko ardatza izanik. Nolanahi ere, ez dago familien parte-hartzerik eskatzerik, ez badago horretarako jarraibiderik.

Lanari amaiera emateko, ez da ahaztu behar sexu-hezkuntzak garrantzi handia duela, halere ezin da ahaztu hori haur bakoitzaren beharretara, garapenera eta egoerara egokitu behar dela. Argi izan behar da zergatik landuko dugun gaia, beharretatik abiatuta planifikatuko baita jarduna. Dena den, kontuan izatekoak dira haur edo gazte bakoitzaren adina, garapen aldia eta premiak, horiek norbanakoaren arabera aldatuko baitira. Horretarako funtsezkoa izango da gizartean dauden aurreiritziak alde batera uztea eta haurra ikuspegi holistiko batetik begiratzea. Izan ere, ez dago kalitatezko sexu-hezkuntza izaterik gizarte gisa ikuspegia aldatzen ez badugu.

Erreferentziak

- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 9, 2016ko urtarrilaren 15ean).
- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 9, 2015ko 2016ko urtarrilaren 15ean).
- 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 109, 2023ko ekainaren 9an).
- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, 109, 2023ko ekainaren 9an).
- Bramhagen, A. C., eta Lundström, M. (2024). Teachers' and nurses' perspective regarding sex education in primary school and influencing factors. *Scandinavian journal of educational research*, 68(2), 115-125.
- Cabrera-Fajardo, D. P. (2022). Educación sexual integral en la escuela. *Revista Unimar*, 40(1), 136-151.
- Calvo, S. (2021). Educación sexual con enfoque de género en el currículo de la educación obligatoria en España: avances y situación actual. *Educatio Siglo XXI*, 39(1), 281-304.
- Cacciatore, R., Kortenien-Poikela, E., eta Kaltiala, R. (2019). The Steps of Sexuality—A Developmental, Emotion-Focused, Child-Centered Model of Sexual Development and Sexuality Education from Birth to Adulthood. *International Journal of Sexual Health*, 31(3), 319-338. <https://doi.org/10.1080/19317611.2019.1645783>
- Cacciatore, R. S. M., Ingman-Friberg, S. M. L., Lainiala, L. P., eta Apter, D. L. (2020). Verbal and behavioral expressions of child sexuality among 1-6-year-olds as observed by daycare professionals in Finland. *Archives of Sexual Behavior*, 49(7), 2725-2734.
- Cacciatore, R., Öhrmark, L., Kontio, J., Apter, D., Ingman-Friberg, S., Jokela, M., Sajaniemi, N., Korkman, J. eta Kaltiala, R. (2024). What do 3-6-year-old children in Finland know about sexuality? A child interview study in early education. *Sex Education*, 24(3), 291-310. <https://doi.org/10.1080/14681811.2023.2188182>
- Chinelli, A., Ubbiali, M., Paparatto, G., Torri, E., Musco, A., Galipò, R., Meli, P., Bellini, S., Catucci, N., Caloprico, L., Caposeragna, A., Farinella, M., Rancilio, L., Landi, N., Stettini, P., Salfa, M.C., Cellini, A., Suligoi, B., Palamara, A.T., Mortari, L., Caraglia, A., Martinelli, D. eta Tavoschi, L. (2024). Introducing comprehensive sexuality education in Italian schools: from the co-construction to the evaluation of a pilot intervention. *BMC Public Health* 24(1), 2089. <https://doi.org/10.1186/s12889-024-19610-7>
- Cevallos, A. C. eta Jerves, E. M. (2014). ¿Educación sexual para mi hijo e hija de preescolar (3-5 años)? Percepciones de padres y madres de familia. *Revista Electrónica Educare*, 18(3), 91-110. <http://dx.doi.org/10.15359/ree.18-3.6>
- Defaz, Y. P., Cañizares, L. A., eta Constante, M. F. (2019). Conductas sexuales y emocionales infantiles. *Revista Boletín Redipe*, 8(11), 124-134.
- European Expert Group on Sexuality Education (2015). Sexuality education – what is it? *Sex Education*, 16(4), 427-431. <https://doi.org/10.1080/14681811.2015.1100599>
- García-Piña, C. A. (2016). Sexualidad infantil: información para orientar la práctica clínica. *Acta pediátrica de México*, 37(1), 47-53.
- González, E. (2020). La investigación sobre sexualidad infantil: limitaciones y recomendaciones. *Summa Psicológica UST*, 17(1), 62-69.

- Hernández-Sampieri, R., Fernández, C., y Baptista, P. (2010). *Metodología de la investigación*. McGraw Hill.
- Johnson, R. B. eta Onwuegbuzie, A. J. (2004). Mixed methods research: A research paradigm whose time has come. *Educational Researcher*, 33(7), 14-26.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- López, F. (2020). *Mitos viejos y nuevos sobre sexualidad: el rol de la educación sexual*. ANAYA.
- Rodríguez, A., Vicuña, J. J., eta Zapata, J. (2021). Familia y escuela: educación afectivo-sexual en las escuelas de familia. *Revista virtual Universidad Católica del norte*, 63, 312-344.
- Torregrosa, I. (2019). *Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat*. Gráficas Xavier.
- UNESCO, United Nations Children's Fund, Joint United Nations Programme on HIV/AIDS, United Nations Population Fund, World Health Organization, eta United Nations Entity for Gender Equality and the Empowerment of Women. (2021). *The journey towards comprehensive sexuality education: global status report*. UNESCO publishing. <https://doi.org/10.54675/nfek1277>
- Villalobos, S. A. (2023). Construcción social de la sexualidad. *Revista Educación Las Américas*, 13(1), 1-16.

Aipamen biografikoa

Aitana Abaroa Gorritxo. Haur Hezkuntzan graduatua da, hizkuntza aniztasuna eskolan aipamenarekin. Horren ostean, *Psikodidaktika: Hezkuntzaren psikologia eta berariazko didaktikak* masterra egin zuen, eta gaur egun programa bereko doktoregaia da. Doktorego tesia sexu-hezkuntzak lehen haurtzaroan duen garrantziari buruz garatzen ari da, horretarako dauden aukerak eta oztopoak aztertuz. Horrekin bat, egun Didaktika eta Eskola antolakuntza saileko kidea da Bilboko Hezkuntza fakultatean ikertzaile kontratu bati esker, zeinaren bidez artikuluak publikatzeko eta kongresuetan parte-hartzeko aukera izan duen.

GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA LEHEN HEZKUNTZAKO HISTORIAREN IRAKASKUNTZAN: KASU-AZTERKETA

INTEGRATION OF THE GENDER MAINSTREAMING INTO THE TEACHING OF PRIMARY HISTORY: CASE ANALYSIS

Nekane Aristondo¹, Iratxe Gillate, Alex Ibáñez-Etxeberria, Janire Castrillo

****** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Historiaren irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzearen garrantzia baieztatu den arren, haren integrazioak erronka esanguratsuak ditu oraindik. Horregatik, ikerketa honekin Lehen Hezkuntzako eskola batek genero-ikuspegia txertatzeko duen inplikazioa eta diseinatutako esku-hartzearen eragina eza-gutu nahi da. Horretarako, kasu-azterketa esploratzailea egin da Bizkaiko eskola publiko batean, metodologia mistoa eta tresna hauek erabiliz: elkarriketa sakona eta galdetegiak. Parte-hartzaileak zuzendaritza-taldeko 2 kide, 20 irakasle eta 3. mailako 26 ikasle izan dira. Emaitzek erakusten dutenez, eskolan genero-ikuspegiaren garrantzia onartzen bada ere, gabeziak daude plangintzan, prestakuntzan eta baliabideetan. Halaber, esku-hartzearen ondoren, aldaketa positiboak egon dira ikasleengan. Beraz, genero-ikuspegiaren integrazioa eta irakasleen prestakuntza formalizatzeko premia ondorioztatu da, baita esku-hartzearen eragin positiboa ere.

Hitz gakoak: Genero-ikuspegia, Gizarte Zientziak, hezkuntza, historiaren irakaskuntza, esku-hartzea.

Abstract

Although the importance of gender mainstreaming in the teaching of history has been confirmed, its integration continues to pose significant challenges. This research aims to understand the involvement of a primary school in gender mainstreaming and the impact of a designed intervention. For this purpose, an exploratory case study was conducted in a public school in Bizkaia using a mixed methodology and these tools: in-depth interview and questionnaires. Participants included 2 management team members, 20 teachers and 26 third-grade students. The results reveal that while the importance of the gender perspective is recognized in school, there are shortcomings in planning, training and resources. There have also been positive changes in students' perceptions since the intervention. Therefore, the need to formalize the integration of the gender perspective and teacher training is concluded, alongside recognizing the positive impact of the intervention.

Keywords: Gender mainstreaming, Social Science, education, teaching of history, intervention,

¹ Harremanetarako: Nekane Aristondo, Matematika, Zientzia Esperimental eta Gizarte Zientzien didaktika, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (II). Oñati plaza 3, Donostia. Helbide elektronikoa: nekane.aristondo@ehu.eus

Sarrera

Hezkuntzaren egungo testuinguruan, historiaren eta gizarte-zientzien irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzea funtsezkoa da gizartean dauden genero-desberdintasunak eta gizarteko botere-dinamikak aztertzeke eta ulertzeke, baita iraganaren irudikapen zehatzagoa sustatzeko ere. Horrekin lotuta, curriculumean txertatzeko bidean aurrera egin den arren, genero-ikuspegia historiaren irakaskuntzan txertatzeak erronka esanguratsuak ditu oraindik. Izan ere, hezkuntza-materialek, sarritan, historia andro-zentrikoa aurkezten dute, emakumeen ekarpenak baztertuz. Era berean, ikerketa historikoek emakumeek hainbat testuinguru historikotan, hala nola Erdi Aroan, izan duten garrantzia eta presentzia aktiboa agerian utzi duten arren, alde handia dago eremu historiografikoko ikerketek aurkitu dutenaren eta ikasgelan irakasten denaren artean.

Testuinguru horretan, ikerketa esploratzailea egin da eta horren helburu orokorra da Lehen Hezkuntzako eskola batek genero-ikuspegia txertatzeko duen inplikazioa ulertzea eta diseinatutako esku-hartzeak ikasleen pertzepzioetan duen eragina ezagutzeko. Horretarako, kasu-azterketa esploratzailea egin da Bizkaiko eskola publiko batean, non zuzendaritza-taldeko 2 kidek, 20 irakaslek eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako 26 ikaslek parte hartu duten. Metodologia mistoa erabili da, tresna hauen bitartez: elkarrizketa sakona egin zaio zuzendaritza-taldeari, irakasleei testak aplikatu zaizkie eta ikasleei *pre-* eta *post-test* bat pasatu zaie, esku-hartzearen eragina ebaluatzeke. Horretarako, honako analisi motak hauek erabili dira: diskurtsoaren azterketa, azterketa lexikometrikoa eta diseinu kuasi-esperimentalaren interbentzioaren aurreko eta osteko datuak hartuta.

Emaitez agerian utzi dute eskolan genero-ikuspegia txertatzeko protokolorik ez dagoela, eta irakasleek emakumeen historiaren ikuspegi mugatua dutela. Bestalde, ikasleek Erdi Aroko rolei buruz duten pertzepzioa aldatu egin dela ikusi da. Ondorioz, genero-ikuspegiaren integrazioa formalizatu eta irakasleen prestakuntza hobetu behar da. Halaber, esku-hartzeak ikasleen pertzepzioetan duen eragin positiboa ondorioztatu da, ikuspegi horretatik lan egiten jarraitzea funtsezkoa izan arren.

Oinarri teorikoa

Generoa konstruktua sozial eta historiko gisa ulertzen da, kulturak eta esperientzia historiko-kulturalak moldatua, feminitatearekin eta maskulinitatearekin lotua, eta, aldi berean, gizartean dauden desberdintasunak eta botere-dinamikak barne hartzen dituen (Castañeda eta Diaz-Bernal, 2021). Genero-rolei dagokienez, aldatzen ari dira, nahiz eta patriarkatua betikotzen duten estereotipoekin lotzen diren oraindik (Alonso eta Blasco, 2007; Sánchez eta Miralles, 2014).

Genero-ikuspegia funtsezko tresna da desberdintasun horiek aztertzeke (Castañeda eta Diaz-Bernal, 2021), baita emakumeen zeregina ikusarazteke eta iraganaren eta orainaren interpretazio berriak egiteke ere (Ortega-Sánchez, 2017). Bereziki, ikuspegi hori Historiaren eta Gizarte Zientzien irakaskuntzan txertatzea funtsezkoa da etorkizuneko belaunaldiak genero-hierarkizazioen aurkako borrokan hezteke eta desberdintasunei eta gizarte-aurrerapenari buruzko kontzientzia kritikoa sortzen lagun-

tzeko (Ortega-Sánchez, 2017; Castrillo *et al.*, 2023). Hala ere, historiaren irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzeak erronka nabarmenak planteatzen jarraitzen du (Díez eta Moreno, 2018).

Hezkuntzaren eta Gizarte Zientzien esparruan, 90eko hamarkadaz geroztik hainbat hezkuntza-lege ezarri dira hezkuntza-sisteman genero-berdintasuna sustatzeko, curriculumean zeharkako eduki gisa jorratuz (Díez eta Moreno, 2018). Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, funtsezkoa da 77/2023 Dekretuak ezarritako araudia kontuan hartzea (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum ahozko zehazpena eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena). Dekretu honek ezartzen du arlo eta gai guztietan genero-ikuspegia zeharka sustatu behar dela ezartzen du, bai eta material didaktikoetan ere berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetua sustatu behar dela. Konkreteki, herritartasunerako konpetentziaren helburua da ikasleek balio etikoei eta aniztasunarekiko errespetuari buruz hausnartzea, diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Bestalde, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutzaren arloan, generoaren azterketa nabarmentzen da gizartearen bilakaera ulertzeko eta gertakari historiko-kulturalak kritikoki aztertzeko funtsezko tresna gisa.

Dekretuak genero-ikuspegia lantzeko aukera esanguratsuak eskaintzen dituen arren, funtsezkoa da printzipio horiek ikasgeletan eraginkortasunez ezartzea. Ortega-Sánchezek (2022) nabarmentzen du beharrezkoa dela historiaren didaktikako berrazko programak ezartzea, emakumeak historikoki protagonistatzat hartuz. Gainera, material didaktikoetan diskurtso androzentrikoak dira nagusi eta, Castrillo *et al.*-en (2021) arabera, azken hamarkadetan egindako ikerketek agerian utzi dute testuliburuetan emakumeen historiaren tratamenduan gabezia nabarmenak direla eta emakumeak oso gutxi aipatzen direla. Ikasgeletako baliabide nagusia testuliburuak direnez (Castrillo *et al.*, 2021; López-Zurita eta Felices-De la Fuente, 2023), emakumeen ikusezintasuna iraunarazten dute eta diskurtso androzentrikoa sustatzen dute, bereziki Gizarte Zientzietan (Díez eta Moreno, 2018).

Testuinguru horretan, genero-berdintasuna txertatzeko eta estereotipoak gainditzeko material didaktikoak sortzeko edo ebaluatzeko ekimenak proposatu dira (Vaíllo Rodríguez, 2016). Hala ere, ez da nahikoa hezkuntza-materialetan aurreiritzi eta estereotipo sexistak ezabatzea; beharrezkoa da irakasleak genero-gaietan prestatzea, diskurtso patriarkala hausteko eta hezkuntza inklusiboagoa sustatzeko (García Luque, 2016b). Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan, Álvarez-Rementerías *et al.*-ek (2021) nabarmentzen dute, EAEko irakasleen prestakuntzan genero-ikuspegia nahikoa lantzen den arren, etengabeko prestakuntza hobetu behar dela, irakasleak aldaketa-eragile gisa ahaldunduz.

1980ko hamarkadatik aurrera, Erdi Aroko emakumeen egoerari buruzko ikerketek garapen esanguratsua izan dute, Erdi Aroko emakumeek mendeko rolak betetzen zituzten ustea desafiatuz (Segura, 2016). Bereziki, Cristina de Pizán, Hildegarda de Bingen edo María de Francia bezalako emakumeak nabarmendu ziren beren estatusa eraldatzeagatik, muga juridikoak izan arren (Ferrer, 2019). Beste ikerketa-arlo nabarmenetako bat emakumeen lan-mundua izan da. Bertan, emakumeek ekonomian funtsezko papera betetzen zutela nabarmendu da, nekazaritza-jardueretan, artisau-lanbideetan eta merkataritzan parte hartuz, besteak beste (García-Martínez eta Escalera, 2020). Az-

ken batean, historiografian Erdi Aroko emakumeen agentziaren hainbat alderdi agerian utzi dituzten ekarpenak egin dira, eta horrek garaiko ikuspegi askoz pluralagoa lortzea ekarri du (Castrillo, 2020).

Nolanahi ere, desadostasun nabarmena dago eremu historiografikoko ikerketen aurkikuntzen eta ikasgelan irakasten denaren artean. Erdi Aroko irakaskuntzaren testuinguru horretan, Pagesek (2017) proposatzen du ikuspegi sozioekonomikoari heltzea, emakumeak historian integratzeko. Castrillo *et al.*-ek (2021) ikasgelara eraman daitezkeen hainbat gai proposatzen dituzte, Erdi Aroko emakumeak integratzeko: garai hartako eragin handia izan zuten emakumeei buruz ikertzea, emakumeen lan-mundua aztertzea, emakumeen kereilaren mugimendua aztertzea, emakumeen bizi-zikloak eta emakumeen funtzio sozial espezifikoak ikertzea.

Testuinguru horretan, ikerketa honen helburu orokor gisa planteatzen da Lehen Hezkuntzako eskola batek genero-ikuspegia gizarte-zientzietan txertatzeko duen inplikazioa ulertzea eta diseinatutako esku-hartzeak ikasleen pertzepzioetan duen eragina ezagutzea. Helburu hori lortzeko, honako helburu espezifiko hauek planteatzen dira: (1) zuzendaritza-taldeak genero-ikuspegia aplikatzeari buruz duen inplikazioa ezagutzea, (2) irakasleek emakumeen historiari buruz duten pertzepzioa aztertzea, (3) irakasleek Erdi Aroko rolen garrantziari buruz duten pertzepzioaren aldaketa aztertzea eta (4) irakasleek Erdi Aroko gizartean generoaren arabera rolak esleitzeari buruz duten pertzepzioaren aldaketa aztertzea.

Metodoa

Ikerketa esploratzaile hau metodologia misto baten bidez gauzatu da, zehazki, kasu-azterketa baten bidez. Simons-ek (2011) dioenez, kasu-azterketa hainbat ikuspegitik eta ingurune erreal batean egiten den ikerketa sakona da, proiektu, erakunde, programa edo sistema bat aztertzen duena; horien erabateko ulermen holistikoa lortzeko helburuarekin. Hiru diseinu erabili dira, hiru analisi motarekin batera: diseinu kualitatiboa (analisi diskurtsiboa), diseinu kuantitatibo-kualitatiboa (analisi lexikometrikoa) eta diseinu kuasi-esperimentalak, interbentzioaren aurreko eta osteko datuak hartuta (analisi kuantitatiboa).

Parte-hartzaileak

Ikerketa Bizkaiko eskola publiko batean egin da, komenentziagatik hautatua, laguntzeko prestasuna eta izaera publikoa bezalako faktoreak kontuan hartuta. Hiru parte-hartzaile motaren elkarlanaren eta parte hartzearen bidez gauzatu da: irakasleak, ikasleak eta zuzendaritza-taldea.

Irakaskuntzaren esparruan, 20 irakasle (% 50) parte hartu dute, eskolako hainbat arlo eta mailatako 16 emakumek eta 4 gizonen. Era berean, zuzendaritza-taldeko emakumezko 2 kide (zuzendaria eta ikasketa-burua) elkarriketatu dira. Ikasleei dagokierik, Lehen Hezkuntzako 3. mailako 26 ikasle parte hartu dute, bi gelatan banatuta, 3A gela 12 ikaslerekin (6 neska eta 6 mutil) eta 3B gela 14 ikaslerekin (6 neska eta 8 mu-

til). Ikasleen lagina aukeratzeko, bi irakasleren lankidetza hartu da kontuan, esku-hartzearen inplementazioa haien ikasle-taldeekin lantzeko aukera onartu dutelako.

Aldagaiak eta tresnak

Ikerketan lau aldagai nagusi aztertu dira: zuzendaritza-taldeak genero-ikuspegiaren aplikazioan duen inplikazioa, irakasleek emakumeen historiari buruz duten pertzepzioa, eta ikasleek Erdi Aroko rolen garrantziari eta genero-rolak esleitzeari buruzko pertzepzioaren aldaketa. Horretarako, datuak biltzeko hainbat tresna erabili dira.

Lehenik, elkarriketa sakon erdi egituratua egin zen zuzendaritza-taldeko kideekin, 10 galdera irekiko gidoia erabiliz. Juaristik (2003) dioenez, sakoneko elkarriketetan sortzen den konplizitatea oso egokia da aztertzen diren gaien arrazoiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko.

Bigarrenik, irakasleen pertzepzioa neurtzeko, *ad hoc* sortutako galdetegia aplikatu zen, *emakumeen historia* eta *hezkuntza* hitzak entzunda hiru hitz idazteko eskatu zitzaizen, haien esanahia azaltzen zuen paragrafo batekin batera.

Ikasleen galdetegiari dagokiolarik, *ad hoc* sortu da eta 3 zatitan banatutako 21 item ditu (1. eranskina). Lehenengo atalak 4 item ditu datu soziodemografikoak biltzeko. Bigarrenak 9 item ditu, ikasleek Erdi Aroko rolen garrantziari buruz duten pertzepzioaren aldaketa ebaluatzeko, *Cronbachen Alfa* koefizientearen bidez, 0.710 balioa lortuz. Item horiek *Likert* eskala erabiliz baloratu dituzte (1: ez da garrantzitsua – 4: guztiz garrantzitsua). Tresnaren baliozkotasuna KMO eta Bartlett proben bidez aztertu da, 0.561eko KMO balioa lortuz eta Bartletten proban esangura estatistikoa $p < .001$ izanez, eta beraz, faktore-analisira pasatu zen.

Halaber, aurkitutako soluzio trifaktorialak aldakortasunaren % 69,08 azaltzen du. Lehenengo dimentsioa *Genero-loturarik gabeko rolak* da (narratiba historikoan bi generoekin erlazionatzen direnak), 3 itemez osatua. Item horien asetarenek .70 balioa gainditu zuten eta fidagarritasuna handia izan zen ($\alpha = .802$). Bigarrena *Genero femeninoarekin lotutako rolak* da (narratiba historikoan balorazio-karga eta ikusgarritasun txikiagoa izan duten jarduerak eta genero femeninoarekin erlazionatu direnak), 3 itemez osatua. Horiek .53tik gorako asetarenak eta elkarren arteko trinkotasuna erakutsi zuten ($\alpha = .727$). Hirugarrena, *Genero maskulinoarekin lotutako rolak* (narratiba historikoan balorazio-karga eta ikusgarritasun handiagoa izan duten rolak eta genero maskulinoarekin erlazionatu direnak) 3 itemek osatzen dute. Item horien asetarenek .47 balioa gainditu zuten eta fidagarritasuna pixka bat baxua izan zen ($\alpha = .507$).

Galdetegiaren hirugarren zatiak 8 item ditu, esku-hartzea aplikatu ondoren ikasleek Erdi Aroko gizartean genero-rolak esleitzeari buruz zuten pertzepzioaren aldaketa ebaluatzeko. Hau da, item bakoitzean parte-hartzaileek generoa esleitu zioten (emakumea, gizona edo biak) jarduera/rol bakoitzari.

Prozedura

Prozedura hainbat fasetan gauzatu da 2023-2024 ikasturtean. Lehenik eta behin, elkarrizketak egin zitzaizkion zuzendaritza-taldeari, eta irakasleei galdetegi irekia pasatu zitzaion, ikastetxearen beharrei eta pertzepzioei buruzko hasierako diagnostikoa lortzeko. Hori oinarri hartuta, Erdi Aroa genero-ikuspegitik lantzeko esku-hartze bat diseinatu zen. Ondoren, ikasleek pretesta egin zuten, jarraian, esku-hartzea inplementatu zen eta, azkenik, postesta aplikatu zen.

Esku-hartzea 10 saiotan banatu zen, Erdi Aroa genero-ikuspegitik lantzeko. Hauek izan ziren esku-hartzearen gai nagusiak: gizarte-klaseak, lanbideak, jantziak, etxebizitza eta beste espazio batzuk, elikadura, eta emakume boteretsuak.

Analisi estatistikoak

Datuen analisirako hainbat programa erabili dira, bildutako datuen ezaugarrien arabera hautatuak. Lehenik eta behin, *NVivo softwarea* erabiliz, zuzendaritza-taldeari egindako elkarrizketan lortutako erantzunen diskurtsoaren azterketa egin zen, gaiak identifikatuz eta aztertuz. Bestalde, irakasleei aplikatutako testa *Iramuteq 0.7 alpha 2* tresna erabiliz; konkretuki, analisi kualitatiboa egiteko, *Reinert*-en metodoa erabili zen. Metodo hau maiz erabili izan da galdera irekiak aztertzeko, lortutako emaitzek testuen analisian fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ezabatzen dituztela baieztatuz (Apaolaza-Llorente eta al., 2023). Konglomeratu hierarkikoak aztertzeko metodo hau testu irekietan klase eta hitz esanguratsuak identifikatzean oinarritzen da, honako irizpide hauetan oinarrituta: espero den maiztasuna, Chi-karratuaren balioa eta klase horretan % 50eko edo gehiagoko maiztasunarekin agertzea. *Iramuteq*-ek ere zehaztu zuen zer testu-segmentu zeuden lotuta klase bakoitzarekin, esanguratsuenak erakutsiz. Azkenik, ikertzaileak klase bakoitza etiketatzen du.

Azkenik, esku-hartzearen aurretik eta ondoren ikasleei aplikatutako testen emaitzak aztertzeko, *IBM SPSS Statistics 28* erabili zen. Aldagai eta item indibidual bakoitzeko estatistika deskribatzaileak kalkulatu ziren eta datuek normaltasun-kasua betetzen ez zutenez, datu multzoen araberrako frogak erabili ziren. Galdetegiaren bigarren zatia aztertzeko, Wilcoxon-en zeinu-proba erabili zen esku-hartzearen aurreko eta ondorengo batez bestekoak alderatzeko. Halaber, emaitzak efektuaren tamainaren kalkuluekin batera aurkezten dira. Hirugarren zatirako, *McNemar*-en proba aplikatu zen eta aldagaia dikotomikoa izan zedin, datuak birkodetu egin ziren: «1» jarduera genero bakarrarekin lotzen zutenerako eta «2» bi generoekin lotzen zutenerako.

Emitzak

Fase diagnostikoa: Genero-ikuspegiaren aplikazioan eskolak duen inplikazioa

Genero-ikuspegiaren aplikazioari dagokionez, zuzendariak eta ikasketa-buruak adierazi dute eskolan genero-ikuspegia txertatzen saiatzen direla STEAM bezalako proiektuetan, esaterako, tradizionalki maskulinoztat jo diren eremuetan nesken parte-

hartzea sustatzeko. Hala ere, azaldu dute integrazio hori ez dagoela sistematizatuta eta ez dutela plan edo protokolo espezifikorik eskola-jardueretan modu egituratua lantzeko. Ildo horretatik, zuzendariak aipatu du iaz 4. mailako gelan bi ikaskuntza-egoera diseinatu zirela ikasturtean zehar lantzeko: museo inklusibo baten inguruko ikaskuntza-egoera bat diseinatu zuten eta historia emakumeen ikuspegitik irakasten saiatu ziren. Hala ere, gaineratu du praktika horiek egitea ikasturte horretako tutoreek (berak eta beste irakasle batek) erabaki zutela, eta, beraz, argitu du ekintza horiek irakasle bakoitzaren esku daudela, ez baitago eskola planik.

Horiek horrela, genero-ikuspegia irakaskuntzan txertatzearen garrantzia nabarmendu dute, hezkuntzaren erreferenteak gehienbat maskulinoak izan direla eta emakumeen rola baztertu direla esanez. Gizarte Zientziei dagokienez, bat datoz genero-ikuspegia txertatzea funtsezkoa dela esatean, bereziki historiaren irakaskuntzan. Haien iritziz, narratiba historiko tradizionala partziala izan da, emakumeen papera baztertu duten eta gizonek kontatu dituzten kontakizunetan zentratua. Horregatik, ikuspegi hori aldatzeko eta emakumeek historian egin dituzten ekarpenei aho-ntsa emateko lan egitearen beharra nabarmendu dute. Ildo horretan, eskolan politika espezifikorik ez dagoela adierazi arren, datorren urtean hezkidetzako proiektu bat aurkezteko asmoa dute, eskola-jardueretan genero-ikuspegiaren integrazioa formalizatzeko.

Hezkuntza metodologiari eta materialei dagokienez, eskolak duela urte batzuk testuliburuak ez erabiltzea erabaki zuen, sustatu nahi zituen balioak eta perspektibak islatzen ez zituztelako. Hausnarketa prozesu baten ondoren, liburuak ziklo ziklo kendu ziren. Elkarriketatuen ustez, testuliburuak oztopo dira genero-ikuspegitik irakasteko, eta ez dira beti inklusiboak; eta horiek gabe, askatasun handiagoa dute ikuspegi inklusiboagoa sustatuko duten materialak hautatzeko eta egokitzeke.

Irakasleak genero-gaietan trebatzeari dagokionez, aitortu dute prestakuntza horrek berebiziko garrantzia duela genero-ikuspegia irakaskuntzan modu eraginkorrean ezartzeko. Zentzu horretan, galdetu zaienean zuzendaritzatik nola sustatzen duten irakasleak genero-gaietan prestatzea eta horiek irakaskuntzan aplikatzea, hainbat ekimen aipatu dituzte, hala nola, egun bereziak edo emakumeari eskainitako asteak. Ondoren, genero-ikuspegiari buruzko prestakuntzarik eskaintzen ez dela onartu dute, nahiz eta zuzendaritzatik prestakuntzaren garrantziaren mezua helarazten saiatzen diren.


Genero-ikuspegia eskolan txertatzeko oztopoei dagokienez, nabarmendu dute beharrezkoa dela taldean lan egitea eta ikuspegi partekatua izatea. Onartzen dute irakasle bakoitzak modu desberdinean hauteman dezakeela ikuspegi horren garrantzia, eta horrek koherentzia falta eragin dezakeela eskolako praktikan. Hortaz, berriz aipatu dute plan egituratu eta sistematizatu bat izatea beharrezkoa dela. Era berean, haien ustez, genero-ikuspegia hezkuntza-agendan lehentasunezko helburu gisa hartzea falta zaie, eta, hortik abiatuta, hori lantzeko modua bilatzea. Horrez gain, denbora falta aipatu dute horrelako ekimenak modu eraginkorrean aurrera eramateko oztopo gisa, irakasleen lan-karga dela eta. Azkenik, Gizarte Zientziei dagokienez, zuzendariak dio eskolan asko kostatzen zaiela historia lantzea, «beldurra» ematen duela eta irakasleek gai horiek lantzea dezente kostatzen dela aipatuz.

Epe labur eta luzerako helburuei dagokienez, ikasketa-buruak eta zuzendariak aitortzen dute beharrezkoa dela plan jakin bat garatzea (Hezkidetza plana) hezkuntzan genero-ikuspegiaren aplikazioa hobetzeko eta sustatzeko, Gizarte Zientzietan barne.

Amaitzeko, elkarrizketatuek onartu dute hobekuntza eskatzen duten alderdi asko dauden arren, horretan lanean ari direla. Gainera, eskolan lehentasunak ezartzearen garrantzia azpimarratu dute; genero-ikuspegia horietako bat izanik, gaur egungo gizartean ere lehentasuna duelako. Era berean, inklusioaren beharra eta emakumeak hezkuntzaren erdigunean jartzearen garrantzia aipatu dute, bidezkoagoa den hezkuntza sustatzeko.

Fase diagnostikoa: emakumeen historiari buruzko irakasleen pertzepzioa

Irakasleek (20 parte-hartzaile) emakumeen historiari buruz duten pertzepzioa eza-gutzeko, haiei aplikatutako galdetegiaren bidez bildutako erantzunak erabili ziren. *Reinert* metodoaren beheranzko analisi hierarkikoak 20 segmentutan eta 5 klasetan banatu zuen corpusa (640 forma) (1. irudia).



1. irudia

Maiztasun eta lotura handieneko hitzen dendograma

Lehenengo adarra 4 klasek osatzen dute, eta bi azpitaldetan banatzen dira (1. eta 2. klaseak; 3. eta 4. klaseak). Adar horrek hezkuntzan dagoen genero-desberdintasunari eta ekitatearen aldeko borrokari buruz dihardu. Horretan, hezkuntzarako sarbidea eta emakumeentzako aukerak mugatu dituzten oztopo historikoak eta garaikideak eztabaidatzen dira, baita emakumeek historian zehar egindako ekarpenak aitortu eta ikusaraztearen garrantzia ere.

Lehenengo azpiadarraren lehen klasean, «Hezkuntza-desberdintasuna» izenekoan (% 17,24), parte-hartzaileek hezkuntzarako sarbidean egon den ekitaterik ezaz eta horri lotutako genero-rolaz hausnartu dute. Klase horretako aipu esanguratsu batzuk hauek dira: «Hori bidegabekeria nabarmena da; emakumeen rolek beste paper bat izan dute hezkuntzaren historian» ($\chi^2 = 26.84$; $Ir11gG$); «Estereotipoek emakumeek etxeko hezkuntzaren transmisore gisa definitzen zuten. Heziketa horrek markatu behar zuen etor-

kizuneko emakumeen eta gizonen rola» ($\chi^2 = 19.11$; Ir17gG), eta «Bidegabekeria da emakumeek urte askoan prestakuntza jasotzea debekatuta izatea. Gizonak bakarrik jaso zezaketen» ($\chi^2 = 17.62$; Ir02gE). Amaitzeko, emaitzak honako hitzekin lotzen dira: hezkuntza ($F = 11$; $\chi^2 = 9.89$), papera ($F = 3$; $\chi^2 = 5.73$) eta historia ($F = 7$; $\chi^2 = 4.24$).

Diskriminazio historiko horri aurre egiteko, bigarren klasea dugu. Klase horretan, «Ikusgarritasuna eta errekonozimendua diskriminazio historikoaren aurrean» izenekoan (% 24,14), parte-hartzaileek nabarmendu dute beharrezkoa dela emakumeak ahalduntzea, historian zehar egindako ekarpenak aitortzea eta hezkuntza-materialetan dauden genero-diskriminazioak aztertzea eta aldatzea. Hauek dira aipu garrantzitsuenak: «Uste dut garrantzitsua dela emakume horiek historian zehar egin zuten lan guztia aitortzea» ($\chi^2 = 28.13$; Ir17gG); «Femeninoa dena eta emakumeak gutxiago direla betiko sinesmenaren ondorioz, bidezkoa da haien presentzia, eginkizuna eta eskubideak bereiztea» ($\chi^2 = 22.27$; Ir15gG); «Emakumeok ahaldundu egin behar gara eta beti ukatu zaizkigun espazioak okupatu behar ditugu. Emakumeak historian zehar protagonistak izan direla ikusaraztea, eta ez bigarren mailako aktore soilak» ($\chi^2 = 22.27$; Ir14gE), eta «Ikasleei eskaintzen zaizkien testu motak aztertzea, edukia maskulinitatearekin eta rol estereotipatuarekin soilik lotuta egon ez dadin. Gizonak eta emakumeak agertzeko erabiltzen diren irudi motak ere aztertu behar dira» ($\chi^2 = 5.86$; Ir03gE). Emaitzekin lotutako hitzak hauek dira: beti ($F = 4$; $\chi^2 = 22.27$), gutxi ($F = 3$; $\chi^2 = 5.73$), eta izan ($F = 11$; $\chi^2 = 4.54$).

Bigarren azpiadarrean, hirugarren klasean, «Genero-rolen iraunkortasuna» izenekoan (% 17,24), parte-hartzaileek gizarteko genero-rol tradizionalen jarraitutasunaz eztabaidatu dute. Aipamen garrantzitsuenetako batzuk: «Ikasgeletan ikusarazi behar dugu emakumeak ez direla zaintzaz bakarrik arduratzen, ez lehen, ez orain. Kontatu diguten istorioa partziala dela» ($\chi^2 = 34.73$; Ir14gE); «Egoera beraren aurrean gizon bati emakume bati baino autoritate gehiago ematen zaiola ikusten jarraitzen dugu» ($\chi^2 = 34.73$; Ir09gE); «Justiziaren kontzeptuari indarra eman behar zaio objektiboki ikusi ahal izateko emakumea eta egiten duen guztia etengabe gutxiesten dela maila askotan» ($\chi^2 = 29.00$; Ir15gG), eta «Neskek eremu askotan garrantzitsuak izan diren askotariko emakume-ereduak behar dituzte, haien aukeretan baldintzatuak eta mugatuak ez sentitzeko» ($\chi^2 = 29.00$; Ir13gE). Emaitzak ondorengo hitzekin lotzen dira: ikusi ($F = 5$; $\chi^2 = 29.0$), ahalmen ($F = 5$; $\chi^2 = 7.74$), jarraitu ($F = 3$; $\chi^2 = 5.73$), nola ($F = 3$; $\chi^2 = 5.73$), ez ($F = 3$; $\chi^2 = 5.73$) eta gehiago ($F = 6$; $\chi^2 = 5.69$).

Klase hori laugarrenarekin erlazionatuta dago, estereotipoak gainditzeko beharra dagoelako, aukera-berdintasuna sustatzeko. Klase honetan, «Aukera-berdintasuna» izenekoan (% 24,14), parte-hartzaileek emakumeen hezkuntza- eta lanbide-hautuak mugatzen dituzten genero-estereotipoen iraunkortasunari buruz hausnartu dute, baita emakumeen artean bokazio zientifikoak sustatzearen garrantziari buruz ere. Erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Zientzia-ikasketak egiten dituzten emakumeak osasun eta zaintzarekin lotutakoak izan ohi dira. Horregatik, eskolak bokazio zientifikoak bulztatu behar ditu» ($\chi^2 = 34.16$; Ir03gE); «Denok daukagu aukera berberak izateko eskubidea, eta emakumearen figura seme-alaben eta senideen zaintzarekin lotuta dago oraindik ere. Horren ondorioz, askotan ez ditugu ikasteko eta hazkunde pertsonalerako aukera berdinak» ($\chi^2 = 30.9$; Ir03gE) eta «Berdintasuna emakumeen historiaren eta hezkuntzaren testuinguruan, hezkuntzarako sarbidean eta hezkuntza-aukeretan genero-desberdintasunak ezabatzeko etengabeko borroka da» ($\chi^2 = 26.67$; Ir08gG). Emaitze-

kin lotutako hitzak: aukera ($F = 6$; $\chi^2 = 14.48$), berbera ($F = 8$; $\chi^2 = 8.88$), eskubidea ($F = 4$; $\chi^2 = 6.56$) eta zaintza ($F = 5$; $\chi^2 = 4.24$).

Bestalde, 5. klaseak osatzen duen bigarren adarra, «Ahalduntzea eta aldaketa soziala hezkuntzaren bidez» izenekoan (% 24,14), parte-hartzaileek hezkuntzaren bidez ahalduntzeak duen garrantziaz eta horrek emakumeek gizartean aldaketa positiboak sustatzeko duten gaitasunean duen eraginaz eztabaidatu dute. Gainera, hezkuntzak eta erreferenteek aurrerapen sozialean eta genero-estereotipoak gainditzean duten garrantziaz hausnartu dute. Erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Hezkuntzaren bidezko ahalduntzeak ere emakumeek gizartean eragiteko duten gaitasuna ekartzen du, aldaketa positiboak lortuz eta aurrerabideari lagunduz» ($\chi^2 = 39.46$; $Ir08gG$); «Aldaketan aurrean behar bezala jarduteko eta gizartean erreferente ona izateko konpromisoa hartzea, horrek norberaren inplikazioa dakar» ($\chi^2 = 25.85$; $Ir07gE$); «Gaur egun, maisu baino maistra gehiago daude. Emakumearen presentzia horrek eskolaren eta gizartearen arteko batasuna errazten du, eta batasun horrek bidea egitea eragiten du» ($\chi^2 = 21.57$; $Ir06gE$) eta «Niretzat erreferentea garrantzi handiko hitza da, erreferentea izatea lortzen duzun mailan oinarrituta. Gainerakoei helarazi nahi diezun mezuak jende gehiago edo gutxiago hartuko du» ($\chi^2 = 17.89$; $Ir07gE$). Emaizekin lotutako hitzak: aldaketa ($F = 4$; $X^2 = 14.58$), gizartea ($F = 7$; $\chi^2 = 11.27$), eta ere ($F = 5$; $\chi^2 = 10.3$).

Esku-hartze fasea: Erdi Aroko rolen garrantziari buruzko ikasleen pertzepzio-aldaketa

Analisi honek ikasleek Erdi Aroko rolen garrantziari buruz duten pertzepzioaren aldaketa du aztergai, genero-aldagaiaren ikuspegitik. Ikasgelako esku-hartzearen helburua ikasleek historikoki genero maskulinoei eta femeninoei lotutako rolei buruz zituzten pertzepzioak aldatzea izan zen. Lehenengo dimentsioan (*Genero-loturarik gabeko rola*), nesken kasuan, emaitzek erakutsi dute esku-hartzearen aurretik ($Md = 4.00$; $R = 2$) eta ondoren ($Md = 4.00$; $R = 1$) igoera estatistikoki esanguratsua izan dela jardueren garrantziari buruzko pertzepzioan ($Z = 2.121$; $p = <.034$), eta tamaina handiko efektuarekin ($d = 0.96$). Mutilen kasuan ere esku-hartzearen aurretik ($Md = 3.83$; $R = 2$) eta ondoren ($Md = 4.00$; $R = 1$) gorakada estatistikoki esanguratsua izan da ($Z = 2.414$; $p = <.016$), tamaina handiko efektua izanik ($d = 1.03$).

Bigarren dimentsioan (*Genero femeninoarekin lotutako rola*), nesken kasuan, esku-hartzearen aurretik ($Md = 3.67$; $R = 1$) eta ondoren ($Md = 4$; $R = 1$) emaitzek ez zuten gorakada estatistikoki esanguratsurik erakutsi ($Z = 1.535$, $p = <.125$). Mutilen kasuan, ordea, aurretik ($Md = 4$; $R = 1$) eta ondoren ($Md = 4$; $R = 0$) aldaketa estatistikoki esanguratsua egon da ($Z = 1.983$; $p = <.047$) eta tamaina handiko efektuarekin ($d = 0.81$).

Hirugarren dimentsioan (*Genero maskulinoarekin lotutako rola*), nesken kasuan, esku-hartzearen aurretik ($Md = 3.83$; $R = 2$) eta ondoren ($Md = 4$; $R = 1$) emaitzek gorakada estatistikoki esanguratsua erakutsi dute ($Z = 2.121$; $p = <.041$) eta tamaina handiko efektuarekin ($d = 0.92$). Mutilen kasuan ere, emaitzek aurretik ($Md = 3.83$; $R = 2$) eta ondoren ($Md = 4.00$; $R = 1$) gorakada estatistikoki esanguratsua izan dute ($Z = 2.157$; $p = <.031$), tamaina handiko efektua izanik ($d = 0.89$).

Esku-hartze fasea: Erdi Aroan genero-rolak esleitzeari buruzko ikasleen pertzepzio-aldaketa

Ikasleek Erdi Aroko gizartean genero-rolak esleitzeari buruz zituzten pertzepzioen aldaketak aztertu dira, eta nabarmen aldatu dira esku-hartzearen ondoren. Hasiera batean, rol horietako batzuk gehienbat gizonekin lotu dituzte. *Erreinuan erabakiak hartzeari* dagokionez (1. itema), pretest-ean ikasleen % 53,8k ($n = 14$) bi generoekin lotu ditu erabaki horiek, eta % 46,2k ($n = 12$) soilik erregeekin. Postestean, % 96,2k ($n = 25$) bi generoekin lotu ditu, aldaketa esanguratsua izanik ($p = .003$). *Gerran parte hartzea*-n (2. itema) ere aldaketa esanguratsua egon da erantzunetan ($p < .001$). Pretest-ean parte-hartzaileen % 76,9k ($n = 20$) jarduera hori soilik genero batekin (gizonekin) lotu du, eta posttest-ean, % 84,6k ($n = 22$) bi generoen parte-hartzea aitortu du. Azkenik, *eraikuntzan lan egiteari* dagokionez (3. itema), pretest-ean % 76,9k ($n = 20$) genero bakarrarekin lotu du (% 73,1k gizonekin eta % 3,8k emakumeekin), eta % 23,1k ($n = 6$) bi generoekin. Postestean, % 96,2k ($n = 25$) bi generoekin lotu du, aldaketa esanguratsua izanik ($p < .001$).

Bestalde, pretestean, rol batzuk nagusiki genero femeninoarekin lotu dituzte. *Arropa sortzeari* dagokionez (4. itema), erantzunetan aldaketa esanguratsua egon da ($p < .001$). Pretestean, parte-hartzaileen % 69,2k ($n = 18$) jarduera hori genero bakarrarekin (% 61,5k emakumeekin eta % 7,7k gizonekin) lotu du, eta postestean, % 84,6k ($n = 22$) bi generoen parte-hartzea aitortu du. *Etxeko lanak egiteari* dagokionez (5. itema), pretestean ikasleen % 69,2k ($n = 18$) emakumeekin bakarrik lotu ditu, eta % 30,8k ($n = 8$) bi generoekin. Postestean, % 96,2k ($n = 24$) soilik emakumeekin erlazionatu ditu, eta aldaketa esanguratsua izan da ($p = .016$).

3. eta 7. itemetan, hasiera batean bi generoek parte hartzen zuten roltzat hartu ziren biak, pertzepzioetan nolabaiteko banaketa egonik. *Nekazaritzan lan egiteari* dagokionez (3. itema), pretest-ean, parte-hartzaileen % 53,8k ($n = 14$) bi generoekin lotu du eta % 46,2k ($n = 12$) genero bakarrarekin (% 30,8k emakumeekin eta % 15,4k gizonekin). Postestean, berriz, % 96,2k ($n = 25$) bi generoen parte-hartzearekin erlazionatu du, aldaketa nabarmena emanez ($p < .001$). *Merkatuan lan egiteari* dagokionez, pretestean ikasleen % 53,8k ($n = 14$) bi generoekin lotu du, eta % 46,2k ($n = 12$), berriz, genero espezifiko batekin (% 42,3k emakumeekin eta % 3,8k gizonekin). Postestean, % 80,8k ($n = 21$) bi generoekin erlazionatu du, aldaketa esanguratsua erakutsiz ($p = .039$).

Azkenik, *Erdi Aroko gizarte-garrantziari* dagokionez (8. itema), pretest-ean % 65,4k ($n = 17$) bi generoekin lotu du garrantzi soziala, eta % 34,6k ($n = 9$) soilik genero maskulinoarekin. Esku-hartzearen ondoren, % 100ek ($n = 26$) bi generoekin lotu dute garrantzi soziala, aldaketa esanguratsua izanik ($p = .004$).

Eztabaida eta ondorioak

Atal honetan, ikerketaren funtsezko aurkikuntzak azalduko ditugu, eskolak Gizarte Zientzietan genero-ikuspegia txertatzeko duen inplikazioa eta posizioa aztertzen dutenak, baita diseinatutako esku-hartzeak ikasleen pertzepzioetan duen eragina ere.

Lehenengo bi helburuei dagokienez, ikerketaren hasierako fasean egindako analisiak agerian uzten ditu arreta behar duten funtsezko hainbat arlo. Alde batetik, zuzendaritza-taldeak genero-ikuspegia eskolan txertatzearen garrantzia adierazten du (Castañeda eta Díaz-Bernal, 2021), eta eskolan integratzeko nolabaiteko konpromisoa hartzen du, STEAM izeneko eskola-proiektuan integratuz. Gainera, testuliburuak ez erabiltzeko erabakia, emakumeen ikusezintasuna iraunarazten dutelako eta diskurtso androzentrikoa sustatzen duelako, urrats esanguratsua da hezkuntza inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko bidean (Díez eta Moreno, 2018; Castrillo *et al.*, 2021). Hala ere, hori ez da nahikoa; horrekin batera, ikuspegi inklusiboagoa sustatzen duten hezkuntza-materialak hautatu eta egokitu behar direlako (García-Luque, 2016).

Gainera, hurrengo urtean hezkidetza-proiektua aurkezteko asmoa aipatu duten arren, oraindik ez dute plan edo protokolo espezifikorik eskola-jardueretan genero-ikuspegia modu egituratuan integratzeko; eta genero-ikuspegia integratzeko ekimenak tutoreen erabakien esku daude. Ildo horretan, beharrezkoa da historiaren didaktikako berariazko programak ezartzea, emakumeak historikoki protagonistatzat hartuz (Ortega-Sánchez, 2022). Bestalde, ez dago irakasleei gai horri buruz eskainitako prestakuntza espezifikorik, eta ikuspegi mugatu horrek irakasleentzako genero ikuspegiari lotutako etengabeko prestakuntza hobetzeko beharra nabarmentzen du (Álvarez-Rementerías *et al.*, 2021), bereziki gizarte-zientziei dagokienez; zuzendaritza-taldearen arabera, irakasle askok gai historikoak jorratzeko beldurra sentitzen baitute.

Bestalde, irakasleei egindako testaren emaitzen azterketak agerian utzi ditu irakasleek emakumeen historiari buruz dituzten pertzepzioak. Irakasleek, bereziki, emakumeen hezkuntzarako sarbidea mugatu zuen bidegabekeria historikoa nabarmendu dute. Era berean, emakumeen hezkuntzan zein beste eremutan eragina izaten jarraitzen duten genero-estereotipoen iraunkortasuna aitortu dute (Sánchez eta Miralles, 2014). Halaber, hezkuntzak aldaketa sozial positiboak sustatzeko eta emakumeak ahalduentzako tresna gisa duen potentzialari buruz hausnartu dute (García-Villanueva *et al.*, 2020).

Nolanahi ere, irakasle batzuek emakumeek historian zehar egindako ekarpenak jakinaraztearen garrantzia (Ortega-Sánchez, 2017) eta hezkuntza-materialetan genero-diskriminazioak aldatzeko beharra (Castrillo *et al.*, 2021) aipatu dituzten arren, alde nabarmena dago kontzientzia teorikoaren eta ikasgelan praktikan aplikatzearen artean. Erantzunak aztertuz, gizartean dauden genero-desberdintasunak eztabaidatzeko joera dago, hezkuntza-ingurunean horiei heltzeko ekintza zehatzak proposatu beharrean. Alde hori kontuan hartuta, irakasleak arazoez jabetzen diren arren, baliteke hezkuntza-jardueran aldaketa eraginkorrak ezartzeko beharrezko estrategiak edo ezagutzak ez izatea.

Bestalde, egia da, esan bezala, irakasle batzuek emakumeen ekarpen historikoak ikusarazteko beharra aipatu dutela (Ortega-Sánchez, 2017); nolanahi ere, oro har, emakumeek historian zehar izan duten hezkuntzan zentratu dira, gizarte-zientzietan edo narratiba historikoan emakumeek dituzten rola aipatu gabe. Beraz, ikuspegi orokor horrek prestakuntza espezifikorik edo baliabiderik eza adieraz dezake eta hori bat dator Díez eta Morenok (2018) diotenarekin: historiaren irakaskuntzan genero-ikuspegia sartzek erronka esanguratsuak ditu oraindik, eta garapen-prozesuan dago. Hutsune horiei heltzeko eta generoa txertatzeko proposamenak egiteko, historian besteak beste, irakasleek generoari buruz duten prestakuntza funtsezkoa da (Rausell eta Valls, 2021).

Beraz, hasierako fasean irakasleen plangintza, material espezifikoak eta prestakuntza falta zirela ikusita, hezkuntzako esku-hartze bat diseinatu zen Gizarte Zientzien irakaskuntzan dauden hutsune horiek betetzeko eta genero-ikuspegiaren integrazioa indartzeko.

Esku-hartzeari dagokionez, 3. helburuan, rolen inguruan egindako balorazioen azterketan ikusi zen ikasleek, oro har, hasieratik balorazio nahiko altuak eman zizkietela rol guztiei, baina esku-hartzearen ondoren balorazio horiek positiboki handitu dira. Zehazki, *genero-loturarik gabeko rolen* eta *genero maskulinoarekin lotutako* kasuan, aldaketa esanguratsua egon da horien balorazioetan, nesken zein mutilen kasuan. Hala ere, *genero femeninoarekin lotutako roletan*, soilik mutilen erantzunek izan zuten aldaketa esanguratsua, neskek genero-estereotipoak barneratuagoak izan ditzaketela adieraziz, rol horiek gutxiago baloratzea bultzatuz. Horrenbestez, rolen balorazioetan izandako aldaketa positiboek adierazten dute genero-estereotipoak hausteko bidean aurrera egin dela; izan ere, Ortega-Sánchezek (2017) dioten bezala, genero-ikuspegia funtsezkoa da herritartasun demokratikoa hezteko, genero-rolak eta estereotipoak desafiaturik. Hala ere, agerikoa da nesken artean *genero femeninoarekin lotutako rolen* pertzepzioan erronkak daudela oraindik eta, beraz, funtsezkoa da genero-ikuspegiaren integrazioa lantzen jarraitzea. Bereziki Gizarte Zientzietan, historiaren irakaskuntzak genero-desberdintasunei buruzko kontzientzia kritikoa sortzen lagun dezakeelako (Castrillo et al., 2023).

Laugarren helburuari dagokionez, ikasleek Erdi Aroko gizartean genero-rolak esleitzeari buruz dituzten pertzepzioen azterketak aldaketa positibo esanguratsua erakusten du esku-hartzearen ondoren. Hasieran, ikasleek rol batzuk genero jakin batekin lotzen zituzten (maskulinoa edo femeninoa); baina, esku-hartzearen ondoren, haien pertzepzioa aldatu egin da, eta horrek erakusten du orain gehiago baloratzen dutela bi generoek rol horietan izan zuten parte-hartzea. Hala ere, *Etxeko lanak egin* izeneko itemari dagokionez, ikasleek batez ere emakumeekin erlazionatzen jarraitu dute, Erdi Aroko errealitate historikoa islatuz. Nolanahi ere, funtsezkoa da emakumeek egindako jarduera horiek behar bezala baloratzea, horien garrantzia eta ekarpen historikoa aitortuz; izan ere, narratiba historikoetan emakumeak gutxietsi egiten dira eta gizonen mendeko gisa irudikatzen dira (Bel-Martínez, 2016). Hori dela eta, esku-hartzea pertzepzio hori zuzentzen saiatu da, emakumeekin erlazionatutako jarduerari, etxeko lanena adibidea izanik, balioa ematen eta gizartearen garapenari egin zioten ekarpena nabarmenduz. Hortaz, emaitza horiek guztiek adierazten dute esku-hartzea eraginkorra izan dela genero-estereotipoen aurka egiteko eta historikoki ikusezin bihurtu diren emakumeen ekarpen historikoen garrantzia baloratzeko (Castrillo et al., 2021).

Ondorioz, egindako ikerketa esploratzailearen azterketak agerian utzi du genero-ikuspegia curriculum-arlo guztietan, bereziki Gizarte Zientzietan, integratzeko beharra formalizatu behar dela. Era berean, irakasleen emaitzen azterketak horientzako prestakuntza espezifikoaren beharra erakusten du. Esku-hartzeari dagokionez, aldaketa positibo esanguratsuak eragin ditu ikasleek Erdi Aroko rolen balorazioari eta bi generoen parte-hartzeari buruz duten pertzepzioan. Hala ere, ikuspegi horren bidez lan egiten jarraitu behar da, bereziki, historikoki genero femeninoarekin lotutako roletan, neskek ez baitzuten aldaketa esanguratsurik erakutsi horien balorazioetan.

Amaitzeko, esan beharra dago azterlan honek dituen mugetaz jakitun garena: 1) Laginaren adierazgarritasuna; izan ere, parte-hartzaileen hautaketa ez zen erabat ausazkoa izan, eta Bizkaiko eskola publiko bakar batera mugatu zen. 2) Laginaren tamaina txikia, eta horrek emaitzen orokortasuna mugatzen du. 3) Ikasleen galdetegia; izan ere, hirugarren atala ezin izan da SPSS-rekin baliozkotasuna eta fidagarritasuna kalkulatu. 4) Kontrol-talderik ez egotea, eta horrek esku-hartzearen eragina egoki alderatzea eragozten du. Hori guztia dela eta, etorkizuneko ikerketak ikerketa-proiektu hau hobetzerantz bideratuko dira.

Erreferentziak

- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. (EAO, 340, 2020ko abenduaren 30ekoa).
- 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, 109, 2023ko ekainaren 9koa),
- Alonso, M., eta Blasco, E. F. (2007). El papel de la mujer en la sociedad española. *HALSHS*. <https://shs.hal.science/halshs-00133674>
- Álvarez-Rementería, M., Darretxe, L., eta Arandi, M. (2021). La formación continua del profesorado desde una perspectiva de género: Análisis del plan formativo del País Vasco. *Revista de Estilos de Aprendizaje*, 14(Berezia), 60-74.
- Apaolaza-Llorente, D., Castrillo, J., eta Idoiaga-Mondragon, N. (2023). Are women present in history classes? Conceptions of primary and secondary feminist teachers about how to teach women's history. *Women's Studies International Forum*, 98, 102738. <https://doi.org/10.1016/j.wsif.2023.102738>
- Bel-Martinez, J. C. (2016). El papel de las mujeres en la historia según las imágenes de los libros de texto: Comparación de manuales editados durante la LOE y la LOMCE. *Aula*, 22, 219-233. <https://doi.org/10.14201/aula201622219233>
- Bourn, D. (2016). Teachers as agents of social change. *International Journal of Development Education and Global Learning*, 7(3), 63-77. <https://doi.org/10.18546/ijdegl.07.3.05>
- Callealta, L., Donoso, M., eta Camuñas, N. (2020). Identidad profesional docente: la influencia de las competencias y la formación inicial de los aspirantes a profesores de Educación Secundaria. *Estilos de Aprendizaje*, 13(25), 84-98. <https://bit.ly/3dfyRWR>
- Castañeda, I. E., eta Díaz-Bernal, Z. (2021). Desigualdad social y género. *Revista Cubana de Salud Pública*, 46(4), e1991. <https://www.scielosp.org/article/rcsp/2020.v46n4/e1991/>
- Castrillo, J., Gillate, I., eta Apaolaza-Llorente, D. (2023). Otra Edad Media. La Querella de las Mujeres como recurso para abordar las desigualdades de género ayer y hoy en el aula de historia. *Perfiles educativos*, 45(179), 146-162. <https://doi.org/10.22201/iisue.24486167e.2023.179.60928>
- Castrillo, J., Gillate, I., Vicent, N., eta Luna, U. (2021). Las mujeres medievales en los libros de primaria: Crítica y propuestas. *Cadernos de Pequisa*, 51, Artículo e07313. <https://doi.org/10.1590/198053147313>
- Del Val, M. I. (2003). Bilbao en la Baja Edad Media (desde la perspectiva de «género»). *Bidebarrieta*, (12), 134-153.
- Del Val, M. I., eta Jiménez, J. F. (2013). *Las mujeres en la Edad Media*. EDITUM.
- Del Val, M. I., eta Segura, C. (2011). *La participación de las mujeres en lo político: Mediación, representación y toma de decisiones*. Almudayna.

- Díez, M. del C. (2018). Del concepto construido de familia a la construcción colaborativa: análisis y recursos desde una educación emocional, feminista y sociocrítica. In S. Medina Quintana (Ed.), *Familias, educación y género. Tradiciones y rupturas en las sociedades moderna y contemporánea* (pp. 151-172). Trea.
- Díez, M. del C. (2019). Educación histórica con perspectiva de género: Resultados de aprendizaje y competencia docente. *El Futuro Del Pasado*, 10, 81-122. <https://doi.org/10.14516/fdp.2019.010.001.003>
- Díez, M.C., eta Fernández, A. (2019). Enseñanza de las Ciencias Sociales con perspectiva de género. *CLIO. History and History teaching*, 45, 1-10.
- Díez, R., eta Moreno, J.R. (2018). Enseñar igualdad de género desde la Didáctica de las Ciencias Sociales. In R. Roig (Ed.), *El compromiso académico y social a través de la investigación e innovación educativas en la Enseñanza Superior*. (716-726 orr.). Octaedro.
- Fernández, A. (2004). Las mujeres como sujeto histórico: género y enseñanza de la historia. *Didáctica de las Ciencias Experimentales y Sociales*, (18), 5-24.
- Ferrer, S. (2019). *Mujeres silenciadas en la Edad Media*. Punto de vista.
- García-Luque, A. (2016a). La LOMCE bajo una mirada de género/s: ¿Avances o retrocesos en el siglo XXI? *Revista Educación, Política Y Sociedad*, 1(2), 100-124. <https://doi.org/10.15366/rep2016.1.2.004>
- García-Luque, A. (2016b). Incorporar la perspectiva de género en la enseñanza-aprendizaje de la historia: un desafío didáctico y formativo. *PH: Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 24(89), 147-149. <https://doi.org/10.33349/2016.0.3739>
- García-Luque, A., eta De-la-Cruz-Redondo, A. (2019). La didáctica de las Ciencias Sociales y la construcción de masculinidades alternativas: libros de texto a debate. *Clío: History and History Teaching*, (45), 99-115.
- García-Martínez, A., eta Escalera, I. (2020). Oficios femeninos durante la Edad Media: Mujeres en las ciudades. In *XII Congreso virtual sobre Historia de las Mujeres* (395-409.orr). Archivo Histórico Diocesano de Jaén.
- García-Villanueva, J., Díaz-García, D. I., eta Hernández Ramírez, C. I. (2020). La transversalización de la perspectiva de género como una herramienta de intervención en educación. *Revista Investigium IRE Ciencias Sociales Y Humanas*, 11(1), 69-82. <https://doi.org/10.15658/INVESTIGIUMIRE.201101.06>
- López-Zurita, M., eta Felices de la Fuente, M. M. (2023). Temas controvertidos para la enseñanza de las Ciencias Sociales. Análisis de concepciones y usos en docentes de Educación Primaria. *Educatio Siglo XXI*, 41(1), 9-30. <https://doi.org/10.6018/educatio.456711>
- Montaner-Bueno, A., eta Fernández-Corbalán, I. M. (2023). Una aplicación didáctica para fomentar la igualdad de género en educación primaria. *FEMERIS: Revista Multidisciplinar de Estudios de Género*, 8(3), 10-33.
- Ortega-Sánchez, D. (2017). *Las mujeres en la enseñanza de la historia y de las ciencias sociales* [Doktorego tesia]. Universitat Autònoma.
- Ortega-Sánchez, D. (2022). ¿Las Mujeres fueron Importantes en la Historia? Roles y Escenarios de Acción Social en las Narrativas del Alumnado de Educación Primaria. *Revista Internacional De Educación Para La Justicia Social*, 11(1). <https://doi.org/10.15366/riejs2022.11.1.016>
- Pagès, A. (2017). *La inclusión del discurso femenino en la enseñanza de la Historia. Una propuesta didáctica a través de la figura de la mujer medieval* [Master amaierako lana]. Universidad Autónoma de Madrid.

- Rausell, H., eta Valls, R. (2021). Género y formación del profesorado. Propuestas del profesorado en formación para introducir a las mujeres en el currículo de Ciencias Sociales. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 96(35.1), 109-126. <https://doi.org/10.47553/rifop.v96i35.1.82056>
- Riveiro, E. M. (2017). *Enseñanza-aprendizaje de la Historia en Primaria desde una perspectiva de género* [Gradu amaierako lana]. Universidad Autónoma de Madrid. <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/26928>
- Sáenz, A. (2015). ¡La enseñanza de la historia sin mujeres! Género, currículum escolar y libros de texto: Una relación problemática. *Didáctica de las Ciencias Experimentales y Sociales*, (29), 43-59.
- Sánchez, R., eta Miralles, P. (2014). Pensar a las mujeres en la historia y enseñar su historia en las aulas: estado de la cuestión y retos de futuro. *Revista Tempo e Argumento*, 6(11), 278-298.
- Segura, C. (2016). La construcción de la historia de las mujeres en la edad media en los reinos hispanos. *Índice Histórico Español*, (129), 77-93.
- Simons, H. (2011). *El estudio de caso: Teoría y práctica*. Ediciones Morata.
- Suberviola, I. (2012). Coeducación: un derecho y un deber del profesorado. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación Del Profesorado*, 15(3), 59-67. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4615257>
- Vaíllo, M. (2016). La investigación sobre libros de texto desde la perspectiva de género: ¿Hacia la renovación de los materiales didácticos? *Tendencias Pedagógicas*, (27), 97-124.

Eranskinak

1. eranskina. Ikasleen galdetegia

1. atala. Datu soziodemografikoak

1. Generoa:

- 1.1. Neska.
- 1.2. Mutila.
- 1.3. Beste bat.

2. Zein gelatakoa zara?:

- 2.1. 3A.
- 2.2. 3B.

3. Historia ikastea gustuko duzu?:

1	2	3	4
Ezer ez	Gutxi	Nahiko	Asko

4. Zenbat dakizu Erdi Aroari buruz?:

1	2	3	4
Ezer ez	Gutxi	Nahiko	Asko

2. *atala. Erdi Aroko rolen garrantziari buruz duten pertzepzioa*

5. Erdi Aroan garrantzitsua(k) zen (ziren)....:

	1 (ezer ez)	2 (gutxi)	3 (nahiko)	4 (guztiz garrantzitsua)
5.1. Erreinua lideratzea eta erabakiak hartzea?				
5.2. Erreinua defendatzea eta gerretan borrokatzea?				
5.3. Nekazaritzan lan egitea?				
5.4. Arropa sortzea?				
5.5. Etxeko lanak egitea (janaria prestatzea, garbitzea...)?				
5.6. Etxeak, gazteluak eta eraikinak eraikitzea?				
5.7. Merkatuan lan egitea (produktuak sortzea eta saltzea)?				
5.8. Gizonak?				
5.9. Emakumeak?				

3. *atala. Erdi Aroko gizartean genero-rolak esleitzeari buruz zuten pertzepzioa*

6. Nork hartzen zituen erabaki garrantzitsuak erresuman?:

- a) Erregeak.
- b) Erreginak.
- c) Biek.

7. Nortzuek parte hartzen zuten gerran?:

- a) Gizonek (zaldunek).
- b) Emakumeek (damek).
- c) Biek.

8. Nortzuek egiten zuten lan nekazaritzan?:

- a) Gizonek.
- b) Emakumeek.
- c) Biek.

9. Nortzuek egiten zuten lan arropa sortzen?:

- a) Gizonek.
- b) Emakumeek.
- c) Biek.

10. Nortzuk arduratzen ziren etxeko lanak egiteaz (kozinatu, garbitu...)?:

- a) Gizonak.
- b) Emakumeak.
- c) Biak.

11. Nortzuek lan egiten zuten etxeak eta eraikinak eraikitzen?:
 - a) Gizonek.
 - b) Emakumeek.
 - c) Biek.
12. Nortzuk aritzen ziren merkatuan (produktuak sortzen eta saltzen)?:
 - a) Gizonak.
 - b) Emakumeak.
 - c) Biak.
13. Nortzuk ziren garrantzitsuak Erdi Aroko gizartean?:
 - a) Gizonak.
 - b) Emakumeak.
 - c) Biak.

Aipamen biografikoa

Nekane Aristondo. Lehen Hezkuntzako Graduan (2023) eta Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak Masterra-n (2024) graduatua da. 2024ean, ikerketa-praktikak egin zituen GIPyPAC taldearekin. Gaur egun, lan-legepeko ikertzaile da UPV/EHU, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (Donostia), *Hezkuntza eta memoria indarkeriaren osteko gizarteetan* izeneko proiektuan. Bere ikerketa-ildoak emakumeen historiaren irakaskuntza eta memoria historikoan oinarritzen dira.

Iratxe Gillate. Gizarte Zientzien Didaktika arloko irakasle agregatua da. Geografía eta Historian Lizentziatua eta Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta berariazko Didaktikan Dokotorea da. GIPyPAC Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldeko kidea (IT1442-22) da, baita Red14 Gizarte Zientzien Irakaskuntzako Ikerketa Sareko (RED2018-102336-T) kidea ere. Haren ikerketa-ildoak Ondare Hezkuntza eta Historiaren irakaskuntza-ikaskuntza dira, genero-ikuspegiaren barruan.

Alex Ibáñez-Etxeberria. Gizarte Zientzien Didaktikako Unibertsitateko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). GIPyPAC Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldeko (IT1442-22) kidea da, baita Red14 Gizarte Zientzien Irakaskuntzako Ikerketa Sareko (RED2018-102336-T) IPa ere. Matematika, Zientzia Esperimental eta Gizarte Zientzien Didaktika Saileko Zuzendaria da. Hamar doktore-tesi zuzendu ditu eta ikerkuntzako 3 seiurteko ditu.

Janire Castrillo. Gizarte Zientzien Didaktika arloko irakasle agregatua da. Historian lizentziatua (2008) eta doktorea (2016) da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gizarteak, Prozesuak, Kulturak eta Red14 Gizarte Zientzien Irakaskuntzako Ikerketa Sareko kidea da. Bere ikerketa-ildoen artean, emakumeen historiaren irakaskuntza, hezkidetzak eta sozialki eztabaidagarriak diren gaiak daude, hala nola memoria historikoa.

ENREDAR(NOS): GENERAR ESPACIOS DE MEDIACIÓN ENTRE CULTURA VISUAL, EDUCACIÓN ARTÍSTICA Y ARTE CONTEMPORÁNEO

ENTANGLE(US): GENERATE MEDIATION SPACES BETWEEN VISUAL CULTURE,
ARTISTIC EDUCATION AND CONTEMPORARY ART

Uxue Azkarate Gamba¹, Idoia Marcellán Baraze

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Resumen

A partir de una investigación doctoral situada en el ámbito de la educación artística, se ha detectado la ausencia de una red colectiva que conecte cultura visual, arte contemporáneo y docencia artística para propiciar la alfabetización visual del estudiantado de educación primaria y secundaria de la Comunidad Autónoma Vasca. Conscientes de esta necesidad, se propone un proyecto que tiene como objetivo principal tejer redes y generar espacios relacionales entre docentes de educación artística, artistas contemporáneos locales y diferentes espacios culturales del territorio. En este trabajo se presenta una prueba piloto, titulada «Enredar(nos)», desarrollada en el Espacio de Arte Contemporáneo de Montevideo (Uruguay). Para ello se han empleado metodologías cualitativas y herramientas de recogida de datos apoyadas en la observación participante y diarios de campo. La experiencia realizada sugiere la idoneidad de la mediación cultural, basada en la escucha y conversación colectiva, para alcanzar los objetivos del proyecto propuesto.

Palabras clave: educación artística, alfabetización visual, mediación cultural, arte contemporáneo.

Abstract

Azken urteetan egindako ikerketek erakutsi dute emakumeen ekarpen histori-koak ikusgarri egiteak ikasleen historiaren ulermena hobetzen duela (Díez-Bedmar eta Fernández, 2019). Hala ere, eskoletako praktika pedagogikoek oraindik ere ema-kumeen bazterketa islatzen dute; testuliburuetan eta ikasketa-materialetan, adibidez, emakumeen historia ez da behar bezala txertatu (Bel, 2016).

Testuinguru honetan kokatzen da ikerketa hau, DBHko 2. mailako ikasgeletan ge-nero-ikuspegia barne hartzen duen interbentzio pedagogiko baten eraginkortasuna aztertzeko helburuarekin. Ikerketa kuasi-esperimental honen bidez ikusi nahi da ikas-egoera aurrera eramateak eraginik ote duen emakumeen historiari buruzko ezagutze-tan, hura ulertzeko eretan eta harekiko agertutako interes eta motibazioan.

Esku-hartze honetan, emakumeen historiari buruzko ezagutza, historia ulertzeko era eta interes eta motibazioak aztertuko dira, pre- eta post-testak erabiliz. Emaitzek erakusten dute genero ikuspegia integratzen duten irakaskuntza-metodoek historian emakumeek izan duten ekarpena ikusgarri egiten dutela eta ikasleen motibazioa hobe-tzen dutela, hezkuntza justuago eta inklusiboago baterako bidea irekiz (López-Navajas, 2022; Tassile, 2020).

Oinarri teorikoa

Historiaren irakaskuntzaren garrantzia eta ikuspegi kritikoen azterketa

Gizartean askotariko ikuspegiak daude Historia irakasteko behar edo arrazoiak de-finitzerakoan. Hala ere, politikari, filosofo, soziologo, psikologo eta pedagogoak, ikus-puntu desberdinak izan arren, honen balioa eskolako curriculumean aitortzerakoan bat egiten dute (Calvas-Ojeda *et al.*, 2019). Azken batean, kontzientzia historikoa garatzea beharrezkoa da gizartea ulertu eta honen kritika autorreflexiboa egiteko, honek, sub-jektuei identitate-zentzua eraiki eta ekintzak gizartean bideratzeko tresnak emango dizkielako (Bernal eta Pérez, 2019). Horrela, historiaren irakaskuntzaren helburuetako bat, inguratzen duen munduarekiko hiritar kritiko, parte-hartzaile eta interesdunak

garatzea izan behar da (Gómez-Carrasco *et al.*, 2014). EAEko oinarritzko hezkuntzaren curriculumak ere, Geografia eta Historiaren arloaren garrantzia aipatzen du, azalduz egungo munduan kokatzeko eta ulertu, zaindu eta honetaz gozatzen ikasteko beharrezkoa dela (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa).

Hala ere, tradizionalki, nazioek, Historiaren irakaskuntza nortasun nazionala indartu eta zabaltzeko tresna bezala erabili dute. Horrela, nazioaren, gizartearen eta nazio-arteko harremanen inguruan kontatutako narratibak, nazioek aukeratu dituzte (Foster, 2011). Argüelles-ek (2014) DBHko 2. mailako Historiako testuliburuak aztertu ditu, zein ikuspuntutatik lantzen den aztertze. Ondorioztatu duenez, doktrinamendu patriotikoa transmititzen da, «gu» eta «besteak» ikuspegitik eraikiz. Horrela, unibertsalak diren gertaera historikoak, ikuspuntu eurozentrikotik azaltzen dira, funtsezko protagonistak, garatutako gizartearen talde politiko eta ekonomiko nagusiak izanik. Beraz, botere eta publikotasunik at zeuden mendeko taldeak ez dira aipatzen (Fontana, 2001).

Mendeko taldeak identifikatzerakoan, ikusi da, ez curriculumean, ez didaktika eskuliburuetan, ezta testuliburuetan ere, ez zaiela garrantzirik ematen emakumeei, haurrei, txiroei, homosexuali eta elitekoak ez diren pertsona eta taldeei (Villalón eta Pagès, 2013). Generoaren ikuspegitik, historian ez da ia emakumerik aipatzen, gertaera politiko eta militarrik ikasten direlako batez ere (Gonzalez eta Lomas, 2002).

Beraz, emakumeen historia ikusarazteko, irakasteko era aldatu behar da. Gertaera, data eta tokiak ikasteaz gain, gertaerak zergatik eta nola gertatu ziren ere irakatsi behar da (Carretero, 2019). Orain arte, Historiaren irakaskuntza deskribatzaile eta entziklopedikoa izan da, pentsamendu kritikoa sustatu gabe, eta gizartearen eredu hegemonikoak indartuz (Gómez-Carrasco eta Chapman, 2017). Baina hau esanguratsua izateko, edukien memorizaziotik haratago joan behar da, eta ikasleei historikoki pentsatzen irakatsi behar zaie, iragana hobeto ulertu eta interpretatzeko (Bertram *et al.*, 2017). Honetarako, garrantzitsua da, historiari kanpo utzi diren baztertutako taldeen historia ere kontatzea, hauen artean emakumeak subjektu historiko bihurtuz (López-Navajas, 2017).

Genero ikuspuntua gizartean eta Gizarte Zientzietan

Gizartea antolatzerakoan generoak funtsezko garrantzia dauka (Imaz, 2019). Historikoki, filosofiak, erlijioak eta politikak androzentrismoa gizartean ezarri, transmititu eta normalizatu dute (Álvarez, 2022). Androzentrismoa sexismoaren adierazpenetako bat da, non gizonaren ikuspuntua gizarteria osoaren ikuspuntu eta zentro gisa hartzen den, emakumea «besteak» bihurtuz (JASS, d.g.). Horrela, sistemak gizonen nagusitasuna eta emakumeen menpekotasuna naturalizatzen du (Tassile, 2020).

Gizartean errotuta dagoen ikuspegi androzentrikoak hezkuntzan eragina dauka, hezkuntzaren bidez gizarteak nola funtzionatzen duen ikasi eta barneratzen delako. Horrela, adibidez, Historiako arloan, emakumeak ikusezin bihurtzen dira (Imaz, 2019; Inostroza *et al.*, 2022). Sánchez-Romero-k (2017) Celia Amorós espainiar filosofoaren hitzak erabiltzen ditu, hurrengo adieraziz: «maskulinitasunean finkatzen da begirada, errealitatea behatzeko. Hau da, ikerlariak edo pentsalariak gizonak eta emakumeak diren arren, eredu maskulinoak erabiltzen dituzte errealitatea azaltzeko, emakumeak

askotan bigarren mailan utziz». Honen ondorioz, eraikitako historiaren diskurtsoak «guztion historia» direla aldarrikatu arren, emakumeen esperientziak maiz baztertuta geratu dira.

Ikerketa postkolonialek eta feministek nabarmentzen dute, ezagutza ez dela inoiz objektiboa edo neutrala, baizik eta sortzen duen subjektuaren, lekuaren eta egoeraren menpekoa dela. Honen arabera, zientzia-ezagutza objektibo eta unibertsaltzat jotzen dugun arren, atzean, mendebaldeko gizon zuri kolonizatzailearen begirada ezkutatzen da (Pimmer, 2017); eta are gehiago, ikuspuntu feministaren teoriak adierazten du, ezagutza guztia kultura eta historiaren eraginpean eraikitzen dela (Maffia eta Suarez-Tomé, 2021).

Hau kontuan hartuta, emakumeen irudi historikoari buruzko ikuspegi integrala ezartzea beharrezkoa da (Álvarez, 2022). Emakumeak subjektu historiko gisa ikusteak eta historian zehar aurre egin behar izan dieten oztopoak esplizituki adierazteak, gizarte demokratikoago eta ekitatiboago bat eraikitzen lagun dezake (Díez-Bedmar eta Fernandez, 2019). Narrazio historiko global bat garatzeko, orain arteko egitura sozial, ekonomiko eta politiko tradizionalak azaltzea ez da nahikoa. Esparru pribatuaren, sexualitatearen, ugalketaren, emakumeen kulturaren, osasunaren, etxeko lanaren eta seme-alaben gizarteratzearen dimentsioak ere kontuan hartzen dituen testuinguru historiko bat bultzatu behar da (Guardia, 2015 eta Nash, 2020, Álvarez-ek aipatua, 2022).

Ildo honetan, feministek lan garrantzitsua egin dute, historiografia ofizialean ikusezinak diren historia pertsonalak eta kolektiboak berreraikiz. Honek, emakumeen ibilbide historikoan, ezinbesteko ekarpena egin du (Inostroza *et al.*, 2022).

Genero ikuspegia hezkuntzan eta Curriculumean

Eskolak, erakunde sozializatzaile gisa, kasu askotan ikuspegi androzentrikoa transmititzen du, horrek ondorio nabarmenak izanik ikasleen garapenean eta identitatean (Lomas 2002, Bel-ek aipatua, 2016). Espainian hainbat lege eta erreforma egon dira hezkuntza arloan LGE-tik (1970) LOMLOE-ra (2020). Baina, Curriculumean genero-ikuspegia lantzeari dagokionez, Díez-Bedmar-ek (2015) egindako ikerketak dio LOGSE (1990) izan zela berdintasuna eta hezkidetzari buruzko gaiak zeharka sartu zituen legea, eta LOE (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa) izan zela gaia finkatu zuena. LOEk, hitzaurrean zein artikuluetan berdintasunari buruzko aipamen zuzenak ditu, hezkuntza helburuen artean gizonen eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna ezartzen du, edukietan sartuz. Hori, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa (LOMCE) aitortzen du. Lege horren 1. artikuluan datorrenez, eskolan, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzeko balioak garatu behar dira. Egungo Hezkuntza Legea, LOMLOE da, hau, genero berdintasunerako hezkuntza praktikan jartzearen alde benetan egiten duen lehen legea izanik (Moreno-Llaneza, 2023). Aurretiko hezkuntza-legeetan, hezkidetzarako kontzeptuak sartu arren, edukirik gabeko helburuak ziren eta hezkuntza-komunitate osoaren esku uzten zen honen lanketa.

Beraz, hezkidetzatza, ikasgeletara eramateko eguneroko oztopoak gainditzeko ahalgina egiten zuten irakasleek bakarrik lantzen zuten. Lege honetan, hezkidetzatza gai garrantzitsua da, legea hasieratik bukaeraraino zeharkatzen duelako. Honek positiboa badirudi ere, irakasle batzuk mesfidati agertzen dira. Izan ere, aurretik, hezkidetzatza hainbat

legetan bete beharreko zerbait bezala agertu den arren, behin eta berriz urratu da hezkuntza-eremu guztietan (Moreno-Llaneza, 2023).

Espanian, hezkuntza-sistemak curriculum irekiarekin funtzionatzen du, eremu geografiko bakoitzaren errealitate eta aniztasunera egokituz eta ikastetxeen errealitatera egokitzeko aukera emanez. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan, maiatzaren 30eko 77/2023ko Dekretua daukagu. Bertan, generoaren kontzeptua hainbat alditan azaltzen da. Adibidez, ildo estrategikoak, printzipio pedagogikoak eta oinarritzko hezkuntzako helburuak definitzean, hezkidetzatza, genero-ikuspegia eta berdintasuna sustatzearen garrantzia azaltzen dira.

Testuliburuak eta irakasleen ikuspuntua

Eskolak, gizarteratzeko erakunde nagusi den aldetik, bidezko gizarte baten alde egiteko ardura du. Gizarteratze-prozesu honetan, material didaktikoek eta bereziki testuliburuak, eragin handia dute, ikasgeletan gehien erabiltzen diren baliabideak direlako eta arau moralak transmititzeko ahalmena dutelako (Álvarez, 2022). Hauek aztertu beharreko edukia zehazten dituztenez, diskurtsoak balio patriarkal hegemonikoetatik eraikiak badira, ikasleen ikuspegiaren eta identitatearen eragina izango dute (Fernández-Valencia, 2015).

Azken hamarkadan testuliburuak buruz egindako ikerketek egiaztatzen dute oso gutxitan aipatzen direla emakumeak (Castrillo *et al.*, 2021). Hauetan, emakumeen bazterketa bultzatzen duten mekanismoak ikusten dira, hala nola ikuspegi androzentrikoa, non emakumeen protagonismoa gutxietsia den, edo salbuespen ikuspegia, non emakumeak testuingurutik kanpo agertzen diren (López Navajas, 2022). Horrela, emakumeak bazterretan mantendu eta ezkutatzea sustatzen dute (Álvarez, 2022).

Emakumeei ikusgarritasuna emateko, politikan, literaturan edo artean emakumeen izenak sartzeari izan da testuliburuak joera. Honek, bi arrisku nagusi ditu: rol maskulinoak izateagatik aitortutako emakume handien «goitik beherako historia» errepikatzea, hauek indibidualtasunean irudikatuz, eta historia tradizionalaren osagarri bihurtzea, ikuspegi androzentriko eta mugatzaile batetik (Peinado, 2024).

Espanian, testuliburuaren azterketa duela lau hamarkadatik gorakoa den arren, oraindik protagonismo historikoa gizonen esku dago. Nahiz eta azken urteetan aldaketak egon diren emakumeen parte-hartzea ikusarazteko, testuliburuaren emakumeen historia gutxietsi edo bigarren mailan jartzen da (Álvarez, 2022). Horrek hainbat ondorio dakartzkie ikasleei: batetik, mutilek ikusten dute, garrantzitsua den guztia gizonek egin dutela, beraz, haiek egindako guztiak garrantzi handiagoa duela emakumeek egindakoak baino; bestetik, neskei erreferente garrantzitsuak ezkutatzen zaizkie (Moreno-Llaneza, 2023).

Beraz, narrazio historikoetan emakumeak daukaten papera kritikagarria da, bere ekintza arloak gutxiesten direlako eta genero estereotipo tradizionalak betikotzen direlako. Biek ala biek, iraganaren interpretazio okerra izateaz gain, ikasleei eredu diskriminatzaileak transmititzea dakarte (López-Navajas, 2014; Ortega, 2017). Ondorioz, testuliburuaren emakumeen historia segmentatzeaz utzi eta ikuspegi integrala hartzea beharrezkoa da, emakumeak subjektu historiko garrantzitsu gisa ikusarazi eta narrazioa tradizionalak gainditzeko (Peinado, 2024).

Ikuspegi hezkidetzailera praktikara eramateko, beharrezkoa da historiaren irakaskuntzan emakumeei lotutako eta orain arte ahaztutako gaiak landuz ekitea (Castrillo *et al.*, 2021), testuliburuak garai historikoak jorratzean dituzten gabeziak ikusarazi eta ordezkatzuz (Saiz, 2010). Horrela, historia ikastearekin, pentsamendu historikoa garatzearekin eta herritarren gaitasuna eskuratzearekin zerikusia duten gaien artean, genero-desberdintasunei buruzkoa kokatu beharko litzateke erdigunean (García-Luque y Peinado, 2015).

Irakasleen praktikak eta haien irudikapenak irakaskuntza-eredu jakin batzuk bermatzea baldintzatzen dutenez, horiek aztertzea ezinbestekoa da genero-ikuspegi inklusiboago bat garatzeko (Colás, 2004). Azken batean, hauen prestakuntzak eta jarrerak eragina dute ikasgeletan sortzen diren ikaskuntza-prozesuetan; beraz, irakasleen prestakuntza egokia izatea eta genero-ikuspegiaren txertaketa bermatzea beharrezkoa da. Horrek aukera ematen du genero-eredu estereotipatuak ezabatzeko eta historiako narrazio tradizionalak zalantzan jartzeko (Fernández-Valencia, 2004).

Irakasleak dira ikaskuntza-prozesuak gidatzen dituztenak eta informazio-iturriak hautatzen dituztenak; horregatik, irakasleek beraien jarrerei buruzko hausnarketa kritikoa egitea eta hauek ikasgeletan nola islatzen diren aztertzea premiazkoa da (Díez-Bedmar, 2019). Horrela, irakasleek historia generoaren ikuspegitik aztertzeke eta sustatzeko gaitasuna garatu dezakete, ikasgelan genero-berdintasunerako espazioak sortuz.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, Ortega-k (2018) Pagès (1996) eta Adler-i (2008) erreferentzia egiten die, azaltzeko komenigarria dela irakasleen sinesmenak, pentsamendua eta jarrerak kontuan hartzea. Irakasleen sinesmen eta jarrerei buruzko informazio horren erabilera eta haien berregituraketa ahalbidetzeak, irakaskuntza-praktikak hobetzea ekarriko luke, bereziki genero-ikuspegi integratzailea aplikatuz. Ondorioz, irakasleek genero-ikuspegia duten historiako irakaskuntza-eremuak eraikitzea sustatu behar dute.

Emakumeak eta Aro Modernoa

Aro Modernoa xv. eta xviii. mendeen artean kokatzen da. Historialari batzuek 1453an ematen diote hasiera, Otomandar Inperioak Konstantinopla hartu eta Ekialdeko Erromatar Inperioa amaitu zenean. Beste batzuek, 1492. urtean kokatzen dute, Kolonen ontziak Amerikara lehenengoz heldu zirenean. Amaiera ezartzeko, gehienek 1789. urtea erabiltzen dute, Frantziako Iraultza hastearekin batera. Kontuan hartu behar da historiaren banaketa hau mendebaldean egin diren historiari buruzko azterketetatik aterata dela, beraz, Europako mendebaldeko kulturaren garapenean oinarrituta dago (Kiss, 2023).

Aro honetan, emakumeek izan zuten egoera erdigunean jarriz, nabarmena da gizarte patriarkal baten mende zeuden arren, Aro Modernoan zehar, emakumeek rol aktiboagoa eta nabarmenagoa hartu zutela gizartean eta politikan, nahiz eta hori pixkanakako prozesua izan zen. Aldaketa hori ulertzeko, testuinguru desberdinetan gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta eraginak eta haien artean gertatzen ziren transakzioak aztertu behar dira. Alegia, nola eragiten zioten elkarri, eta horrek nola eragiten zion gizarte osoari (López-Cordón, 2015).

Hala ere, aurretik aipatu bezala, emakumeek ez daukate ikusgarritasunik Aro Modernoko narrazioetan. Espainiako eskuliburuetan narratiba lineala azaltzen da, non historia politikoa eta instituzionala nagusi den, erregealdi eta egoera politiko eta kul-

turaletan oinarrituz (Gómez-Carrasco eta Chapman, 2017). Hau Aro Modernoaren kontaketan islatzen da, aldaketa politiko, ekonomiko eta kulturalak bakarrik azaltzen direlako (Kiss, 2023). Egunerokotasuna ez da ia lantzen, eta gizarteri bigarren mailako garrantzia ematen zaio (Gómez-Carrasco eta Chapman, 2017).

Baina honek ez du esan nahi Aro Modernoan emakumeek ezer egin ez zutenik edo ez duenik merezi eurei toki bat ematea. Aro Modernoak aldaketa teknologiko esanguratsuak izan zituen, eta emakumeen lana erabakigarria izan zen, nahiz eta ez zen horrela ikusten (Ortega eta Ruiz, 2024). Lan-kulturan eta lan-nortasunetan eragin handia izan zuten generoak eta gizarte-klaseak. Autore hauek zazpi emakume langile talde identifikatu dituzte —besteak beste, iruleak, umatze-emakumeak, espartzuak, kudeatzaileak, labanderak, artisauak eta inprentan lan egiten zutenak—, eta hauetako bakoitzak berezitasun teknologiko eta sozialak ulertzeko informazioa ematen dute.

Azaldutako guztiak eragina du egungo emakumeengan; izan ere, emakumeak ez dira kultura-ekarpenetan aintzat hartzen, ez zaie gizarte-baliorik ematen, eta, beraz, ukatu egiten zaie kultura eta historiaren protagonista izatea. Hezkuntza-sistematik transmititzen den androzentrismo hori genero-desberdintasun sozialen egituraren oinarrietako bat da, eta kontakizun historikoaren distortsio-elementu nabarmenetako bat (López-Navajas, 2022).

Álvarez-ek (2022) aipatzen du, emakumeak beste gizarte-eragile batzuen erlazioaren arabera kokatzen direla, horrela, hauen zeregina gutxietsiz eta bigarren mailako elementu sozial bihurtuz. Hau naturalizatzek, genero-indarkeriatik kristalezko sabaira edo genero-arrakala digitalera doazen diskriminazioak sustatzen eta elikatzen ditu. Gainera, emakumeen garapen pertsonala eta profesionala oztopatzen du (López-Navajas, 2022). Beraz, genero-ikuspegia funtsezko tresna da, ikuspuntu teorikotik eta esku-hartze soziokulturaletatik generoen arteko harremanari dagokion izaera hierarkikoa desnaturalizatzeko (Tassile, 2020).

Emakumeek Historiako kontaketa izan duten egoera aintzat hartuta eta honek dakartzan eraginak eta bistan geratu diren gabeziak ikusmiran kokatuz, ikerketa honen helburu orokorra, ikasleek emakumeen historiari buruz daukaten ezagutzan, historia ulertzeko moduan eta motibazio eta interesean, diseinatu den ikas-egoerak eraginkortasunik izan duen aztertzea da, bai orokorrean eta baita generoen banaketa eginda ere, hauetan desberdintasunik dagoen ikusteko. Era zehatzago batean honako hiru helburu espezifiko izango ditugu aztergai:

1. Helburua: DBHko ikasle talde batek ikas-egoera eta gero emakumeen historiaren ezagutzan aldaketak izan dituzten aztertzea, bai talde guztiek batera izan duen aldaketa eta baita generoa kontuan hartuta ere.
2. Helburua: Ikas-egoera aurrera eramane den DBHko geletako ikasleengan esku-hartzeak Historia ulertzeko daukaten moduan eraginik izan duen aztertzea, bai parte-hartzaile guztiak batera izan duten eboluzioa aztertuz eta baita generoaren arabera banatuta aztertuz ere.
3. Helburua: DBHn ikasle talde batek historia arloarekiko daukaten motibazioan eta interesean esku-hartzeak eraginik izan duen aztertzea talde osoa kontuan harturik batetik; eta generoaren arabera desberdintasunak dauden identifikatzea bestetik.

Metodoa

Ikerketa kuantitatiboa erabili da eta diseinu kuasi-esperimental da. Honekin batera, kontrol talderik gabeko esku-hartzea aurrera eraman da, pre- eta post-testaren bidez datuak bilduz.

Parte-hartzaileak

Aurrera eraman den ikerketa, Uribe Butroiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentro batean burutu da, 2. mailan. 6 klaseetako 91 ikaslek hartu dute parte, 13-15 urte bitartekoak (% 54,95; $n = 50$ emakumeak eta % 45,05; $n = 41$ gizonak). Institutu hau ko-menientziagatik hautatu da, laguntzeko prestutasuna eta izaera publikoa bezalako faktoreak kontuan hartuta. Esku-hartzea 2024ko apirilean eraman da aurrera, Geografia eta Historiako arloaren barruan.

Tresnak

Eraitzen neurri nagusia ikertutako hiru aldagaien aldaketa izan da: emakumeen historiaren ezagutza; historia ulertzeko modua; eta motibazioa eta interesa (1. taula). Horretarako Likert motako (1 = oso gutxi, 4 = asko) 17 item-ek osatutako galdetegia erabili da. Hau sortzeko, eredu bezala Castrillo *et al.*-ek (prentsan) egindako galdetegia erabili da. Galdetegi osoaren ezaugarri psikometrikoek adierazten dute, fidagarritasun egokia duela ($\alpha = .888$), eta faktORIZAZIOA egiteko egokitasuna ($KMO = .828$; $\chi^2(136) = 742.294$; $p < .001$).

1. taula

Aldagaiak eta itemak

Aldagaiak	Itemak
1. Emakumeen historiaren ezagutza	1, 2, 3, 4, 5
2. Historia ulertzeko modua	6, 7, 8, 9
3. Motibazioa eta interesa	10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17

Lehenengoak, Emakumeen ezagutzaren historia deritzonak, parte-hartzaileek genero-ikuspegitik historiako kontzeptu garrantzitsuei buruz duten ezagutza aztertzen du. Aldagai hau 5 itemek osatzen dute, faktORIZAZIO egokia dutenak ($KMO = .781$; $\chi^2(10) = 100.457$; $p < .001$) eta fidagarritasun altua ere azaltzen du ($\alpha = .765$).

Bigarren aldagaiak, Historia ulertzeko modua denak ($KMO = .685$; $\chi^2(6) = 55155$; $p < .001$), parte-hartzaileek, bai genero aldetik eta baita beste dimentsio batzuen aldetik, historia nola ulertzen duten aztertzea du helburu. 4 itemek osatzen dute, honen fidagarritasuna muga egonik ($\alpha = .669$).

Hirugarren eta azken aldagaia, Motibazioa eta interesa ($KMO = .810$; $\chi^2(28) = 438.018$; $p < .001$), parte hartzaileek Historiarekiko duten motibazioan eta interesean esku-hartzea egin eta gero eboluziorik egon den ikustera bideratuta dago. 8 itemek osatzen dute. Honen fidagarritasuna altua da ($\alpha = .910$).

Prozedura

Zentroaren baimena eta irakasleen oniritzia jasota, ikasleei egingo dena azaldu zaie, aukera emanez pre- eta post-testak betetzeko edo ez.

Esku-hartzea egin aurretik, irakasleekin hitz egin da, hauek ezagutu, egin nahi dena azaldu eta euren iritzia, ikuspuntua eta jarraitzen duten metodologia kontuan hartuz, esku-hartzea moldatzeko. Behin irakasleak eta testuingurua ezagututa, interbentzio bat sortu eta aurrera eraman da, emakumeek Historian izandako garrantzia ikusarazteko asmoz.

Ikas-egoeraren helburua, ikasleek Historiaren narratiba androzentrismoa dela ikustea, eta Aro Modernoan emakume batzuk izan zuten papera eta lana ikusaraztea izan da. Proiektua 6 ikasgelatan eraman da aurrera, bakoitzean lau saio hartuz (saio bakoitzak ordubetekoak) (2. taula). 4 saio hauetan bi gai landu dira: Aro Modernoan egon ziren emakume ezagunak eta emakumeek Aro Modernoan egiten zituzten lanbideak.

2. taula

Saioak eta egindako jarduerak

Saioak	Jarduerak
1. Saioa	Ikasleek liburua zabaldu eta aurkitutako lehenengo 4 izenak post-it batean idatzi zituzten. Ondoren, arbelean taula bat egin genuen, zutabe batean emakumeak eta bestean gizonak jarri. Ikasleek, post-it-ak taulan kokatu zituzten eta gero horren hausnarketa bat egin genuen, ikusaraziz, emakumeak ez daudela presente narrazio historikoetan. Aro Modernoan «ezagunak» izan ziren emakumeen zerrenda bat pasatu zitzaion ikasleei, eta hiruak jarri, bat aukeratu zuten. Ondoren, honi buruzko informazioa bilatu zuten, galdera batzuk jarraituz.
2. Saioa	Informazioa bilatzen amaitu eta hirukote bakoitzak klasearen aurrean aurkeztu zuten bilatutakoa, denbora-lerro bat sortuz arbelean, aurkeztutako emakume guztien izenekin.
3. Saioa	Klasea 4 taldetan banatu eta bakoitzari emakumeek egiten zuten ofizio bati buruzko informazioa banatu zitzaion eta kartulina handi bat. Eurek informazioa irakurri, ulertu eta posterra egiten hasi ziren.
4. Saioa	Posterra amaitu eta klasearen aurrean aurkeztu zuten talde bakoitzak landu zuten ofizioa eta gero korridorean jarri ziren posterrak.

Erabilitako jarduerekin, ikasleen motibazioa eta inplikazioa bilatu da. Horrela indarguneen aldetik, ikasle bakoitza bere ikaskuntzaren arduradun eta protagonista sentitzea bultzatu nahi izan da, prozesuan gehiago inplikatzeko eta kontzeptuak hobeto barneratzeko. Interbentzioaren eraginkortasunari buruzko informazioa biltzeko, pre- eta post-test bat aplikatu zaie ikasleei, esku-hartzearen aurretik eta ondoren.

Analisi estatistikoak

Balio atipikorik eta balio galdu ez-aleatorioen patroirik ez zegoela egiaztatu ondoren, aldagai bakoitzerako eta itemetarako estatistiko deskribatzaileak kalkulatu ziren isolatuta. Batezbestekoen ezberdintasunak aurretik/ondoren aztertzeko, normaltasun-parametroak betetzen ez zirenez, Mann-Whitney eta Wilcoxonon U probak erabili ziren, efektuaren tamainari buruzko kalkuluekin batera. IBM SPSS Statistics 27 programa erabili da honetarako.


Emaitzak

Emaitzak azaltzeko, helburuetan azaldutako hiru aldagaiak hartuko dira kontuan.

Emakumeen historiaren ezagutza

Mann Whitneyren U-a erabiliz emaitzek adierazi dute, proiektuan parte hartu baino lehen ez dutela desberdintasun esanguratsurik adierazi emakume ($Mdn = 2.20$; Rango = 2) eta gizonen artean ($Mdn = 2$; Rango = 2) $U(90) = 781.500$; $p = .069$. Aldiz, proiektuan parte hartu ostean ezberdintasun esanguratsuak agertzen dira, non emakumeen puntuazioak ($Mdn = 3$; Rango = 2) gizonenak ($Mdn = 3$; Rango = 3) baino altuagoak diren $U(90) = 740.500$; $p = .031$, tamainaren efektua ertainera hurbilduz ($d = 0.463$).

Wilcoxon analisia eginez, emaitzek erakutsi dute ezberdintasun esanguratsuak daudela proiektuan parte hartu baino lehen ($Mdn = 2$; Rango = 2) eta gero ($Mdn = 3$; Rango = 3) $Z(89) = 7.201$; $p < .001$, tamainaren efektua handia izanik ($d = 1.262$). Emaitzak generoaren arabera sailkatzean ikusten da ezberdintasunak esanguratsuak direla, efektuaren tamaina handiarekin emakume ($Z(48) = 5.484$; $p < .001$; $d = 1.331$) eta gizonentzat ($Z(41) = 4.505$; $p < .001$; $d = 1.147$), baina Irudia 1en irudikatuta agertzen den grafikoan ikusi ahal den moduan, emakumeen mediana altuagoa da proiektua baino lehen eta gero.




Grafikoa 1

Aldaketak generoaren arabera 1. aldagaia kontuan hartuta pre- eta post-testean

Historia ulertzeko modua

Mann-Whitney U proba eginez ikusi da, ez dagoela desberdintasun esanguratsurik emakumeen pre-testeko emaitzetan ($Mdn = 2.75$; Rango = 3) eta gizonen artekoetan ($Mdn = 3$; Rango = 3), $U = 862.000$; $p = .190$. Post-testean ere ez dira desberdintasun esanguratsurik egon emakume ($Mdn = 3$, Rango = 2) eta gizonen ($Mdn = 3.25$; Rango = 3) artean, $U(90) = 863.000$; $p = .247$.

Wilcoxon probaren emaitzetan ikusi denez, hobekuntza egon da puntuazio orokorretan, eta mediana 2.75etik (Rango = 3) 3ra (Rango = 3) igo da, $Z(90) = 2.843$; $p = .004$; $d = .434$. generoaren arabera sailkatzean, ikusi da bai emakumeek eta bai gizonek hobekuntza esanguratsuak izan dituztela. Emakumeen kasuan, emaitzek aldaketa esanguratsua adierazi dute ($Z(49) = 1.958$; $p \leq .050$; $d = .404$) baita gizonen kasuan ere ($Z(41) = 2.143$; $p = .032$; $d = .487$). Irudia 2n irudikatuta agertzen den grafikoan ikusi ahal den moduan, gizonen mediana altuagoa da, proiektua baino lehen eta ondoren.




Grafikoa 2

Aldaketak generoaren arabera 2. aldagaia kontuan hartuta pre- eta post-testean

Motibazioa eta interesa

Mann Whitneyren U-a erabiliz, emaitzak hurrengoak dira: esku-hartzea egin aurretik, ez da alde nabarmenik egon emakumezkoen (Mdn = 2.38; Rango = 4) eta gizonezkoen (Mdn = 2.81; Rango = 4) puntuazioen artean, $U(89) = 826.000$; $p = .204$. Esku hartzean parte hartu ostean, puntuazioaren batez bestekoa handitu arren, bai emakumezkoena (Mdn = 2.56; Rango = 4), bai gizonezkoena (Mdn = 3.19; Rango = 4), emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek ez dute garrantzi estatistikorik izan $U(88) = 732.500$; $p = .056$.

Wilcoson analisia erabiliz emaitzek erakutsi dute, hobekuntza esanguratsuak daukela puntuaketa orokorrean, mediana 2.63tik (Rango = 4) 2.75ra (Rango = 4) pasatuz, $Z(87) = 2.580$; $p = .010$; $d = .399$. Emaitzak generoaren arabera sailkatuz, ikusten da, emakumeek ez dutela hobekuntza esanguratsurik adierazi ($Z(47) = 1.590$; $p = .112$). Gizonek aldiz, bai erakutsi dute hobekuntza esanguratsua ($Z(40) = 2.098$; $p = .036$; $d = .483$). Irudia 3n irudikatuta agertzen den grafikoan ikusi ahal den moduan, gizonen mediana altuagoa da proiektua baino lehen eta gero, batez ere, gorakada nabarmena izanez post-testean, emakumeena baino altuagoa izanik.



Grafikoa 3

Aldaketak generoaren arabera 3. aldagaia kontuan hartuta pre- eta post-testean

Eztabaida

Esparru-teorikoan azaleratutako hainbat ideietako bat Gizarte-Zientzien esparruak ikuspegi androzentrismo oinarri duela da, emakumeak ikusezin bihurtzen direlarik (Inostroza et al., 2022). Hau kontuan izanik, ikerketa honen helburu nagusia, DBHko bigarren mailan lantzen den Historiako arloan, emakumeen paperari garrantzia eta ikusgarritasuna emateko diseinatutako interbentzioaren eraginkortasuna aztertzea izan da.

Aztertutako aldagai desberdinetan jasotako emaitzek, proiektuak emakumeen historiaren ezagutzan, historiaren ulermenean eta parte-hartzaileen motibazioan eta interesean izan duen eraginaren ikuspegi argia eskaintzen dute; alde batetik, hasierako eta amaierako testak orokorrean aztertuz, eta beste aldetik, generoaren arabera bereiziz.

Emakumeen historiaren inguruan duten ezagutzari dagokionez, pre-test-eko emaitzetan ikusi daitekeenez, gaiaren inguruan ikasleek zeuzkaten ezagutzak ez dira altuak ($Mdn = 2$; Rango = 2) eta ez da alde nabarmenik ikusi emakumeen eta gizonen puntuazioen artean. Honen arrazoia izan daiteke, irakasleek baliabide eta material berdinak erabili dituztela guztiekin oinarritzko jakintzak lantzerako orduan, hau da, testuliburuak. Beraz, emaitza hauek esparru teorikoan aipatutakoarekin bat datoz, hau da, testuliburuetan emakumeen bazterketa bultzatzen duten mekanismoak ikusten direla, hala nola ikuspegi androzentrikoa edo salbuespen ikuspegia (López-Navajas, 2022).

Hala ere, proiektuan parte hartu ondoren, desberdintasunak esanguratsu bihurtu dira, eta emakumezkoek puntuazio altuagoak lortu dituzte. Efectuaren tamaina kon-

tuan hartuta ($d = .463$), esan dezakegu proiektua bereziki eraginkorra izan dela emakumeek beren historiari buruz zuten ezagutza areagotzeko. Ikas-egoera honetan erdigunean jarri direnez, baliteke, emakume bezala euren burua identifikatzen duten ikasleek, eurentzako erreferenteak izan daitezkeen emakumeak Historian ekarpenak egin zituztela ikustean jasotako informazioa hurbilago sentitzea eta horregatik puntuazio altuagoa ateratzea. Azken batean, emakumeak ez dira normalean kultura-ekarpenetan aintzat hartzen, ez zaie gizarte-baliorik ematen, eta, beraz, ukatu egiten zaie kultura eta historiaren protagonista izatea (López-Navajas, 2022). Ondorioz, emakumeei erreferente garrantzitsuak ezkutatzen zaizkie eta beste gizarte-eragile batzuen erlazioaren arabera kokatzen dira, horrela, hauen zeregina gutxietsiz eta bigarren mailako elementu sozial bihurtuz (Álvarez, 2022; Moreno-Llaneza, 2023). Baina, emaitza hau ikusita, esan daiteke, genero-ikuspegia funtsezko tresna dela, ikuspuntu teorikotik eta esku-hartze soziokulturaletatik generoen arteko harremanari dagokion izaera hierarkikoa desnaturalizatzeko (Tassile, 2020).

Historia ulertzeari dagokionez, talde osoaren aurreko eta ondorengo emaitzak konparatuta, ikusten da, ondorengo emaitzetan hobekuntza egon dela. Honek erakusten du, testuliburuak emandako ikuspegi androzentrikoa ikas egoerarekin zabaltzean, beste era batera ulertu dutela Historia. Azken batean, Historia ikasteko izan dituzten narrazio erreferenteak testuliburuetatik ateratakoan dira eta hauetan emakumeen presentzia pixkanaka handitu den arren, oraindik ere protagonismo historikoa gizonen esku dago nagusiki (Bel, 2016). Aurrera eramandako ikas-egoeran emakumeek historian egindako ekarpenak erdigunean jartzean, ikuspegi hori aldatu da eta baita ikasleek Historia ulertzeko daukaten modua ere. Beraz, ikusi da, irakasleek bertan esku-hartzeko aukera dutela, azkenean, hauek direlako ikaskuntza-prozesuak gidatzen dituztenak eta informazio-iturriak hautatzen dituztenak (Díez-Bedmar, 2019).

Aldagai honetan, emakume eta gizonen artean ez da ezberdintasun esanguratsurik aurkitu ez pre-testeak konparatzean eta ezta post-testak konparatzean ere. Generoen arteko erantzunak berdintsuak izatearen arrazoia izan daiteke, azalpenak, baliabideak eta materiala ematerako orduan, ez dela banaketarik egin, eta beraz, guztiek informazio eta euskarri berdinak izatean, Historia ulertzeko modua ere antzerakoa izan daiteke. Azken batean, Historia ulertzeko moduak, lotura estua dauka irakasleen praktika eta haien irudikapenarekin, honek irakaskuntza-eredu jakin batzuk bermatzea baldintzatzen dutelako (Colás, 2004).

Azkenik, motibazioari eta interesari lotuta, aurreko aldagaian ikusitako antzeko joera erakutsi dute emaitzek. Emakumeen eta gizonen artean ez da alde nabarmenik aurkitu esku-hartzea egin aurretik. Esku-hartzearekin ondoren, hobekuntza orokorra esanguratsua izan da, eta horrek iradokitzen du ikas-egoerak parte-hartzaileen motibazioa eta interesa handitzea lortu duela, nahiz eta efektu hori nabarmenagoa izan gizonengan. Honen arrazoia izan daiteke, aurretik, gizonek agian ez dutela gai honen inguruan hausnartu eta azken batean, testuliburuetan kontatutako narrazioetan, mutilek ikasten dute, garrantzitsua den guztia gizonek egin dutela, eta, beraz, haiek egindako guztiak garrantzi handiagoa duela emakumeek egindakoak baino (Moreno-Llaneza, 2023). Beraz, gai hau ikusaraztean, honetaz konturatu ahal izan dira. Bestalde, aipatzen da, emakumeen emaitzetan ere ikusten dela esku-hartzeak eragin positiboa izan zuela, nahiz eta hain nabarmena ez izan.

Laburbilduz, ikerketa honen helburua kontuan harturik, emaitzek adierazten dutenez, proiektuak eragin positiboa izan du emakumeen historiaren ezagutzan, historiaren ulermenean eta parte-hartzaileen motibazioan eta interesean, eta desberdintasunak izan ditu generoaren arabera. Bereziki, badirudi proiektua eraginkorragoa izan dela emakumeek beren historiari buruz duten ezagutza areagotzeko, eta horrek nabarmendu egiten du genero-ikuspegia barne hartzen duten hezkuntza-ikuspegi garrantzia.

Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko motibazioan eta interesean dagoen aldeak iradokitzen du kanpoko faktoreak egon litezkeela, eta horiek eragina izan lezaketela sexu ezberdinetako partaideek esku-hartzeari erantzuteko eran. Baliteke gizonak, hasierako gaiarekin lotura gutxiago sentitzen zutenez, motibazio handiagoa izatea proiektuaren ondoren. Bestalde, emakumeek dimentsio horretan hobekuntza estatistikoki esanguratsurik ez izatearen arrazoiak sakonago ikertu daitezke, ikerketa lerro berriei begira.

Proiektuak historiaren ezagutza eta ulermena hobetzeko izan duen emaitzak ikusita, gai horiek ikuspegi inklusibo eta parte-hartzailearekin integratzen dituzten hezkuntza-programak sustatzen jarraitzeak emaitza positiboak izan ditzakeela aurreikusi liteke, hezkuntza-arloan genero-berdintasuna indartzen jarraitzeko. Mugen aldetik, aipatu beharrekoa da, 4 orduko esku-hartzea izatean, erabilitako denbora ez dela nahikoa izan eta ikerketa lerro berriei begira ere, komenigarria izan daitekeela ikas egoera denboran luzatzea. Beste aldetik, kontrol talderik ez egotea beste muga bat izan da eta, horregatik, ikerketarekin jarraitzeko honen beharra aurreikusten da.

Finantzazioa

Lan hau hurrengo proiektuaren parte da: «Gatazkan eta gatazkarako gai polemiko bidez hezteak. Kasu azterketen bidezko ikerketa, irakasleen hasierako prestakuntza» (PID2023-150579NA-I00), Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak eta Ikerketako Estatu Agentziak finantzatua.

Erreferentziak

- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Eusko Jaurlaritzaren Aldizkari Ofiziala (BOPV)*, 109, 2023ko ekainaren 9koa. https://www.euskadi.eus/contenidos/decreto/bopv202302729/eu_def/
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa. *Boletín Oficial del Estado (BOE)*, 295, 2013ko abenduaren 10ekoa. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12886>
- Álvarez, H. A. (2022). Los libros de texto y sus discursos: Representaciones de las mujeres en la historia escolar chilena (13.000 a. C.-1810). *História da Historiografia: International Journal of Theory and History of Historiography*, 15(38), 97-136. <https://doi.org/10.15848/hh.v15i38.1817>
- Argüelles, A. (2014). *Nacionalismo español: genealogía, desarrollo y permanencia en los manuales de Historia de Secundaria* [Master Amaierako Lana, Universidad de Cantábria].
- Bel, J. C. (2016). El papel de las mujeres en la historia según las imágenes de los libros de texto. Comparación de manuales editados durante la LOE y la LOMCE. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 22, 219-233.

- Bernal, L., eta Pérez, F.A. (2023). Conciencia histórica y proceso de enseñanza aprendizaje de la historia. Una revisión necesaria. *Debates por la Historia*, 11(1), 85-113. <https://www.redalyc.org/journal/6557/655774260004/html/>
- Bertram, C., Wagner, W., eta Trautwein, U. (2017). Learning historical thinking with oral history interviews: A cluster randomized controlled intervention study of oral history interviews in history lessons. *American Educational Research Journal*, 54(3), 444-484.
- Calvas-Ojeda, M. G., Espinoza-Freire, E. E., eta Herrera-Martínez, L. (2019). Fundamentos del estudio de la Historia Local en las Ciencias Sociales y su importancia para la Educación Ciudadana. *Conrado*, 15(70), 193-202.
- Carretero, M. (2019). Pensamiento histórico e historia global como nuevos desafíos para la enseñanza. *Cuadernos de Pedagogía*, (495), 59-63.
- Castrillo, J., Gillate, I., Vicent, N. eta Luna, U. (2021). Las mujeres medievales en los libros de primaria: Crítica y propuestas. *Cadernos de Pesquisa*, 51. <https://doi.org/10.1590/198053147313>
- Castrillo, J., Gillatte, I., Apaolaza-Llorente, C., eta Campos-López, T. (prentsan). Formación del futuro profesorado para enseñar Historia con perspectiva de género. Efectos del proyecto Pre-historia y Género. *Revista de Investigación Educativa*.
- Colás, P. (2004). La construcción de una pedagogía de género para la igualdad. In A. Rebollo-Catalán, eta I. Mercado (coord.), *Mujer y desarrollo en el siglo XXI: voces para la igualdad* (275-292 orr.). McGraw-Hill.
- Díez-Bedmar, M. C. (2019). Educación histórica con perspectiva de género: resultados de aprendizaje y competencia docente. *El Futuro del Pasado*, 10, 81-122. <http://dx.doi.org/10.14516/fdp.2019.010.001.003>
- Díez-Bedmar, M. C., eta Fernandez, A. (2019). Enseñanza de las Ciencias Sociales con perspectiva de género. *CLIO. History and History teaching*, (45), 1-10.
- Fernández-Valencia, A. (2004). Las mujeres como sujeto histórico: género y enseñanza de la historia. *Didáctica de las Ciencias Experimentales y Sociales*, (18), 5-24.
- Fernández-Valencia, A. (2015). Género y enseñanza de la historia. In M. A. Domínguez eta R. M. Marina (eds.), *Género y enseñanza de la historia: silencios y ausencias en la construcción del pasado* (29-55 orr.). Sílex.
- Fontana, J. (2001). *La Historia de los Hombres*. Crítica.
- Foster, S. (2011). Dominant Tradition in International Textbooks Research and Revision. *Educational Inquiry*, 2(1), 5-20.
- García-Luque, A., eta Peinado, M. (2015). LOMCE: ¿es posible construir una ciudadanía sin la perspectiva de género? *Íber. Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (80), 65-72.
- Gómez-Carrasco, C. J., eta Chapman, A. (2017). Enfoques historiográficos y representaciones sociales en los libros de texto. Un estudio comparativo, España-Francia-Inglaterra. *Historia y Memoria de la Educación*, (6), 319-361.
- Gómez-Carrasco, C. J., Rodríguez-Pérez, R. A., eta Simón-García, M. M. (2014). Conocimientos y saberes escolares de ciencias sociales en tercer ciclo de de primaria. In J. Prats, I. Barca, eta R. López-Facal (ed.), *História e identidades culturais* (726-739.orr.). Centro de Investigação em Educação Universidade do Minho.
- González, A. eta Lomas, C. (2002). *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. Graó.
- Imaz, J. I. (2019). *Hezkuntzaren Soziologia*. UEU.

- Inostroza, G., Brito, A., Alfaro, K., Rebolledo, R. eta, Díaz, E. (2022). Historia de mujeres, Género y Feminismos: Mujeres haciendo historias desde el sur de Chile. *Revista de historia*, 2(29), 10-16. <https://doi.org/10.29393/RH29-17HMD50017>
- JASS (d.g.), *Diccionario de la transgresión feminista*. <https://justassociates.org/wp-content/uploads/2020/08/diccionario-de-la-transgresion-feminista.pdf>
- Kiss, T. (2023). Edad Moderna. *Enciclopedia Humanidades*. <https://humanidades.com/edad-moderna/>.
- López-Cordón, M. V. (2015). Los estudios históricos sobre las mujeres en la Edad Moderna: estado de la cuestión. *Revista de Historiografía*, 22, 147-181.
- López-Navajas, A. (2014). Análisis de la ausencia de las mujeres en los manuales de la ESO: una genealogía de conocimiento ocultada. *Revista de Educación*, (363), 282-308.
- López-Navajas, A. (2017). El papel del sistema educativo en la transmisión de las desigualdades: un fraude cultural encubierto. In A. Sevilla, eta J. Haba (ed.) *Educación multidisciplinar para la igualdad de género* (31-41 orr.). Universidad Politèctica de València.
- López-Navajas, A. (2022). Women's Legacy: un proyecto para la restitución del legado cultural de las mujeres desde las aulas. *Verbeia. Monográfico Journal of English and Spanish studies*, (6), 98-120.
- Maffia, D. eta Suárez-Tomé, D. (2021). Epistemología Feminista. In. S. Gamba, eta T. Diz (ed.) *Nuevo diccionario de estudios de género y feminismos* (330-334 orr.). EUDEBA.
- Moreno-Llaneza, M. (2023). Análisis de la LOMCE con perspectiva coeducadora: pros, contras y propuestas. *Revista Currículum*, (36), 139-153. <https://doi.org/10.25145/j.qurricul.2023.36.08>
- Ortega, D. (2017). *Las mujeres en la enseñanza de la Historia y de las Ciencias Sociales. Estudio de caso en formación inicial de maestros y maestras de Educación Primaria*. [Doktorego tesia, Universitat Autònoma de Barcelona]. <https://hdl.handle.net/10803/457981>
- Ortega, D. (2018). Las mujeres en la Historia enseñada: resultados de un programa docente en formación inicial de profesorado. *Enseñanza de las ciencias sociales*, (17), 13-21. <https://raco.cat/index.php/EnsenanzaCS/article/view/343291/434409>
- Ortega, M. J., eta Ruiz, R. (2024). *Los trabajos de las mujeres en la Edad Moderna. Centros de interés para el diseño de Situaciones de Aprendizaje*. Universidad de Granada.
- Peinado, M. (2024). La emergencia de las mujeres como sujetos históricos: deconstruyendo la historia contemporánea de España desde los libros de texto. *Historia de la Memoria y la Educación*, 20, 553-585. <https://doi.org/10.5944/hme.20.2024.37092>
- Pimmer, S. (2017). El pensamiento y su lugar: consideraciones epistemológicas en torno al punto de vista feminista y el pensamiento fronterizo. *Tabula Rasa*, (27), 275-299. <https://doi.org/10.25058/20112742.452>
- Saíz, J. (2010). What kind of Medieval History should be Taught and Learned in Secondary School? *Imago Temporis. Medium Aevum*, 4, 357-372.
- Sánchez-Romero, M. [Bidebarrieta kulturgunea] (2017ko azaroaren 3a). *Margarita Sánchez-Romero* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=-eISb8Vnxno>
- Tassile, C. (2020). *Ley Micaela: programa de capacitación provincial en el marco de la Ley n.º 10628*. Universidad Provincial de Córdoba Ediciones.
- Villalón, G., eta Pagès, J. (2013). ¿Quién protagoniza y cómo es la historia escolar? La enseñanza de la historia de los otros y las otras en los textos de estudio de Historia de Chile de educación primaria. *Clío & Asociados*, (17), 119-136. http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.6212/pr.6212.pdf

Aipamen biografikoak

Saioa Sagastizabal. Lehen Hezkuntza (2021) eta Pedagogian (2023) graduatua da UPV/EHU eta Psikodidaktikan masterduna. Ikasiker bekarekin aritu da lanean ikerketa arloan Historiaren irakaskuntza-ikaskuntza landuz genero-ikuspegiaren barruan.

Iratxe Gillate. Gizarte Zientzien Didaktika arloko irakasle agregatua da. Geografia eta Historian Lizenziatua eta Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta berariazko Didaktikan Dokotorea da. GIPyPAC Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldeko kidea (IT1442-22) da, baita Red14 Gizarte Zientzien Irakaskuntzako Ikerketa Sareko (RED2018-102336-T) kidea ere. Haren ikerketa-ildoak Ondare Hezkuntza eta Historiaren irakaskuntza-ikaskuntza dira, genero-ikuspegiaren barruan.

Alex Ibáñez-Etxeberria. Gizarte Zientzien Didaktikako Unibertsitateko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). GIPyPAC Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldeko (IT1442-22) kidea da, baita Red14 Gizarte Zientzien Irakaskuntzako Ikerketa Sareko (RED2018-102336-T) IPa ere. Matematika, Zientzia Esperimental eta Gizarte Zientzien Didaktika Saileko Zuzendaria da. Hamar doktore-tesi zuzendu ditu eta ikerkuntzako 3 seiurteko ditu.

ONLINE PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA
ARABAKO NERABEEN ARTEAN:
SEXTINGAREKI KO ETA GIZARTE-BABESAREKI KO LOTURA
CONSUMPTION OF PORNOGRAPHY ONLINE IN TEENAGERS FROM ALAVA:
RELATIONSHIP WITH SEXTING AND PERCEIVED SOCIAL SUPPORT

Uxue Llano Abasolo¹, Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Internetak online pornografia kontsumitzeko modua aldatu eta areagotu egin du, gizonen desira sexuala oinarri hartzen duen gero eta material gehiago sortuz. Gazteek ez dute behar beste baliabide pornografiak hedatzen dituen mezuak deskodetzeko, eta ondorioz, haren kontsumoak beren errealitatea desitxuratzea dakar, besteak beste. Ikerketaren helburua bikoitza da: alde batetik, Arabako nerabeen sareko pornografia nola kontsumitzen duten zeharka aztertzea eta, bestetik, kontsumo horrek sextingarekin eta gizarte-babesarekin izan dezakeen lotura aztertzea. Ikerketan Arabako Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzako zein Batxilergoko lehenengo mailako 454 ikaslek hartu dute parte galde-sorta bat betez. Aldagaiak neurtzeko era askotako tresnak medio, ondorioztatu da sareko pornografiaren prebalentzia altua dela, zehazki mutilen artean. Halaber, online pornografiaren kontsumoak sextingarekin bat egiteaz gainera, lagun, familia zein pertsona esanguratsuengandik jasotzen duten babesaren pertzepzioarekin bat egin du. Gazteek baliabide digitalek eskaintzen dituzten onurez gozatzeko aukera izan dezaten, premiazko neurriak hartu behar dira. Emozioak, plazera eta sexualitatea pertsona guztien bizitzaren parte diren heinean, naturaltasunez, tolerantziaz eta errespetuz landu behar dira.

Hitz-gakoak: pornografia, sexting-a, nerabezaroa, hezkuntza afektibo-sexuala.

Abstract

The Internet has changed and increased the consumption of online pornography, creating more materials based on men's sexual desire. Teenagers do not have the means to decide the messages that pornography exerts, so their consumption, among other things, distorts their reality. The aim of the study is therefore to carry out an analysis of the consumption of online pornography by adolescents in Álava, analyzing various variables that match consumption. In the research, 454 students from both the Álava Compulsory Secondary Education and the first baccalaureate have participated. Using different variable assessment tools, the results show that the prevalence of online pornography is high, especially for boys. Likewise, the consumption of online pornography is not only related to sexting, but also to the support perceived from friends, family and relevant people. It is essential to implement urgent measures to allow young people to take advantage of the benefits of digital resources.

Keywords: Pornography; Sexting; Adolescence; Sexual Emotional Education.

¹ Harremanetarako: Llano Abasolo, Uxue, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Sarriena auzoa, z/g (48940 Leioa-Bizkaia).
Helbide elektronikoa: uxue.llano@ehu.eus

Sarrera

Azken urteetan nerabeen online pornografiaren kontsumoak gora egin du. Hezkuntza-testuinguruan ezinbestekoa da jendartearen gertatzen ari diren aldaketei aurre egitea. Zehazki, beharrezkoa da genero estereotipoak sustatzea eta emakumeenganako indarkeriaren normalizazioa bultzatzen duten edukiei aurre egiteko jarraibideak martxan jartzea. Ikerlan honek Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiten du, baita EHUKo 2030 Agendan berariaz ezarritako honako bi helburu hauekin ere (Sáez de Cámara *et al.*, 2021): lanak pertsona ororen bizimodu osasungarria bermatzea du helburu, baita ongizatea sustatzea ere —hirugarren helburua—; halaber, kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzearen alde egiten du, etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatuz —laugarren helburua—.

Oinarri teorikoa

Ondorengo atalean online pornografiaren gaur egungo egoera aztertuko da, baita kontsumoaren ondorioak, prebalentzia eta azken honekin bat egiten duten hainbat aldagai ere.

Gaiaren aurrekariak eta gaur egungo egoera

Azken hamarkadan, teknologia digitalen ondorioz, internetaren erabilera nabarmen areagotu da, eta jendartearen esparru anitz eraldatu ditu: besteak beste, gizarte-esparrua, ekonomikoa, kultura- eta hezkuntza-esparruak. Espainian, hamar eta hamabost urte bitarteko gazteen % 94,9k internetara erabiltzen du (Instituto Nacional de Estadística, 2022). Ondorioz, iraultza digitalak erronka berriak ekarri ditu gaur egungo hezkuntza-sistemara, eta horrenbestez, ezinbestekoa da teknologietan trebeak eta haiekin kritikoak diren herritarrak hezteak (Area eta Adell, 2021).

Gaur egun, pantailan klik eginez gero, eduki birtual anitz ditugu eskura momentuan, eta horien artean, online pornografia dugu. Pornografia ez da Internetaren bilakaera eta erabilerarekin sortu, baina Internetak historian zehar garatu izan diren praktika pornografikoak kontsumitzeko modua aldatu eta areagotu egin du (Varnet eta Cartes-Velasquez, 2021). Pornografia sexua oinarri duen materialarekin erlazionatua dago (Merlyn *et al.*, 2020), eta halako edukietan maiz ageri dira gizonak emakumearekiko boterea erakusten edota gizonen desira oinarri hartu eta emakumea objektu bihurtzen duten jarrerak (Alario, 2018). Ballester *et al.*-ek (2023) eta Kor *et al.*-ek (2014) bi pornografia mota bereizi behar direla adierazten dute: alde batetik, pornografia konbentzionala eta beste alde batetik, pornografia berria edo online pornografia.

Ohiko pornografia edo pornografia konbentzionala filmetan edo aldizkarietan agertu ohi da eta legez kanpoko kanal zein establezimendu zehatz batzuetan saltzen da (Ballester *et al.*, 2019). XX. mendeko 70eko hamarkadan lehen aldizkari pornografikoak argitaratu ziren, eta gerora, DVDak bideoklubetan agertu ziren (Villena Moya, 2023).

Kasu horretan, produktuen kostuak zein hauek eskuratzeko zailtasunak pornografiaren hedapena eta kontsumoa zailtzen dute (Ballester *et al.*, 2019).

Aldiz, pornografia berria edo online pornografia sarean dago eta, ondorioz, Internetara konexioa duen edozein pertsonak kontsumi zein parteka dezake. Online pornografiaren kalitate altuko edukien eskaintza mugagabea izateaz gainera, sarbidea erraza, azkarra eta doakoa da (Iglesias-Osores *et al.*, 2022). Horiek horrela, pornografia berriak hurrengo hiru ezaugarriak barne hartzen ditu: anonimotasuna —ezaugarri honek mialaketa zaildu egiten du—, irisgarritasuna —Internetarako konexioa duen edozein gailutik konektatzeko aukera— eta eskuragarritasuna —pornografia konbentzionalean ez bezala, doakoa da— (Varnet eta Cartes-Velasquez, 2021).

Pornografiaren atzean industria eta merkatu zabala dago, izan ere, interes ekonomikoak bultzatuta, erakunde desberdinek sustatzen dute (Ballester *et al.*, 2019). Pornografiaren industriak, eraikuntza sozialean oinarrituta, kontsumitzaileen desira eta nahiak asetzen ditu, hau da, gizonen desira sexuala kontuan hartzen du eta emakumeen aurkako indarkeria sustatzen (Alario, 2020).

Pornografia kontsumoaren prebalentzia adina eta sexua kontuan hartuta

Teknologien erabilerarekin batera, azken urteetan nerabeen online pornografiaren kontsumoak gora egin du. Hainbat ikerketek agerian utzi dute mutilek neskek baino mendekotasun eta borondate gehiago dutela eduki pornografikoak kontsumitzeko (Andrie *et al.*, 2021, Gomes *et al.*, 2018, Merlyn *et al.*, 2021). Villena Moyaren (2023) aburuz, mutilek neskek baino pornografia gehiago kontsumitzearen arrazoia da pornografia bereziki mutilentzat diseinatuta dagoela. Save The Childrenek (2020) egindako ikerketaren emaitzak ere ildo berean doaz. Ikerketa Espainia mailan egin zen eta guztira 13-17 urte bitarteko 1.753 nerabek parte hartu zuten. Mutilen % 87,5ek noizbait pornografia kontsumitu zuela adierazi zuen, aldiz, nesken % 38,9k.

Arestian aipatutako ikerketek, online pornografiaren kontsumoa oinarri hartuta, adina kontuan hartu beharreko aldagaia dela adierazten dute. Gaur egun Internetaren erabilera, anonimotasunak eta kontrol ezak bultzatuta, gero eta adin txikiko erabiltzaile gehiago dago (Ballester *et al.*, 2020). Ballester *et al.*-ek (2019), Espainian 2.457 neraberik egindako ikerketaren emaitzek pornografia kontsumitzeko gutxieneko adina zortzi urtekoa dela zehazten dute. Ikerketan, mutilen kontsumitzeko batezbesteko adina hamalau urtekoa izan zen, eta neskena aldiz, hamasei urte. Ikerketa berriagoek datu baxuagoak utzi dituzte agerian: mutilen kasuan, kontsumitzeko batezbesteko adina 12,98 ($DT = 1.49$) urtekoa izan da, eta neskena, 12,7 urtekoa ($DT = 1.53$) (Sedano-Colom *et al.*, 2023).

Erabiltzaileek, maiz, eduki pornografikoak zeharka topatzen dute, izan ere, webgune batzuetan sartuz gero, automatikoki eduki sexuala duten iragarkiak agertzen dira (Attwood *et al.*, 2018; Ballester *et al.*, 2019). Aldez aurreko bilaketa aktiborik gabeko pornografiaren agerpena kezkagarria da, bereziki, 7 eta 8 urte bitarteko umeen Internetarako sarbidea normalizatuta dagoen testuinguruan (Alario, 2020; Ballester *et al.*, 2023).

Pornografia kontsumitzearen ondorio nagusiak haurtzaroan eta nerabezaroan

Online pornografia gaur egungo merkatuan nagusi da eta genero estereotipoak sustatzeaz gainera, bikotearen arteko baimen eza bezalako eszenak barne hartzen ditu (Canet eta Martínez, 2023; De Los Ángeles eta Fernanda, 2022). Hainbat ikerketek zehazten dute pornografiaren kontsumoak ondorio kaltegarriak izan ditzakeela maila pertsonalean, sozialean zein familiarrean (Kohut *et al.*, 2017; Wright *et al.*, 2015).

Peter eta Valkenburgek (2016) egindako berrikuspen sistematikoaren arabera, pornografiaren kontsumo erregularrak nerabeek eta gazteek sexuarekiko duten jarrera aldatzen du. Argudio kritikoek falta dela-eta, pornografiaren industriaren atzean dauden interes ekonomikoak ahaztu eta, ondorioz, pornografia eta sexua sinonimotzat hartzen dituzte nerabeek. Beraz, pornografiaren kontsumoak nerabeen errealitatearen desitxuratzeara dakar, besteak beste (Canet eta Martínez, 2023). Gazteek ez dute behar beste baliabide pornografiak helarazten dituen mezuak deskodetzeko, hortaz, honen kontsumoak haien garapen fisikoan, mentalean eta moralean eragina dauka (Martínez, 2021).

Save The Childrenek (2020) garatutako, arestian aipatutako, txostenaren arabera, nerabeak, pornografia bortitza dela onartzeaz gainera, % 54k pornografia haren sexu-esperientzia pertsonaletan eragina izan zuela onartu zuen. Martellozzo *et al.*-ek (2020), hiru urteetan zehar nerabeekin zein gazteekin —11-26 urte— egindako ikerketan pornografiaren kontsumoak indarkeria eta adostasunik eza bezalako jarreraren normalizazioa dakarrela ondorioztatu zuten. Hori dela eta, nerabeek zein gazteek pornografia kontsumitzearen ondorio latzenetako bat errealitatea desitxuratzeko joera da, zeinetan eraso eta menderatzeko sexu-jokabideak normalizat hartzen dituzten.

Halaber, beste hainbat ikerketek pornografiaren kontsumoaren eta sexu-indarkeriaren arteko harremanak aurkitu dituzte (Malamuth *et al.*, 2021; Tomaszewska eta Krahé, 2018; Ybarra eta Thompson, 2018), eta lotura hori, pornografia bortitza denean, handiagoa da (Wright *et al.*, 2015). Aipatutako sexu-indarkeria online ere gerta daiteke, Internet edo telefono mugikorraren bidez, nahi ez den sexu-lankidetzak edo kontaktua lortzeko —adibidez, sexu-informazioa partekatzea, eduki sexuarekiko irudiak bidaltzea edo biktimaren nahien aurkako zerbait egitea— edota biktimaren borondatearen aurka, bere irudiak zein informazioa Internetaren bidez zabaltzeko eta partekatzeko (Gámez-Guadix *et al.*, 2015, 2022). Bukatzeko, Paslakis *et al.*-ek (2022), nazioarteko 26 ikerlan aztertu eta gero, ondorioztatu dute pornografiaren kontsumoa gorputzaren irudiaren pertzepzio negatiboarekin erlazionatzen dela.

Pornografiaren kontsumoarekin erlazionatutako faktoreak

Ondoren, kontsumoarekin bat egiten duten bi faktore garrantzitsu aztertuko dira: sexting-a eta gizarte-babesa.

Sexting-a

Teknologiak aurrera egin ahala, sexting kontzeptuaren interpretazio desberdinak egin dira, izan ere, definizio bakoitzak ekintza mota —bidali, jaso eta birbidali—, bitar-

teko mota —testua, irudia eta bideoak— eta eduki mota ezberdina hartzen du kontuan (Barrese-Diaz, 2017; Mercado Contreras *et al.*, 2016). Ojeda *et al.*-en (2020) aburuz, *sexting*-a deritzo sexua oinarri duten testuak, irudiak zein bideoak, Internetaren bidez bidali, jaso edo birbidaltzeari. Espainian, Gámez-Guadix *et al.*-ek (2017) 12 eta 17 urte bitarteko 3.223 gazteekin egindako ikerketak agerian utzi zuen *sexting*-aren batezbesteko prebalentzia % 13,5koa zela. Halaber, ondorioztatu zuten *sexting*-ak, nerabezaroan zehar, gora egiten duela, 17 urteko gazteen prebalentzia % 36koa izan baitzen. Desberdintasun horren arrazoia sare sozialak eta bikotekidea izateko probabilitatea —*sexting*-a testuinguru horretan maiz gertatzen da— izan daitezke.

Ondorioz, online pornografiaren kontsumoaren eta *sexting*-aren arteko lotura aipatzekoa da, izan ere, nerabeek zenbat eta eduki pornografiko gehiago kontsumitu, orduan eta *sexting*-a barne hartzen duten jarrerak izateko aukera gehiago dute (Rodríguez-Castro *et al.*, 2021). Stanley *et al.*-ek (2018) garatutako ikerketan Europako bost herrialdeetako nerabeek parte hartu zuten, eta aipatutako bi kontzeptuen arteko harremana sendoa dela ondorioztatu zuten.

Gizarte-babesa

Gizarte-sarek hitz egiten denean, gizarte-harremanen egitura ezaugarriak egiten zaie erreferentzia, zeintzuek gizabanakoarengandik hurbil dauden subjektu esanguratsuek osatzen duten, eta horien artean familia zein lagunak aipatzekoak dira. Gizarte-babesa norbanakoaren ongizatearen garapenean ezinbestekoa da eta ondorioz, garapen prozesuaren behar desberdinei erantzuten dio (Orcasita Pineda eta Uribe Rodríguez, 2010).

Butler *et al.*-en (2018) lanaren emaitzek pornografia kontsumoaren eta bakardadearen arteko harremana babesten dute; bakardadea sentitzen duten ikasleek, pornografia kontsumitu ohi dute. Halaber, Mousa *et al.*-ek (2022) esandakoa kontuan hartuta, pornografiaren kontsumoa bakardadearen ihesbide gisa erabili ohi da. Aitzitik, nerabezaroan harreman emozional esanguratsuak dituzten gazteak babestuago daude kontsumo problematikoe (Efrati eta Amichai-Hamburger, 2020).

Halaber, Zattoni *et al.*-ek (2021) aurrera egindako ikerketan, Google Trends-en analisia medio, COVID-19aren ondorioz bizi izandako pandemiak pornografiaren kontsumo-ohituretan izandako eragin globala aztertu zuten. Hilabetetan zehar, isolamenduaren ondorioz bizi izandako estresak zein bakardadeak pornografiaren kontsumoaren portaeran eragina izan zuen mundu osoan, eta online pornografiaren bilaketak nabarmen ugaitu ziren.

Hezkuntza afektibo-sexuala

Pornografiaren kontsumoak, berak dakartzan aurreiritziek zein distortsioek nerabeen heldutasun prozesuan eragina izan dezakete (Ballester *et al.*, 2020). Pornografia bera arazo den arren, informazioa eta formakuntza ezinbestekoak dira kontsumoa murriztu eta ekiditeko (Villena, 2023). Ildo horretan, aurretik aipatutako Save The Children-ek (2020) 1.753 nerabeekin egindako ikerketaren datuen arabera, Euskadiko nerabeen % 64,3k hezkuntza afektibo sexualaren inguruko informazio gehiago jaso nahiko luke-tela adierazi zuten.

Sexu-hezkuntza edo hezkuntza afektibo-sexuala osasun arloarekin ez ezik, hezkuntza testuinguruarekin erlazionatuta dago, izan ere, gizon-emakumeen garapen integralarekin bat egiten du. Elkarrizketen eta esanahien eraikuntza medio, hurrengo galderen inguruan hausnartu eta landu beharra dago: «Zertan hezi?», «Nola hezi?» eta «Zertarako hezi?» (Rodríguez *et al.*, 2021). Hezkuntza afektibo sexuala ez da hitzaldi batera mugatu behar, ikasleen ikasketa prozesu osoan zehar landu beharreko gaia da. Emozioak, plazera eta sexualitatea pertsona guztien bizitzaren parte diren heinean, naturaltasunez, tolerantziaz eta errespetuz landu behar dira (Ballester *et al.*, 2020; Rodríguez *et al.*, 2021). Modu honetan, sexualitatea dimentsio positibo gisa onartzeaz gainera, sexualitatearen garapen optimoa bermatuko da, baita sexu-jokabide etikoak izatearen kontzientzia ere (Salgado, 2017). Arestian aipatutako Save The Childrenek (2020) egindako ikerketak agerian utzi du Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza afektibo-sexuala lantzen duten programa desberdinak dauden arren, ikasleek programetan lantzen den informazioa ez dutela modu uniformean jasotzen, programak ez baitira derrigorrezkoak.

Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Ikerketaren helburu orokorra Arabako nerabeen pornografiaren kontsumoaren zeharkako azterketa egitea da, baita kontsumoarekin bat egiten duten aldagaiak identifikatzea ere, prebentzio esku-hartze proposamenak egin ahal izateko. Arabako nerabeen online pornografiaren kontsumoarekin bat egiten duten aldagaietan sakontzeko, hurrengo helburu espezifikoak diseinatu dira: (1) Arabako nerabe eta gazteen online pornografiaren kontsumoaren prebalentzia aztertu, sexua eta adina kontuan hartuta; (2) Arabako nerabeen online pornografiaren kontsumoa eta *sexting*-aren arteko harremana ikustatu; (3) Arabako nerabeen online pornografiaren kontsumoak gizarte-babesaren pertzepzioarekin duen erlazioa aztertu.

Helburuak kontuan hartuta, ondorengo hipotesiak diseinatu dira: (1.1) Parte-hartzaileen % 50ek pornografia kontsumitu du; (1.2) Online pornografiaren kontsumoaren prebalentzia mutilen artean nesken artean baino handiagoa da; (1.3) Online pornografia, lehen aldiz kontsumitzeko, parte-hartzaileen gutxieneko adina 9 urte ingurukoa da; (2.1) Online pornografia kontsumoaren eta *sexting*-aren artean erlazio positiboa dago; (3.1) Online pornografia kontsumitzen duten pertsonak, lagunengandik, familiarengandik zein pertsona esanguratsuengandik babes gutxiago sumatzen dute.

Metodoa

Ikerketaren diseinua ez-esperimental da, zeharkakoa hain zuzen ere. Proiektuak izaera deskribatzailea dauka, izan ere, aztergaia definitu, sailkatu eta/edo kategorizatu da —diseinu deskribatzailea—. Modu berean, azterlan honek estrategia asoziatibo bat dauka, helburu nagusia aldagaien arteko harremanak aztertzea baita, kontsumoarekin lotuta dauden aldagaiak ezagutzeko asmoz —diseinu korrelazionala—.

Parte-hartzaileak

Azterlan kuantitatiboak Arabako lau eskola publikoko 454 ikasle barne hartu ditu, horietatik % 46 ($n = 209$) mutilak, % 52,4 ($n = 238$) neskak eta % 1,5 ($n = 7$) ez binarioak dira. Modu berean, lagina 12 eta 18 urte bitarteko ikasleek osatzen dute ($M = 14.85$, $DT = 1.156$). Horietatik % 5,7 ($n = 26$) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan matrikulatuta dago, % 9,5 ($n = 43$) bigarren mailan, % 53,9 ($n = 240$) hirugarren mailan, % 7,7 ($n = 35$) laugarren mailan eta % 24,2 ($n = 110$) batxilergoko lehenengo mailan. Halaber, laginaren % 95,8ak ($n = 435$) nazionalitate espainiarra dauka eta % 4,2 ($n = 19$) beste herrialdeetakoak dira, Maroko, Kolonbia, Guatemala, India, Errumania, Brasil eta Austria hain zuzen ere.

Tresnak

Aldagaiak neurtzeko bost galdetegi-sorta barne hartzen dituen online galdetegi bat erabili da, hau da, online galdetegia 1. taulan zehazten diren hurrengo lau ataletan banatuta dago.

1. taula

Online galdetegiaren dimentsioak

Galdetegiak	Deskribapena
Datu sozio-demografikoak	<i>Ad-hoc</i> galdetegia —sexua, adina, sexu-orientazioa, jatorria, bizilekua eta hezkuntza maila— (6 item).
Hezkuntza afektibo-sexuala	Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko informazioa jasotzeko <i>ad hoc</i> galdetegia (6 item).
Online pornografiaren kontsumoa	Ballester <i>et al.</i> -en (2019) galdetegia kontuan hartuta, online pornografia kontsumoaren inguruko <i>ad-hoc</i> galdetegia (12 item).
Sexting galdetegia (Gámez-Guadix <i>et al.</i> , 2015)	Galdetegiak 3 item ditu, eta parte-hartzaileak, haien azken urteko esperientzia kontuan hartuta, hurrengo hiru itemak zein maiztasunarekin egin duten adierazi behar dute —0 = inoiz ez; 1 = 1-3 aldiz; 2 = 4-10 aldiz; 3 = 10 aldiz baino gehiago—: (1. item-a) «haien argazki-sexualak bidaltzea (adibidez, biluzik)»; (2. item-a) «eduki sexuala oinarri duten haien irudiak —webcam baten bidez— zein bideoak bidaltzea»; (3. item-a) «eduki sexuala oinarri duten haien inguruko testu-mezuak bidaltzea». Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko egokiak izan ditu, non, <i>Cronbach alpha</i> = .74 den.
Gizarte-babesaren eskala (Zimet <i>et al.</i> , 1988), bere Espainiar bertsioan (Landeta eta Calvete, 2002)	12 itemeko galdetegi honek hurrengo hiru dimentsioak barne hartzen ditu: senide, lagun zein beste pertsona esanguratsuenagandik jasotako babesaren pertzepzioa. Erantzuteko Likert eskalako 7 erantzun posible daude —1 = guztiz desados eta 7 = erabat ados—. Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko onak aurkeztu ditu, non, <i>Cronbach alpha</i> = .92 den.

Prozedura

Eskolak aukeratzeko prozesua komenientziazkoa izan zen, eta eskolekin korreo elektronikoz jarri ginen harremanetan. Eskolaren oniritzia jaso eta gero, familiei ikerketaren berri eman zitzaion baimen idatzi baten bidez. Eskoletan, ikasle-talde bakoitzari ikerketaren nondik norakoak —helburua, tresnak eta prozedura, besteak beste— azaldu eta, ondoren, ikasle bakoitzak baimena sinatu zuen. Baimenik eman ez zuten ikasleentzat, diseinu bereko galdetegi bat prestatu zen, haien gustu zein bestelako gaien inguruan, haien konfidentzialtasuna, segurtasuna eta errespetua bermatuz. Horrela, ikasle taldeko kide guztiek galdetegia 20 minutuko denbora tartean bete zuen, bakoitzak bere ordenagailuan. Ikerketa proiektuak Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen oniritzia jaso zuen (M10_2024_064).

Analisi estatistikoak

Analisi estatistikoak IBM SPSS programan egin dira, zehazki, 28. bertsioan —Armonk, NW, AEB—. Programan, datuen kodifikazioa eta esplorazioa egin eta gero, galdetegi irizpideak kontuan hartuta, aldagai berriak kalkulatu dira. Bigarrenik, laginaren osaera ezagutzeko, analisi deskriptiboa egin da; aldagai kualitatiboen kasuan maiztasunak erabili dira, aldiz, kuantitatiboen kasuan batezbestekoa eta desbideratze tipikoa. Jarraian, aldagai kuantitatiboen kasuan, asimetria eta kurtosia behatzeaz gainera, Kolmogorov-Smirnov proba egin da, azterketaren hipotesia egiaztatzeko asmoz, ondoren, proba parametrikokoak —lagin independenteetarako t proba— zein ez-parametrikokoak —Mann Whitney-en U proba— aplikatuz. Kasu guztietan % 95eko konfiantza-mailarekin lan egin da.

Emaizak

Lagin osoaren % 43,8k ($n = 199$) pornografia kontsumitu du, eta horietatik % 70,9 ($n = 141$) mutilak, % 27,6 ($n = 55$) neskek eta % 1,5 ($n = 3$) sexu ez-binarioak dira. Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira pornografiaren kontsumoaren artean —kontsumitzea ala ez kontsumitzea— sexuaren arabera [$\chi^2(2) = 88.926$, $p < .001$, *Cramer-en V* = .443], baita ikasturtearen arabera ere [$\chi^2(4) = 18.76$, $p < .001$, *Cramer-en V* = .203]. Sexua kontuan hartuta, mutilek (% 70,9) neskek (% 27,6) baino gehiago kontsumitu dute. Ikasturteari dagokionez, lehenengo mailako ikasleen artean % 38,5ek ($n = 10$) noizbait pornografia kontsumitu du, aldiz, bigarren mailako ikasleen % 23,3k ($n = 10$), hirugarren mailako ikasleen % 41,7k ($n = 100$), laugarren mailako ikasleen % 40k ($n = 14$) eta batxilergo lehenengo mailako ikasleen % 59,1ek ($n = 65$). Ildo berean, pornografia noizbait kontsumitu duten ikasleei gaur egun pornografia kontsumitzen jarraitzen duten galdetu zitzaion. Kasu honetan, pornografia noizbait kontsumitu duten % 51ek ($n = 101$) gaur egun pornografia kontsumitzen jarraitzen du. Gaur egun pornografia kontsumitzen duten % 78,2 ($n = 79$) mutilak dira; aldiz, datuak baxuagoak dira neska (% 18,8; $n = 19$) eta sexu ez-binarioak (% 3; $n = 3$) ikasleen kasuan.

Adinari dagokionez, eduki pornografikoak lehen aldiz ikusi zuten parte-hartzaileen gutxieneko adina 6 urte izan dira, eta gehiengoa berriz, 16 urte ($M = 11.86$, $DT = 1.89$).

Halaber, «Zenbat urterekin hasi zinen pornografia normaltasunez kontsumitzen?» galderaren erantzunak bide berean doaz, izan ere, gutxieneko adina 10 urte izan dira, eta aldiz, gehiengoak 16 urte ($M = 13.16$, $DT = 1.348$). Testuinguru honetan, pornografia noizbait kontsumitu dutenen % 57,6k ($n = 114$), lehen aldiz zeharkako modu batean aurkitu zutela aipatzen du, alegia, ez zutela zuzenean bilatu.

Online pornografiaren kontsumoaz gainera, parte-hartzaileei jasotako hezkuntza afektibo-sexualaren inguruan ere galdetu zitzairen. Parte-hartzaileen % 72,7k ($n = 330$), formakuntza noizbait jaso duela adierazi zuen. Jasotako formakuntzaren iraupenari dagokionez, % 33,9k ($n = 112$) lau saio edo gehiago izan zirela adierazi zuen; aldiz, % 25,5ek ($n = 84$) hiru saio, % 24,5ek ($n = 81$) bi saio eta % 16,1ek ($n = 53$) saio bakarra. Halaber, gehiengoak formakuntza Bigarren Hezkuntzan jaso duen arren (% 50,6; $n = 233$), hurrengo erantzunak ere kontuan hartzekoak dira: % 49,7k ($n = 164$) Lehen Hezkuntzan, % 31,2k ($n = 104$) etxean haien familien bitartez, % 12,7k ($n = 42$) sare sozialen bidez eta % 8,2k ($n = 27$) Interneten. Ildo berean, formakuntza jaso duten ikasleen % 45,45ek ($n = 150$) formakuntzak haien behar zein zalantzak asetu zituela adierazi du, % 45,45ek ($n = 150$) zehaztu dute formakuntzak ez zituela guztiz haien beharrak asetu, eta aldiz, % 9,1aren ($n = 24$) kasuan, formakuntzak ez zituen haien beharrak asetu.

Sexting-a

Sexting galdetegiaren hiru galderen eta online pornografiaren kontsumoaren arteko erlazioa aztertu da. Lehenengo item-ean jasotako erantzunen eta pornografiaren kontsumoaren artean erlazio esanguratsua aurkitu da [$\chi^2(3) = 15.220$, $p = .002$, *Cramer-en V* = .183], baita hirugarren item-eko erantzunen eta kontsumoaren artean ere [$\chi^2(3) = 42.590$, $p = <.001$, *Cramer-en V* = .306].

2. taula

Sexting galdetegia eta online pornografia kontsumoaren arteko erlazioa

Nozbait online pornografia kontsumitu dutenen artean			
Item-a	1 eta 3 aldiz	4 eta 10 aldiz	10 aldiz baino gehiago
1. item-a. Zuri buruzko argazki-sexualak bidaltzea, adibidez, biluzik	% 10.1 ($n = 20$)	% 3 ($n = 6$)	% 2 ($n = 4$)
3. item-a. Zuri buruzko eduki sexuala duten testu-mezuak bidaltzea)	% 12.1 ($n = 24$)	% 10.1 ($n = 20$)	% 5.5 ($n = 11$)

Aldiz, ez da erlazio esanguratsurik aurkitu bigarren galderan jasotako erantzunen —«Zuri buruzko eduki sexuala duten bideoak bidaltzea»— eta pornografiaren kontsumoaren artean [$\chi^2(3) = 5.822$, $p = .12$].

Gizarte-babesa

Lagunengandik jasotzen duten babesaren pertzepzioaren eskalan estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira batezbestekoan noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta ez dutenen artean [$t(452) = -1.815, p = .03$]. Modu honetan, noizbait pornografia kontsumitu duten pertsonen maila baxuagoa dute lagunen babesaren eskalaren batezbestekoan ($M = 21.82, DT = 5.98$), pornografia inoiz kontsumitu ez dutenek baino ($M = 22.81, DT = 5.50$).

Illo berean, familiarengandik jasotzen duten babesaren pertzepzioaren eskalan estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta ez dutenen artean [$t(452) = -2.098, p = .018$]. Noizbait pornografia kontsumitu duten ikasleek maila baxuagoa dute familiaren babesaren eskalaren batezbestekoan ($M = 21.90, DT = 6.07$), pornografia inoiz kontsumitu ez dutenekin alderatuta ($M = 23.11, DT = 6.09$).

Bukatzeko, pertsona esanguratsuengandik jasotzen duten babesaren pertzepzioaren batezbestekoan ere estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta ez dutenen artean [$t(452) = -1.985, p = .02$]. Beraz, noizbait pornografia kontsumitu duten ikasleek maila baxuagoa aurkeztu dute pertsona esanguratsuen babesaren eskalako batezbestekoan ($M = 22.32, DT = 5.65$), pornografia inoiz kontsumitu ez dutenek baino ($M = 23.37, DT = 5.54$).

Eztabaida

Ikerketa honek hezkuntza arloan inplikazio garrantzitsuak ditu, izan ere, nerabeak testuinguru digital batean hazi eta hazten ari dira, zeinetan, pantailan klik eginez gero, momentuan eduki anitz dituzten eskura, horien artean, pornografia. Gazteek ez dute behar beste baliabide pornografiak helarazten dituen mezuak deskodetzeko, eta ondorioz, honen kontsumoak haien garapen mentalean zein moralean eragina dauka, pornografia eta sexua sinonimotzat hartuz (Martínez, 2021).

Ikerketak agerian utzi du online pornografiaren prebalentzia altua dela Arabako nerabeen artean, bereziki, mutilen artean. Ondorengo lerroetan ikerketaren emaitzak aztertuko dira, diseinatutako hipotesiak zein beste ikerketen ondorioak kontuan hartuta. Hasteko, lagin guztiaren % 43,8k ($n = 199$), pornografia kontsumitu du noizbait, beraz, ez da lehenengo hipotesia bete, izan ere, espero zen ehunekoa altuagoa da (% 50). Hala ere, ikerketan lortutako emaitza altua da eta, ondorioz, kezkarria. Gainera, beste ikerketa batzuek aipatzen dutenarekin bat egiten du (Ballester-Arnal *et al.*, 2023). Testuinguru honetan pornografiaren ondorio negatiboak kontuan hartu behar ditugu, izan ere, eduki pornografikoek, maiz, eszena irrealak, arduragabeak zein osasunerako arriskutsuak ere badituzte (Biota *et al.*, 2021), nerabeen errealitatea desitxuratuz (Canet eta Martínez, 2023; Martínez, 2021).

Modu berean, ikerketan pornografia-kontsumoaren prebalentzia aztertu da sexua eta adina kontuan hartuta. Kasu honetan, lehenengo helburu espezifikoari dagokion bigarren hipotesia bete da, izan ere, online pornografia kontsumoaren prebalentzia mutilen artean nesken artean baino askoz handiagoa izan da. Ikerketa desberdinek antzeko

emaitzak erakutsi dituzte: mutilek neskek baino mendekotasun eta borondate gehiago adierazi ohi dute eduki pornografikoak kontsumitzeko (Andrie *et al.*, 2021; Gomes *et al.*, 2018; Save The Children, 2020). Villena Moyaren (2023) aburuz ere mutilek neskek baino pornografia gehiago kontsumitzen dute, pornografia mutilentzat diseinatuta dagoelako bereziki.

Sexuaz gainera, adina, nahi eta nahi ez, kontuan hartu beharreko aldagaia da. Kasu honetan, ikerketak agerian utzi du eduki pornografikoak lehen aldiz ikusi zuten parte-hartzaileen gutxieneko adina 6 urtekoa dela, eta gehiengoa aldiz, 16 urtekoa, hau da, hirugarren hipotesian zehaztutakoa —9 urte— baino gutxiago. Emaita horrek Balles-ter eta Ortek (2019) Espainia mailan 2.457 nerabeei egindako ikerketaren norabide berdina erakusten du, haien ikerketan pornografia kontsumitzeko ikasleen gutxieneko adina 8 urtekoa izan baitzen. Eduki pornografikoen bilaketa intentzionala (bilaketa aktiboen bidez) ala ez intentzionala —adibidez, iragarkien bidez— izan daiteke (Mitchell *et al.*, 2007). Egoerak egoera, gazteak, 6 urterekin, ez dituzte behar beste baliabide pornografiak helarazten dituen mezuak deskodetzeko (Martinez, 2021). Gazteek baliabide digitalak eskaintzen dituzten onurez gozatzeko aukera izan dezaten, premiazko neurriak hartu behar dira. Horrenbestez, Espainiako Gobernuak presidenteak, 2024ko urtarrilaren 15ean, arazo honi aurre egiteko asmoz, adingabeak babesteko lege-proiektu bat onartu zuen. Aipatutako legearen bitartez, besteak beste adingabeei online-pornografia edukietarako sarbidea debekatzeko mekanismoak martxan jartzea aurreikusi da (A.E.P.D., 2024).

Modu berean, online pornografiaren kontsumoarekin bat egiten duten aldagai desberdinak aztertu dira. Hasteko, Stanley *et al.*-en (2018) zein Rodríguez-Castro *et al.*-en (2021) ikerketetan bezalaxe, online pornografia kontsumitu eta *sexting*-aren arteko erlazioa ikusi da. Emaitez agerian uzten dute online pornografia kontsumitzen duten pertsonen zailtasun gehiago izan ohi dituztela eduki sexuala oinarri duten testu, irudi zein bideoak partekatzearen arriskuak identifikatzeko. Alonso eta Romerok (2019) *sexting*-ak gazteen ongizate emozionalean eragina duten ondorio sozial zein pertsonalak barne hartzen dituela adierazi arren, gero eta ohikoagoa da nerabeen artean (Ringrose *et al.*, 2013).

Halaber, hirugarren helburu espezifikoarekin bat eginez, pornografia kontsumitu eta gizarte-babesaren pertzepzioaren arteko harremana aztertu da. Noizbait pornografia kontsumitu dutenek familia, lagun edo beste pertsona esanguratsuen-gandik babes gutxiago sumatzen dutela zehaztu dute, hipotesian zehaztutakoa konfirmatuz. Butler *et al.*-en (2018) eta Mousa *et al.*-en (2022) ikerketen emaitzek pornografia kontsumoaren eta bakardadearen arteko harremana babesten dute. Kontuan hartzekoa da gizarte-babesa norbanakoaren ongizatearen garapenean ezinbestekoa dela, izan ere, garapen prozesuaren behar desberdinei erantzuten die (Orcasita Pineda eta Uribe Rodríguez, 2010). Baliabide digitalen abantaila nagusietako bat leku desberdinetan dauden pertsonen arteko komunikazioa edo konexioa ahalbidetzea den arren, bere arrisku nagusietako bat gertu dauden pertsonetikiko deskonexioa da, eta hori guztiz paradoxiko bihurtzen da, baita gero eta ohikoagoa ere (Clairá, 2013).

Laburbilduz, ikerketa honen emaitzek agerian uzten dute online pornografiaren kontsumoa altua dela nerabeen artean, batez ere, mutilen artean. Testuinguru hone-

tan, hezkuntza-afektibo sexuala oinarri duten programen garapena ezinbestekoa da. Emozioak, plazera eta sexualitatea pertsona guztien bizitzaren parte diren heinean, naturaltasunez, tolerantziaz eta errespetuz landu behar dira hezkuntzako etapa desberdinetan (Ballester *et al.*, 2020; Rodríguez *et al.*, 2021).

Amaitu baino lehen, ezinbestekoa da kontuan hartzea ikerketa honek hainbat muga dituela. Parte-hartzaile guztiak Arabakoak dira, eta honek laginaren adierazgarritasuna zaildu egiten du. Ildo berean, online pornografiaren kontsumoarekin bat egiten duten bi aldagai baino ez dira kontuan hartu. Beraz, etorkizunean lagina handitzeaz gainera, bestelako aldagaiak hartuko dira kontuan. Hainbat ikerketek online pornografiaren kontsumoa eta autokontzeptu baxuaren arteko harremana aztertu dute. Aldagai honen ikerketa interesgarria izan daiteke, nerabezaroan identitatea zein autokontzeptua finkatu ohi delako (Stewart eta Szymanski, 2012; Weinstein *et al.*, 2015). Ildo berean, alexitimiar dagokionez, Cardoso *et al.*-ek (2022) egindako ikerketan, emozioak erregulatzeko zailtasuna pornografiaren kontsumo problematikoa iragartzeko faktore gisa definitu zuten. Modu berean, pornografiaren kontsumoan gehiago sakontzeko asmoz, etorkizunean talde elkarriketak egitea aurreikusi da, ikasleekin, irakasleekin zein familliekin, parte hartzaile desberdinen ekarpenak entzuteko eta analisia aberasteko asmoz (León eta Montero, 2020).

Erreferentziak

- AEPD-Agencia Española de Protección de Datos (2024). *Menores, salud digital y privacidad. Estrategia y líneas de acción*. <https://www.aepd.es/guias/estrategia-menores-aepd-lineas-accion.pdf>
- Alario, M. (2018). La influencia del imaginario de la pornografía hegemónica en la construcción del deseo sexual masculino postituyente: un análisis de la demanda de prostitución. *Asparkia*, 33(4), 61-76.
- Alario, M. (2020). *La reproducción de la violencia sexual en sociedades patriarcales formalmente igualitarias en la actualidad* [Doktorego Tesia, Universidad Rey Juan Carlos]. https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/Tesis/pdfs/Tesis_n_10_-_Tomo_II_-_v5.pdf
- Alonso, C., eta Romero, E. (2019). Conducta de sexting en adolescentes: predictores de personalidad y consecuencias psicosociales en un año de seguimiento. *Anales de Psicología*, 35(2), 214-224.
- Andrie, E. K., Sakou, I. I., Tzavela, E. C., Richardson, C., eta Tsitsika, A. K. (2021). Adolescents' online pornography exposure and its relationship to sociodemographic and psychopathological correlates: a cross-sectional study in six European countries. *Children*, 8(19), 1-16. <https://doi.org/10.3390/children8100925>
- Area, M., eta Adell, J. (2021). Tecnologías digitales y cambio educativo. Una aproximación crítica. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 19(4), 83-96.
- Attwood, F., Smith, C., eta Barker, M. (2018). «I'm just curious and still exploring myself»: Young people and pornography. *New Media and Society*, 20(10), 3738-3759.
- Ballester, L., Dosil-Santamaria, M., Villena, A. eta Testa, G. (2023). La nueva pornografía «online» y los procesos de naturalización de la violencia sexual. En A. Gutiérrez (Coord.), *Una mirada interdisciplinar hacia las violencias sexuales* (233-250 orr.). Octaedro.

- Ballester, L., Orte, C., eta Pozo, R. (2019). Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales de adolescentes y jóvenes. In C. Orte, L. Ballester y R. Pozo (Coord.), *Vulnerabilidad y Resistencia: Experiencias investigadoras en comercio sexual y prostitución* (249-284 orr.). Ediciones UIB.
- Ballester, L., Rosón, C., eta Facal, T. (2020). *Pornografía y educación afectivosexual*. Octaedro.
- Barrese-Díaz, Y., Berchtold, A., Surís, J. C., eta Akre, C. (2017). Sexting and the Definition Issue. *Journal of Adolescent Health*, 61(5), 544-554. <https://doi.org/10.1016/j.jadohealth.2017.05.009>
- Biota, I., Loureda, M., Ozamiz-Etxebarria, N., Dosil, M., Picaza, M., eta Eiguren, A. (2021). Percepción de la población general sobre la pornografía y sus efectos sobre la masculinidad hegemónica. *Revista de Educación Social*, (33), 578-597.
- Butler, M. H., Pereyra, S. A., Draper, T. W., Leonhardt, N. D., eta Skinner, K. B. (2018). Pornography Use and Loneliness: A Bidirectional Recursive Model and Pilot Investigation. *Journal of Sex and Marital Therapy*, 44(2), 127-137. <https://doi.org/10.1080/0092623X.2017.1321601>
- Canet, E., eta Martínez, L. (2023). El consumo de pornografía en el alumnado universitario. *Human Review*, 19(1), 2-15.
- Cardoso, J., Ramos, C., Brito, J., eta Almeida, T. C. (2022). Predictors of Pornography Use: Difficulties in Emotion Regulation and Loneliness. *The Journal of Sexual Medicine*, 19, 620-628. <https://doi.org/10.1016/j.jsxm.2022.01.005>
- Clairá, A. (2013). ¿Conectados o comunicados? *Revista CV*, 541. <http://www.ciudadnueva.org.ar/revista/541/sociedad/conectados-o-comunicados>
- De los Ángeles, M., eta Fernanda, A. (2022). Mercados nocivos: el caso del mercado sexual de la pornografía. Reflexiones a partir de la teoría de Debra Satz. *Isonomía*, 57, 1-33.
- Efrati, Y., eta Amichai-Hamburger, V. (2020). Are adolescents who consume pornography different from those who engaged in online sexual activities? *Children and Youth Services Review*, 111, 104843.
- Gámez-Guadix, M., Almendros, C., Borrajo, E., eta Calvete, E. (2015). Prevalence and association of sexting and online sexual victimization among Spanish adults. *Sexuality Research and Social Policy*, 12, 145-154.
- Gámez-Guadix, M., De-Santisteban, P., eta Resett, S. (2017). Sexting among Spanish adolescents: Prevalence and personality profiles. *Psicothema*, 29(1), 29-34. <https://doi.org/10.7334/psicothema2016.222>
- Gámez-Guadix, M., Mateos-Pérez, E., Wachs, S., Wright, M., Martínez, J., eta Íncera, D. (2022). Assessing image-based sexual abuse: Measurement, prevalence, and temporal stability of sextortion and non consensual sexting («revenge porn») among adolescents. *Journal of Adolescence*, 94, 789-799. <https://doi.org/10.1002/jad.12064>
- Gomes, A., Fernandes, A., Ribeiro, R., eta Cardoso, J. (2018). Ciberpornografía e atitudes sexuais em estudantes universitários. estudo exploratório. *Actas do 10.º Congresso Nacional de Psicologia da Saúde. Lisboa*.
- Iglesias-Osores, S., Saavedra-Camacho, J. L., Grández-Villarreal, M., Acosta-Quiroz, J. M., Córdoba-Rojas, L. M., eta Rafael-Heredia, A. (2022). Conductas sexuales de riesgo y pornografía en una población de adultos de Perú. *Revista del Cuerpo Médico Hospital Nacional Almanzor Aguinaga Asenjo*, 15(4), 508-514.
- Instituto Nacional de Estadística (2022). *Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías de Información y Comunicación (TIC) en los Hogares*. https://www.ine.es/prensa/tich_2022.pdf

- Kohut, T., Fisher, W. A., eta Campbell, L. (2017). Perceived effects of pornography on the couple relationship: Initial findings of open-ended, participant-informed, «bottom-up» research. *Archives of Sexual Behavior*, 46(2), 585-602.
- Kor, A., Zilcha-Mano, S., Fogel, Y.A., Mikulincer, M., Reid, R. C., eta Potenza, M. N. (2014). Psychometric development of the problematic pornography use scale. *Addictive Behaviors*, 39(5), 861-868.
- Landeta, O., eta Calvete, E. (2002). Adaptación y validación de la Escala Multidimensional de Apoyo Social Percibido. *Ansiedad estrés*, 8(2), 173-182.
- León, O. G., eta Montero, I. (2020). *Métodos de investigación en Psicología y Educación. Las tradiciones cuantitativa y cualitativa*. McGraw Hill.
- Malamuth, N. M., Lamade, R. V., Koss, M. P., Lopez, E., Seaman, C., eta Prentky, R. (2021). Factors predictive of sexual violence: Testing the four pillars of the Confluence Model in a large diverse sample of college men. *Aggressive Behavior*, 47(4), 405-420. <https://doi.org/10.1002/ab.21960>
- Martellozzo, E., Monaghan, A., Davidson, J., eta Adler, J. R. (2020). Researching the effects that on online pornography has on UK adolescents aged 11 to 16. *SageOpen*, 10(1), 1-11. <https://doi.org/https://doi.org/10.1177/2158244019899462>
- Martínez, J. M. (2021). ¿Resulta constitucional restringir la pornografía en internet? Bases para repensar el estatuto jurídico del discurso pornográfico. *Revista General de Derecho Constitucional*, 35, 1-18.
- Mercado Contreras, C. T., Pedraza Cabrera, F. J., eta Martínez Martínez, K. I. (2016). Sexting: su definición, factores de riesgo y consecuencias. *Revista sobre la Infancia y la Adolescencia*, 10, 1-18.
- Merlyn, M., Jayo, L., Ortiz, D., eta Moreta-Herrera, R. (2020). Consumo de pornografía y su impacto en actitudes y conductas en estudiantes universitarios ecuatorianos. *Psicodebate*, 20(2), 59-76.
- Mitchell, K. J., Finkelhor, D., eta Wolak, J. (2007). Youth Internet users at risk for the most serious online sexual solicitations. *American Journal of Preventive Medicine*, 32(6), 532-537.
- Mousa, S., Malaeb, D. Obeid, S., eta Hallit, S. (2022). Correlates of Positivity Among a Sample of Lebanese University Students. *Frontiers in Psychology*, 11, 1-11.
- Ojeda, M., Rey, Rosario del, Walrave, M., eta Vandebosch, H. (2020). Sexting en adolescentes: Prevalencia y comportamientos. *Comunicar*, (64), 9-19.
- Orcasita Pineda, L. T., eta Uribe Rodríguez, A. F. (2010). La importancia del apoyo social en el bienestar de los adolescentes. *Psicología, Avances de la Disciplina*, 4(2), 69-82.
- Paslakis, G., Chiclana Actis, C., eta Mestre-Bach, G. (2022). Associations between pornography exposure, body image and sexual body image: A systematic review. *Journal of Health Psychology*, 27(3), 743-760. <https://doi.org/10.1177/1359105320967085>
- Peter, J., eta Valkenburg, P. M. (2016). Adolescents and pornography: A review of 20 years of research. *The Journal of Sex Research*, 53(4-5), 509-531. <https://doi.org/10.1080/00224499.2016.1143441>
- Rodríguez-Castro, V., Martínez-Román, R., Alonso-Ruido, P., Adá-Lameiras, A., eta Carrera-Fernández, M. V. (2021). Intimate partner cyberstalking, sexism, pornography, and sexting in adolescents: new challenges for sex education. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(4), 2181.

- Rodríguez, A., Vicuña, J. J., eta Zapata, J. J. (2021). Familia y escuela: educación afectivo-sexual en las escuelas de familia. *Revista Virtual Universidad Católica del Norte*, (63), 312-344. <https://doi.org/10.35575/rvucn.n63a12>
- Ringrose, J., Harvey, L., Gill, R., eta Livingstone, S. (2013). Teen girls, sexual double standards and «sexting»: Gendered value in digital image exchange. *Feminist Theory*, 14(3), 305-323.
- Salgado, A. (2017). El papel de la familia en la educación sexual. *Padres y maestros*, (372), 6-11.
- Save the Children. (Des)Información Sexual: Pornografía y Adolescencia [Sexual Misinformation: Pornography and Adolescence]. 2020. Eskuragarri hemen: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-09/Informe_Desinformacion_sexual-Pornografia_y_adolescencia.pdf
- Saéz de Cámara, E., Fernández, I. eta Castillo-Eguzkitza, N. (2021). A Holistic Approach to Integrate and Evaluate Sustainable Development in Higher Education. The Case Study to the University of the Basque Country. *Sustainability*, 13(1), 2-19.
- Sedano Colom, S., Lorente de Sanz, J., Ballester Brage, L., eta Aznar-Martinez, B. (2023). Acceso, consumo y consecuencias del consumo de pornografía entre adolescentes: nuevos retos para la educación afectivo-sexual. *Journal of Research in Social Pedagogy*, (44), 161-175.
- Stanley, N., Barter, C., Wood, M., Aghtaie, N., Larkins, C., Lanau, A., eta Överlien, C. (2018). Pornography, sexual coercion and abuse and sexting in young people's intimate relationships: A European study. *Journal of Interpersonal Violence*, 33(19), 2919-2944.
- Stewart, D. N., eta Szymanski, D. M. (2012). Young adult women's reports of their male romantic partner's pornography use as a correlate of their self-esteem, relationship quality, and sexual satisfaction. *Sex Roles*, 67(5-6), 257-271. <https://doi.org/10.1007/s11199-012-0164-0>
- Tomaszewska, P., eta Krahe, B. (2018). «Predictors of sexual aggression victimization and perpetration among Polish university students: A longitudinal study.» *Archives of Sexual Behavior* 47, 493-505.
- Varnet, T., eta Cartes-Velásquez, R. (2021). Tránsito histórico de la pornografía: de transformaciones hasta la era de internet. *Civilizar: Ciencias Sociales y Humanas*, 22(41), 1-12.
- Villena Moya, A. (2023). *¿Por qué no? Cómo prevenir y ayudar en la adicción a la pornografía*. Alienta.
- Weinstein, A. M., Zolek, R., Babkin, A., Cohen, K., eta Lejoyeux, M. (2015). Factors predicting cybersex use and difficulties in forming intimate relationships among male and female users of cybersex. *Frontiers in Psychiatry*, 6, 54. <https://doi.org/10.3389/fpsy.2015.00054>
- Wright, P. J., Tokunaga, R. S., eta Kraus, A. (2015). A Meta-Analysis of Pornography Consumption and Actual Acts of Sexual Aggression in General Population Studies. *Journal of Communication*, 66(1), 183-205. <https://doi.org/10.1111/jcom.12201>
- Ybarra, M. L., eta Thompson, R. E. (2018). Predicting the Emergence of Sexual Violence in Adolescence. *Prevention Science*, 19(4), 403-415. <https://doi.org/10.1007/s11121-017-0810-4>
- Zattoni, F. Gül, M., Soligo, M., Morlacco, A., Motterle, G., Collavino, J., Barneschi, A. C., Moschini, M., eta Dal Moro, F. (2021). The impact of COVID-19 pandemic on pornography habits: a global analysis of Google Trends. *International Journal of Impotence Research*, 33, 824-831.
- Zimet, G. D., Dahlem, N. W., Zimet, S. G., eta Farley, G. K. (1988). The Multidimensional Scale of Perceived Social Support. *Journal of Personality Assessment*, 52, 30-41.

Aipamen biografikoa

Uxue Llano Abasolo. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), Bilboko Hezkuntza Fakultateko, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Sailean ikerlaria da, zehazki, PSIDES ikerketa taldean. Lehen Hezkuntza graduan eta Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak masterrrean graduatua. Gaur egun Euskadiko nerabe zein gazteen online pornografia kontsumoaren analisia barne hartzen duen doktorego tesia garatzen ari du Psikodidaktika doktorego programaren baitan.

Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/ EHU) Bilboko Hezkuntza Fakultateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Sailean irakasle agregatua da. PSIDES ikerketa-taldearen ikerlari nagusia eta Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak Masterraren zuzendaria da. Ikerketari dagokionez, haurren eta nerabeen depresio eta indarkeria jokatibideen inguruan ikertu du, baita Interneten eta sare sozialen erabilera desegokiak eragiten dituzten ondorioen eta nerabeen online pornografia kontsumoaren inguruan ere. Hainbat artikuluren egilea da, hauetariko asko WOSean indexatutako Q1 eta Q2 aldizkarietan argitaratuak.

MUGIMENDU AUTONOMOA HAUR HEZKUNTZAN: DIZIPLINARTEKO IKERKETA PROIEKTUA

AUTONOMOUS LEARNING IN EARLY CHILDHOOD BILINGUAL EDUCATION: AN INTERDISCIPLINARY PROJECT APPROACH

Maidier Huarte¹, Jone Sagastui, Dorleta Apaolaza, Janire Castrillo,
Regina Guerra, Nagore Martinez-Merino, Miriam Peña-Zabala,
Josune Rodríguez-Negro, Mikel Iruskieta

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Nere Inda

Berritzegunea (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila)

Koldobike Etxabe

Lezo Herri Eskola. Hezkuntza Saila

Laburpena

Proiektu honen helburua da 3 eta 6 urte bitarteko haurren ikasketa sustatzeko Mugimendu Autonomoaren proposamena ikuspegi diziplinartekotik aztertzea. Indarguneak eta hutsuneak identifikatu nahi ditugu, eta hartarako honako fenomeno hauek hartuko dira kontuan: haurren euskarazko komunikazioa aberasteko estrategiak aztertzea, hezkuntza estetiko eta artistikoaren kalitatea ebaluatzea, denbora-, espazio- eta gizarte-nozioak sustatzeko baliabide didaktikoak aztertzea, eta haurren garapen motorra bultzatzeko estrategiak baloratzea. EAEko testuinguru soziolinguistiko ezberdinetako 12 eskola aukeratu dira (6 eremu euskaldunekoak/euskaldunetakoak eta 6 gaztelania nagusi den eremukoak/eremuetakoak). Honako datu-bilketa egin da horretarako: eskoletako dokumentuen analisia, maistrei elkarrizketa sakonak, ikas-ekosistemetako behaketak eta grabazioak, haurrei buruzko deboluzio-bilerak eta maisu-maistrei inkesta sakona. Proiektuaren etorkizuneko emaitzek haurren ikaskuntza-prozesuan protagonismoari, proposamenaren ezarpen-mailari eta ezarpenaren eraginari buruzko informazio sakona eskainiko dute.

Hitz-gakoak: haurra, Mugimendu Autonomia, Haur Hezkuntza, proiektua, ekosistemak.

Abstract

This project analyzes a didactic approach fostering ecosystems for autonomous learning in early childhood (ages 3 to 6) from an interdisciplinary perspective. It identifies strengths and gaps while addressing key objectives: enriching children's communication in Basque, evaluating aesthetic and artistic education quality, analyzing didactic resources for temporal, spatial, and social notions, and assessing motor skill development strategies. Twelve schools from the Basque Country, representing diverse sociolinguistic contexts (6 Basque-speaking and 6 Spanish-speaking), participated. Data collection involved document analysis, in-depth interviews, classroom observations, ecosystem recordings, team debriefing sessions, and surveys. These methods offered insights into implementation, emphasizing the child as the protagonist of their learning process.

Keywords: child, Autonomous Movement, Early Childhood Education, project, ecosystem.

¹ Harremanetarako: Maidier Huarte Abasolo, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Sarriena auzoa, z/g (48940 Leioa). Helbide elektronikoa: maider.huarte@ehu.eus

Sarrera

Mugimendu Autonomoa (MA) proposamen pedagogiko bat da, zeinak helburu duen haurraren garapeneko antolatzaileak (atxikimendua, komunikazioa, esplorazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa) segurtasun afektiboan murgildutako ikas-kuntza edo apendizaiia autonomoa sustatzea, ikaskuntza-espazioak haurrentzat se-guruak diren interakzio-ekosistematan egituratuz, eta haurren beharrak, interesak eta erritmoak errespetatuz. Berritzeguneak azpimarratu duenez, MA Haur Hezkuntzako curriculum (75/2023 Dekretua) garatzeko moduetako bat da. Hainbat korrante peda-gogikoren postulatuetatik dator: *haurra bere ikaskuntzaren protagonista*, Montessorik eta Malaguzzik 1994an defendatzen duten kontzeptua (Hoyuelos, 2013a, 2013b lane-tan aipatzen den bezala); *mugimenduaren garrantzia*, Piklerrek 1984an eta Acouturie-rrek 2004 eta 2018an beren lanetan jasotzen duten moduan; *espazioaren, materialaren eta naturaren garrantzia*, aurretik aipatu diren Montessoriren eta Malaguzziren 1994ko lanetan, (Hoyuelos, 2013a, 2013b lanetan aipatuak) edota Freireren 2015ko ekarpe-nean islatuta dagoen bezala; *haurraren garapena eta erritmoa errespetatzearen garran-tzia*, Wallonen 1976ko eta Choklerren 2010 eta 2017 lanetan azpimarratzen den be-zala; edota *segurtasun afektiboa eta atxikimendua bermatzearen garrantzia*, Bowlbyk 2014an eta Choklerrek 2010 eta 2017an defendatzen duen moduan. Beraz, MA propo-samen eklektikotzat jotzen da (Eusko Jaurlaritza, 2018).

MAren oinarrian eskola-komunitatea osatzen duten pertsonak daude, haurra iza-nik bere ikaskuntzaren erdigunea eta protagonista, bere garapen naturalari jarraituz: egozentrismotik sozializaziora, nia garatzetik hasi eta taldearen garapeneraino. Pro-posamen horren oinarritzko zutabeak 75/2023 Dekretukoak dira: inklusioa, segurtasun afektiboa eta garapenerako autonomia. Hortik ondorioztatzen dira MAn jarraitzen di-ren printzipio hauek: aniztasuna zaintzea, norbera izateko eskubidea, ekitea, sortzaile izatea, ikuspegi kritikoa, talde batekoa izatea eta taldekide aktiboa izatea. MAren prin-tzipioen artean nabarmentzen dira: i) haurraren zaintza, haren garapen harmonikorako beharrezko esku-hartzeetan, ii) ekosistemen estetika, iii) garapen globalerako jolasa, iv) zirkulazio askean garapen egokirako adostutako esku-hartzeak, eta v) haurraren bi-lakaera behatzea eta aztertzea.

Berritzegunea eskola talde txiki batekin eztabaidatzen eta bultzatzen hasi zenean jarri zen martxan MA 2015. urtean, eta eskola horiek borondatez atxiki zitzaizkion pro-posamenari. Hurrengo urteetan, arian-arian hazten joan zen MArekiko interesa agertu zuten eskolen kopurua, eta eskola bakoitzaren erritmoaren arabera ezarri eta garatu zen, hainbat faktorek baldintzatuta: eskoletako zuzendaritzaren laguntza, maisu/mais-tra-taldearen eta eskola-komunitatearen inplikazio-maila, administrazioa, etab. Ha-sierako urte horietan, Berritzeguneak atxikitako eskola bakoitzari aurrez-aurreko ja-rraipena egin zion, astero bertara joanda, eraldaketa pedagogikorako laguntza eta euskarria emateko: espazio berrien diseinua, haurraren ganako begirada aldaketa, alda-keta estetikoak eta ikasgeletako altzarien antolaketa, baliabide didaktikoen berritzea, besteak beste. Hala ere, eskola kopurua handitzen joan ahala, aurrez-aurreko laguntza ez zen bideragarria baliabide faltarengatik, eta arazo horri erantzuteko, eztabaidarako eta prestakuntzarako elkarguneak antolatu zituzten.

Adibidez, *Juntadizoak* deiturikoak sortu ziren, MAn inplikaturako eskolen arteko to-paketa eta esperientzia, zalantza eta ideien trukerako elkargunetzat hartzen direnak.

Topaketa horietan, hainbat lantalde sortu ziren eskolen errealitate eta arazo ezberdinei erantzuteko, MAko ezarpen eta esperientzia mailarekin lotuta: *alfileteroak*, *ehuleak* eta *lehen puntadak*. Gaur egun, MAren garapen mailaren arabera, *Juntadizoetan* bi talde bereizten dira: *Alfileteroak* —MAN hasiberriak diren eskolak— eta *Harituak* —MAN eskarmentu handiagoa duten eskolak—. Talde bakoitzari zuzendutako *Juntadizoetan*, goizez alde teorikoa lantzen da: irakaskuntza-konpetentziak, Haur Hezkuntzako Dekretuaren garapena, ikaskuntza-metodologia, edota gai monografiko baten lanketa. Arratsalde, eskoletara bisitak egiten dira, MAko proposamenak bertatik bertara ezagutzeko asmoz.

Egun, gutxi gorabehera ehun eskolek parte hartzen dute MAN: 33 Bizkaian, 40 Gipuzkoan eta 28 Araban. Zalantzarik gabe, MAK interes berezia pizten du hezkuntza-komunitatean, gero eta maizago entzuten baita MAren berri dutela maisu-maistrek eta Hezkuntza fakultateetako irakasleek zein ikasleek.

UBE proiektuaren hastapenak


MA Euskal Hezkuntza Sistemako hainbat eskola publikoetan lantzen denez eta lanketa foro ugari dituen, proposamen pedagogikoa baino gehiago eraldatzen ari den hezkuntza-prozesu berritzailetzat dugu. Hori horrela, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta, konkretuki, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntza (HH) graduako ikasleek MA ezagutzeko helburuaz sortu zen UBE proiektua 2021-22 ikasturtean martxan jarri genuen. Proiektu honek hiruki baten bidez irudika daitekeen lankidetzak ekarri du —Unibertsitatea, Berritzegunea eta Eskolak—, eta hortik jasotzen du, hain zuzen, bere izena eta UBE laburdura. Zehazki, HH graduako *Berrikuntza Haur Hezkuntzako Eskolan* Minorrean parte hartzen duten diziplina ezberdinetako irakasleak batu eta gauzatu genuen egitasmoa (Peña-Zabala *et al.*, 2023). Egitasmo multidiziplinar horretan, unibertsitateko ikasleek proiektuaren parte diren eskolen beharrianak aztertzen dituzte. Horien arabera eta eskola komunitatearen ikuspegiaz baliaturik, errealitatean oinarritutako proposamena egiten dute ikasle-taldeek. Unibertsitatea eta eskolen arteko elkarlan honen bideratzailea Berritzegunea izan da.

Ordutik hona, lankidetzak hazten eta sakontzen joan da forma ezberdinetan, 2022-23 ikasturtean EHUK hezkuntza arloan IKD³ proiektu berritzaileak (Kodea: IKD323-06) esleitzeko egiten duen deialdian errekonozimendu eta babes ekonomikoa lortu du, lehendabizi. Momentu horren bultzada aprobetxatuz, urte berean Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planen deialdian proiektua aurkeztu eta pausu bat haratago heldu da UBE, ondoren. «Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa ikuspegi diziplinartekotik ikertzen» (Kodea: HEZKUNTZA23/09) izenburupean, Mugimendu Autonomoaren inguruko ikerketa bat aurrera eramateko babesa lortu du bertan aurkeztutako lantaldeak, EHUKo, Berritzeguneko eta eskoletako kideek parte hartzen dutelarik bertan.

UBE Unibertsitate Plana

UBE Unibertsitate Planean onarturiko proiektuaren (aurrerantzean, UBE-UP) helburua MA prozesua zer den ulertu eta eskola zehatz batzuetan nola garatzen ari

den aztertzea da. Asmoa, orain arte eskuratutako ezagutzaz baliatu eta beste urrats bat ematea da; horretarako, batetik, EAEko Hezkuntza Sistemaren parte diren eskolen proportzioa errespetatuz eta, bestetik, testuinguru soziolinguistiko desberdinak barne hartuz, 12 eskola hautatu eta horietan MAREN lanketa ikertzeko datu bilketa egin da.



1. irudia

UBE-UP proiektuaren parte-hartzaileak

Helburuak

Ikerketa honetan MAREN barruan antolatzen diren ekosistemetako ikas-egoeretan sortzen diren interakzioak diziplinarteko ikuspegitik deskribatzeko eta aztertzekeo datuak jasoko dira. Horretarako, MAREN ekosistemak erregistratuko dira eta ebidentzien gainean indarguneak eta hutsuneak identifikatuko dira.

Proiektuan diziplina ezberdinetako ikuspegiak barne-hartzen dira, bakoitzean ondorengo helburu espezifikoak proposatzen direlarik: i) Hizkuntza arloan, profesionalen usteak zein diren eta ekosistema ezberdinetan haurren komunikazio-hizkuntza (eus-kara) aberasteko estrategiak deskribatzea eta atzeraelikadura aztertzea. ii) Arte Hezkuntzan, balio estetikoak eta kalitatezko hezkuntza artistikoa nolakoa den aztertzea. iii) Gizarte arloan denbora-, espazio-, eta gizarte-nozioen garapena sustatzeko espazio eta material didaktikoak deskribatzea eta aztertzea. iv) Motrizitate arloan, haurren garapen-faseak kontuan izanik motrizitate probokazioak lantzeko estrategia eta baliabide didaktikoak aztertzea.

Metodoa²

Proiektuak ikerketa-ekintza-parte-hartzailea metodologiari jarraitzen dio (Kemmis, 2014), eta Berritzeguneko kideak, UPV/EHUko ikertzaile-talde diziplinar-tekoa eta proiektuan lankide zein aztergai diren 12 eskolak osatzen dute ikerketa-taldea. Ikerketa-ekintza-parte-hartzailea Kemmisen arabera (2014) jendartean benetako aldaketak emateko moduetako bat da. Horretarako, ikerketa-faseak proposatu dira, hainbat etapatan bereizitako prozesu ziklikoa planteatuz: «Planning, acting, observing, reflecting and replanning» (Kemmis, 2014).

Parte-hartzaileak

Proiektu honetan MA lantzen ari diren hamabi eskolek hartu dute parte. EAEko Hezkuntza Sistemak lurralde bakoitzean duen eskolen proportzioa zaindu nahi izan da eta horren arabera, Bizkaian 6, Gipuzkoan 4 eta Araban 2 eskola hautatu dira. Testuinguru soziolinguistikoko desberdinetako eskolak barne hartu nahi izan dira: horregatik, hamabi eskola horietatik sei testuinguru erdaldunean kokatuta daude eta beste seiak, berriz, testuinguru euskaldunean.

Tresnak

Ondoren, datu bilketarako erabili den tresna bakoitzaren deskribapena egin eta jasoketa nola egin den zehaztuko da.

Dokumentazioaren bilketa

MA ikastetxearen dokumentazioan nola islatzen den aztertzeke, eskolei proiekturako esanguratsua izan zitekeen informazioa partekatzeko eskatu zaie. Eskolaren dokumentu ofizialez gain, MArekin lotura zuzena duten dokumentuak eskatu zaizkie, hala nola, protokoloak eta ekosistemen arabera diseinatutako ikas-egoerak. Dokumentuen analisirako programen ebaluaziorako oinarriak jarraitu dira (Tejedor, 2000) eta edukien analisi teknikaren bidez aztertuko dira (Rapley, 2014).

MA gela mailan nola gauzatzen den egiaztatzeke, erabaki da arreta hezitzailean eta gela barruko elkarreraginean jartzea. Horretarako bi tresna erabili dira: lehenengoa, el-karrizketa sakona; bigarrena, gelaren behaketa.

Elkarrizketa sakona

Hezitzaileek MAren inguruan dituzten esperientziak eta bizipenak jasotzeko elkarrizketa sakona erabili da. Elkarrizketak erdi egituratuak izango dira, eta gidoi malgu

² Ikerketa-proiektu honek EHUko GIEB etika batzordearen oniritzia dauka (Kodea: M10_2024_005).

bat izango dute, elkarrizketa bakoitzera egokituko dena ikerketa-galderei buruz sortzen ari diren gaiak aztertzeko (Sparkes eta Smith, 2014). Elkarrizketa arina eta eroso izatea bilatuko da, elkarrizketatzaileak gidari lanak egin eta elkarrizketatuak hitz egitea bilatuko du (Valles, 2009). Elkarrizketaren diseinua egiteko MAn marko teorikoan zehazten diren geruzak³ jarraitu dira. Horrela, elkarrizketaren gidoia 4 atal nagusitan banatu da. Lehenengo hiru atalak *profesionalaren eta noranzkoaren eta antolaketaren* geruza multzoei dagokien informazioa eskuratzeko diseinatu dira. Hasteko, maistraren datu orokorrak jaso dira: besteak beste, bere lehen hizkuntza edo bere lan esperimentzia. Elkarrizketaren bigarren ataleko galderak hezitzaileek MAn duten esperientzia jasotzera bideratuta daude: MAn lanean daramatzaten urte kopurua, lan egiten duten ekosistema mota, ekosistemak diseinatzeko prozesua, haurraren ikuspegitik MARI ikusten dizkioten onurak, edota hautematen dituzten indarguneak eta ahulguneak. Azkenik, hirugarren atalean, eskolan MA ezartzeko prozesuan dokumentazioa osatzeko egin behar izan dituzten hausnarketak bildu dira.

Elkarrizketaren laugarren atala *espazioaren* geruza multzoari buruzko datuak jasotzeko diseinatu da. UBE-UP proiektuan parte hartzen duen arlo bakoitzak zortzi galdera inguruko sorta bat prestatu du, hurrengo alderdietan arreta jarritz: ekosistemaren antolaketara, haurrarenenganako begirada, maisu-maistren esku-hartzea, haurren autonomiaren sustapena eta ebaluazio-eboluzioaren behaketa.

Adibide gisa, honako gai hauek landu dira:

- 1. helburua: Egoera komunikatibo ezberdinetan gero eta modu konplexuagoan hitz egiteko, ekosistemak antolatzeko moduak.
- 2. helburua: Arte ekosisteman probokazio proposamen ezberdinak egiteko dituzten erreferenteak edo baliabideak.
- 3. helburua: Gizarte zientzietako ezagutzak ikasketa autonomotik sustatzeko estrategiak
- 4. helburua: Probokazio motorrak egiteko prozedurak.

Hortaz, elkarrizketa egiteko lau gidoi sortu dira: gidoi horien lehenengo hiru atalak komunak dira; laugarren atala, berriz, hezitzailea arduratzen den ekosistema eta bertan lantzen den arloaren arabera da.

Elkarrizketa amaitzean honen transkripzioa egingo da eta jarraian diskurtsoaren azterketa induktiboa egingo da (Rapley, 2014) Lehenengo fasean, transkripzioetan suspertutako gaiak identifikatuko dira, bigarrenetan datuak kodetuko dira eta azterketa-unitateetan sailkatuko dira. Hirugarren eta azken fasean, kategoria ezberdinetan antolatuko dira, ideiekin eta egungo literatura zientifikoarekin erlazionatuz (Taylor *et al.*, 2015).

³ Mugimendu Autonomoan geruza multzoak profesionalaren esku-hartzea antolatzeko egituratzat hartzen dira. Hiru dira geruza multzo nagusiak: *Espazioa*, *Noranzkoa eta antolamendua*, eta *Ni Profesionala*. *Espazioak* haurrari babesa eta, aldi berean, besteekin harremantzeko aukera emango dio. Ikaskuntzarena izateko antolatuko da. *Noranzkoa eta antolamendua* geruza multzoak eskolaren izaera definitzen lagunduko du: oinarritzko dokumentuetatik abiatuz eta esku-hartze bateratuak adostera arte. Azkenik, *Ni profesionalaren* geruza multzoak barne biltzen ditu hezitzailearen ibilbide pertsonal eta profesionala eta horiek bere esku-hartzean izango duten isla.

Ekosistemako grabazioak

Hezitzaileak elkarriketatu ondoren, erreferenteak diren ekosistemak grabatu dira. Grabazioak egin aurretik protokolo zehatza diseinatu da ekosisteman gertatzen diren elkarreraginak ahalik eta gutxien oztopatzeko, MAren oinarriari jarraituz. Protokoloak honako jarraibide hauek ezartzen ditu: maistrak ikertzaileak aurkeztuko ditu ekosisteman sartzekoan, eta haien bisitaren helburua azalduko du. Ikertzaile bat leku finko batean kokatuko da, bestea maistraren eta haurren arteko interakzioa edota berdinen arteko elkarrekintzak grabatzeko mugituko den bitartean. Ikertzaileen eta haurren arteko elkarriketak murriztuko dira, eta ezinbestekoak direnean, ahalik eta laburren izango dira. Irizpide bera aplikatuko zaie helduen arteko elkarriketei. Funtsezko arau gisa, haurrak lanean ari diren bitartean ez da interferentziarik sortuko: entzun, behatu eta itxaroten jakitea da gakoa.

Horrela, haurren jardueraren erregistro sistematikoa egin nahi da beren egunero-kotasunean, parte hartu gabe, eta ohiko jolas-saioak aldatu gabe, MAren prozesu pedagogikoan zehazten den bezala, Pikler behaketara hurbilduz (Mózes, 2016). Horretarako, Anguera *et al.*ek (2018) proposatutako behaketa-metodologiaren jarraibideei jarraituko zaie, behaketaren arazoa eta helburuak definitu ondoren, behaketa-tresna eraikiko da, ondoren erregistratzeko. Horrela, alde aurretik zehaztu da: zer grabatuko den, haurrekiko jarrera nolakoa izango den edota ekosisteman dauden helduekiko nola jokatu den. Grabazio eguna eta tarte eskola eta hezitzailearekin adostu dira. Honenbestez grabazio bidezko behaketa ez zuzena eta ez parte hartzailea gauzatuko da (Flewitt, 2006).

Deboluzio bilerak

MA nola gauzatzen den zehaztasunez deskribatzeko asmoari jarraituz, proiektuan parte hartu duten 12 eskolei behaketa edo ikasleen jarraipena hezitzaile-taldean nola egiten duten erakusteko laginak eskatu zaizkie, hau da, *deboluzio* bileren adibideak partekatzea. *Deboluzio bilera* MA aplikatzen duten eskola guztien funtzionamenduaren gakoetako bat da. Hain zuzen, ekosistemaz-ekosistema mugitzen ari diren haurraren eboluzioaren jarraipena erregistratzeko eta haur bera behatzen duten hezitzaile guztien artean informazioa partekatzeko ezinbestekoak dira.

Inkesta

Datu bilketarako azken teknika, MAn parte hartzen duten eskolei zuzendutako galde-tegi orokorra izan da. Inkesta bost bloketan banatzen da: (1) Maistraren datu orokorrak; (2) Mugimendu Autonomoa: estrategia berritzailea; (3) Mugimendu Autonomoaren ezaugarriak; (4) Mugimendu Autonomoko profesionalaren geruza multzoa; (5) Arloetako galderak.

Inkestaren atalen laburpen taulan (1. taula) islatzen den bezala, atal bakoitzean landutako gaien arabera azpiatalak sortu dira, eta kasu bakoitzean mota desberdinetako galderak diseinatu dira, aukera anitzekoak, edo erantzun irekikoak, hain zuzen.

1. taula

Inkestaren atalen laburpena

	Aukera anitzak	Erantzun irekia	Guztira
Maistraren datu orokorrak	12	3	15
Datu pertsonalak	1	2	3
Esperientzia	5	0	5
Eskola	6	1	7
1. ATALA. Mugimendu autonomoa: estrategia berritzailea	10	3	13
1.1. Berrikuntza proiektuaren hastapenak	3	0	3
1.2. Berrikuntza proiektuaren garapena	6	0	6
1.3. Berrikuntza proiektuaren ekarpenak eta zailtasunak	1	3	4
2. ATALA. Mugimendu Autonomoaren ezaugarriak	11	5	16
2.1. Mugimendu Autonomoaren gauzapena	5	1	6
2.2. Hezitzailea	2	0	2
2.3. Haurra	4	2	6
2.4. Indarguneak eta ahuleziak	0	2	2
3. ATALA. Mugimendu autonomoko profesionalaren geruza multzoa	2	1	3
3.1. Mugimendu autonomoko profesionalaren geruza multzoa	2	1	3
4. ATALA. Arloetako galderak	19	10	29
4.1. Gizarte ezagutzaren lanketa	1	1	2
4.2. Arteak	2	2	4
4.3. Hizkuntzaren trataera geletan eta ekosistemetan	7	5	12
4.4. Psikomotrizitatea eskolan	9	2	11

Inkosten datuen analisiari dagokionez, aldagai kuantitatiboetarako, galdera diko-
tomikoen erantzun guztien maiztasunak eta ehunekoak aztertzeke formulak erabiltzea
aurreikusten da, Likert-5 eskalan. Datu kualitatiboek dagokienez, edukia aztertzeke tek-
nikaren bidez aztertuko dira (Rapley, 2014), modu induktiboan kodetu eta kategoriza-
tuta, eta hainbat dimentsiotan antolatuta.

Prozedura

EAEko eskola desberdinetan egiten ari den MAREN aplikazioa ikertzeke helburuaz,
proiektu hau fase desberdinetan garatu da.

Lehen fasean eskolen dokumentazioaren bilketa egin da eta elkarriketa sakona-
ren diseinua prestatu da. Eskolak bisitatu dira, ikerketa proiektuaren fase ezberdinetan
egin beharrekoak azaltzeke, zalantzak argitzeke eta egitekoak adosteko.

Bigarren fasean, elkarrizketak eta horien grabaketen transkribapenak egin dira. Adimen artifizialean oinarritzen den *Whisper* tresna erabili da azken horretarako. Transkribapenetan egin beharreko zuzenketak eskuz egin dira.

Hirugarren fasean, ekosistemen grabaketak egin dira. Aurretik azaldu bezala, ekosistema bakoitzaz arduratzen den hezitzailearekin adostu da eguna eta grabaketarako tartea. Eskola guztietan grabatu da ekosistema horretako jardun osoa, hau da, ekosistemaren irekieratik itxiera bitartekoa. Grabaketa horiek VEO softwarearekin etiketatu eta aztertuko dira (Hormaetxe eta Iruskiet, 2020).

Fase honetan *deboluzio bileren* laginak ere batu dira. Lagin hauek bi formatutan jaso dira: audioz, eskola batzuetan bilerak grabatzea erabaki dutelako; eta idatziz, beste batzuetan, berriz, bileraren akta bidaltzea erabaki dutelako.

Laugarren fasean, inkestaren diseinuari ekin zaio. Inkesta *Microsoft Forms* programa erabiliz sortu da eta Berritzeguneak MAN ari diren EAEko eskola guztietara zabandu du.

Emaitzak

Hurrengo lerroetan, jasotako datuen azaleko azterketa aurkeztuko da, datuak biltzen amaitu arte ezin izango baitira zehaztasunez deskribatu.

Eskolek bidalitako dokumentazioak hainbat galderei erantzungo die: eskolaren izaera zein den, komunitatea nolakoa den, familiekin bilerak nola eta ze maiztasunarekin egiten diren, hezitzaileen koordinazioa nola egiten den, beste batzuen artean. Informazio hori eskoletako dokumentu ofizialetan jasota dago, hala nola: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Ikasturteko Plana, Erabaki Curricularrak, metodologikoak eta ebaluazio erabakiak, Irakurketa Plana eta Hizkuntza Proiektua, besteak beste.

Eskolak bidalitakoen artean, badaude MAren gauzatzea zehatzago azaltzen duten dokumentuak: urteko programazioak eta protokoloak. Dokumentu hauen analisiak berebiziko interesa dauka programazioetan ekosistemen antolaketa (taldekatzea, espazioaren banaketa...) deskribatzen delako, eta protokoloetan proiektuaren transmisioa eta egonkortzea ahalbidetuko duten esku-hartze bateratuak jasotzen direlako.

Bildutako dokumentazioaren azaleko lehen azterketaren arabera ondorioztatu daiteke berrikuntza prozesu honetan eskola bakoitza dekretu berrira egokitzeko fase ezberdin batean dagoela. Hezitzailearen esku-hartzea ($n = 10$) edota zaintza nola bideratu jasotzen duten protokoloak ($n = 9$) garatuen dauden dokumentuak dira; hala ere, eskolak protokolo horiek aurrera eramango dituzten ikas-egoeren diseinuan murgilduta daudela ikus dezakegu (eskola bakar batek dauzka ikas-egoera horiek deskribatuta eta partekatzeko moduan).

Horrez gain, MAren gauzatzea eskola bakoitzaren bereizgarrietan oinarritzen dela egiaztatu daiteke. Haurrak taldekatzeko askotariko moduak daude (mailaka ($n = 5$), 3-4-5 urtekoak nahastuta ($n = 4$), 4-5 urtekoak nahastuta ($n = 3$)). Eskola guztietan lantzen dira hizkuntza, artea, zientzia-matematika eta gizarte zientziekin lotutako konpe-

tentziak ekosistema ezberdinen bitartez. Aldiz, beste arlo batzuen lanketa (hala nola, musika, motrizitatea, edo atzerriko hizkuntza) eskolaren arabera integratzen dira MAn.

Arlo hauek lantzeko eskaintzen den ekosistema kopurua eskolak dituen baliabideen eta antolamenduaren arabera da: 2 ekosistema ($n = 2$); 3 ekosistema ($n = 5$); 4 ekosistema ($n = 2$), 5 ekosistema ($n = 2$), 6 ekosistema ($n = 1$).

Elkarrizketek 32 eta 85 minutu bitartean iraun dute eta guztira, 13 orduko corpusa osatzen dute. Aurretik aipatu den bezala, elkarrizketa horietan partekatutakoek ekosistemak antolatzeko erabiltzen diren geruzetan sakontzeko (espazioa, eskolaren antolamendua eta profesionala) aukera emango dute. Gainera, elkarrizketatutako 12 hezitzaileek Haur Hezkuntzan esperientzia handia dute (0-10 urte: $n = 3$; 11-20 urte: $n = 4$; 21-30 urte: $n = 4$; 31-40 urte: $n = 1$). Sarreran azaldu den bezala, MA prozesu berritzaile modura orain dela 9 urte hasi zen zenbait eskoletan. Elkarrizketatutako hezitzaileek Haur Hezkuntzan daukaten ibilbide luzeak MAren ezarpen prozesuaren inguruko hausnarketan bestelako esperientziekin alderaketak egitea ekarriko dituela espero da, prozesu berritzaile horren analisia aberastuz.

Ekosistemen grabazioei dagokienez, eskolen errealitatea kontuan hartu da. MAren erpin ezberdinak jasotzeko asmoz, ekosistemen irekieratik itxiera arteko grabaketak egin dira hezitzailearen esku-hartzean arreta jarritz. Guztira, 15 orduko corpusa osatu da. Grabatutako ekosistemak ondoko hauek dira: zientzia-matematikaren ingurukoak ($n = 4$; guztira 6h20'); artea ($n = 3$; guztira 4h29'); hizkuntza ($n = 2$; guztira 1h17'); motrizitatea ($n = 1$; guztira 43'); gizarte ($n = 2$; guztira 2h29').

Eskola bakoitzean grabatutakoaren erregistroa egin da. Erregistro horietan, atal desberdinak bereizten dira: grabazio eguna, gailu bakoitzarekin grabatutako bideoen zerrenda, gertatutako intzidentziak eta grabazioan agertzen diren jardura desberdinen laburpena: haurren jolasak edo jarduerak, espazioen antolaketa eta hezitzailearen esku-hartzeko modua egoera ezberdinetan, garrantzitsuenak aipatzearen.

MA ikasle bakoitzaren jarraipena bermatzeko eskoletan egiten diren *deboluzio bileren* laginak jaso dira. Hain zuzen, eskola bakoitzean grabatu den ekosistemarekin lotutako behaketa txantiloiak edo *deboluzio bileren* nondik norakoak jasotzeko eta bidaltzeko eskatu zaie. Informazioa era askotakoa da: ekosistemako espazioen antolamenduari lotutako kezkak edo berrantolatzeko proposamenak, haur jakin baten edo batzuen eboluzioaren jarraipena, ekosisteman zentratutako probokazio desberdinen proposamena edota eztabaida. Sakon aztertzea izango da hurrengo egitekoa.

Azkenik, inkesta bidezko datu bilketa oraindik itxi gabe dagoen arren, badirudi elkarrizketetan eta dokumentazioaren azterketan atzematen diren zenbait joera berretsiko direla. Elkarrizketarekin gertatzen den bezala, inkesta erantzun duten parte-hartzaileek esperientzia luzea daukate Haur Hezkuntzan: laginaren ia erdiak 10-19 urte bitarteko ibilbidea dauka eta beste erdiak 20 urte baino gehiagokoa. Eskolan duten ardurari dagokionez: bi heren maisu-maistrak dira, hau da, gelako errealitatean murgilduta daude; horrez gain, badaude berrikuntzaz arduratzen direnak eta zuzendaritza taldeko kideak direnak ere. Irudikatutako eskolek MAren ezarpenean eta gauzatzean duten esperientzia ere aipatzeko modukoa da: eskolen hiru bostenak MAn *bidea* egin du dagoeneko, bosten batek dio, MA ezarrita egon arren, guztiz garatu barik dagoela; eta falta den bostenak, MAren hastapenetan dagoela dio.

Eztabaida

Lan honen bitartez MAren gauzapena deskribatzeko eta aztertzeko diseinatu dugun proiektua aurkeztu nahi izan dugu. Datu bilketa amaitzeke dagoela, erabilitako tresna aniztasunak MA prozesu berritzailearen ezaugarritze zehatza egiteko aukera emango duela uste dugu. Dokumentaziotik abiatuta, ikastetxearen ezaugarri propioek MAren ezarpenean nolako eragina duten ezagutzea espero dugu. Hezitzaileen esku-hartze bateratuak zeren arabera eta nola planifikatzen diren ulertzea espero dugu. Esku-hartzeen ebaluatzeko moduak eta irizpideak identifikatzea espero dugu. Era berean, esku-hartze horiek haurren garapen harmonikoa nola sustatzen duten eta aldi berean, diziplinarrekotasunetik abiatuta, hezitzaile eta haurren arteko interakzioak deskribatzea eta aztertzea espero dugu.

Erreferentziak

- Acouturier, B. (2004). *Los fantasmas de la acción y la práctica psicomotriz* (Vol. 7). Graó.
- Acouturier, B. (2018). *Actuar, jugar, pensar: puntos de apoyo para la práctica psicomotriz educativa y terapéutica* (Vol. 45). Graó.
- Anguera, M. T., Blanco-Villasenor, A., Losada, J. L., eta Portell, M. (2018). Pautas para elaborar trabajos que utilizan la metodología observacional. *Anuario de psicología*, 48(1), 9-17.
- Bowlby, J. (2014). *Vínculos afectivos: formación, desarrollo y pérdida. Edición renovada*. Ediciones Morata.
- Chokler, M. (2010). El concepto de autonomía en el desarrollo infantil temprano, coherencia entre teoría y práctica. *Aula de infantil*, 53, 9-13.
- Chokler, M. (2017). *La aventura dialógica de la infancia*. Ediciones Cinco.
- Eusko Jaurlaritz. (2018). *Haur Hezkuntza oinarri*. <https://www.hhoinarri.net/>
- Flewitt, R. (2006). Using video to investigate preschool classroom interaction: Education research assumptions and methodological practices. *Visual communication*, 5(1), 25-50.
- Freire, H. (2015). *Berdean hezi: haurrak naturara hurbiltzeko ideiak*. Txatxilipurdi.
- Hormaetxe, G., eta Iruskieta, M. (2020). Parekoen behaketaren bidez komunikazio-gaitasuna ebaluatzen: zer dute nahiago ikasleek, errubrika tradizionala ala bideo-behaketa. *Hizpide: helduen euskalduntzearen aldizkaria*, 38(96), 5.
- Hoyuelos, A. (2013a). *La estética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi*. Octaedro.
- Hoyuelos, A. (2013b). *La ética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi*. Octaedro.
- Kemmis, S. (2014). *The Action Research Planner: Doing Critical Participatory Action Research*. Springer.
- Montessori, M (1994). *Ideas generales sobre el método: manual práctico*. CEPE Editorial.
- Mózes, E. (2016). La observación en la Pedagogía Pikler. *RELAdEi (Revista Latinoamericana de Educacion Infantil)*, 5(3), 27-35.
- Peña-Zabala, M., Martinez-Merino, N., eta Iruskieta, M. (2023). UBE: Hezkuntza komunitatea elkarerraginean. In A. Romero, I. Alonso, A. Urrutia, M. Gezuraga, N. Berastegi, eta N. Idoiaga (Arg.), *Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria: La experiencia de la Facultad de Educación de Bilbao, UPV/EHU (2011-2021)* (pp. 49-60). Octaedro.

- Pikler, E. (1984). *Moverse en libertad: desarrollo de la motricidad global*. Narcea Ediciones.
- Rapley, T. (2014). *Los análisis de la conversación, del discurso y de documentos en Investigación Cualitativa*. Morata.
- Sparkes, A. C., eta Smith, B. (2014). *Qualitative research methods in sport, exercise and health: From process to product*. Routledge.
- Taylor, S. J., Bogdan, R., eta DeVault, M. (2015). *Introduction to qualitative research methods: A guidebook and resource*. John Wiley & Son.
- Tejedor, F. J. (2000). El diseño y los diseños en la evaluación de programas. *Revista de investigación educativa*, 18(2), 319-339.
- Valles, M. S. (2009). *Entrevistas cualitativas*. CIS-Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Wallon, H. (1976). *Los orígenes del pensamiento en el niño I*. Nueva Visión.
- 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintzariaren Aldizkaria*, 109, 2023ko ekainaren 9koa. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302727e.shtml>

Aipamen biografikoa

Maidier Huarte. Ingeles Filologian lizentziatua da (1998, Deustuko Unibertsitatea) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian doktorea (2007, UPV/EHU). Begoñako Andra Mari (BAM) Irakasleen Unibertsitate Eskolan irakasle titularra izan zen 2007tik 2021era. Gaur egun UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktorea da Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, Bilboko Hezkuntza Fakultatean. ELEBILAB (UPV/EHU) ikerketa-taldeko kidea da; bere ikerketa ildoak hauexek dira: euskararen jabe-kuntza eta garapen prozesua bai etxean bai eskolan.

Nere Inda. Haur Hezkuntzan diplomatua da (MU, 2001) eta Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatua (MU, 2004). Horrez gain, Entzumena eta Hizkuntza masterra egin du (MU, 2004). Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hezitzaile gisa aritu ondoren, egun Berritzeguneko Haur Hezkuntza ataleko arduraduna da.

Jone Sagastui. Haur Hezkuntzan graduatua eta Psikodidaktikan Doktorea da, Euskal Herriko Unibertsitatean. «Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa ikuspegi diziplinarrekotik ikertzen» proiektuko ikertzaile kontratatua, eta KalitatHEZ hausnarketa eta ikerketa taldeko kidea da. Haur Hezkuntza eta, konkretuki, hezkuntza goiztiarra da bere ikerketa-ildo nagusia, hezkuntza-ingurune goiztiarren kalitatea bermatzen duten aldagaiak aztertzeaz arduratzen delarik, behaketa-metodologiaren bidez nagusiki. Zentzu horretan, zenbait artikulu zientifiko eta liburuetako kapitulu argitaratu ditu, estatu mailako zein nazioarteko hainbat kongresutan parte hartu du eta ikerketa-egonaldi bat egin du Temple Unibertsitateko (Estatu Batuak) Infant and Child Laboratory ikerketa taldean. ORCID: 0000-0003-2976-9887.

Koldobike Etxabe. Haur Hezkuntzan diplomatua, Haur Hezkuntzako eskoletan ibili da lanean azken urteotan. Mugimendu Autonomoa hastapenetatik ezagutzen du. «Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa ikuspegi diziplinarrekotik ikertzen» proiektuko ikertzaile kontratatua izan da.

Dorleta Apaolaza. Artearen Historian lizentziatua eta Historian doktorea UPV/EHU. Gaur egun irakasle agregatua da Arabako Campuseko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean. UPV/EHUko Map of Positive Experiences across Europe (EU+MAP) (2022-1-DE02-KA220-ADU-000086496) proiektuaren lantaldeko ikertzaile nagusia da. Proiektuaren helburua da hizkuntza ikasteko material eta metodologia berritzaileak sortzea ikuspegi positibo eta hurbilagotik, migratzaileen hizkuntza- eta gizarte-ikaskuntza hobetzeko asmoz.

Janire Castrillo. Historian doktorea da (UPV-EHU, 2016) eta Gizarte Zientzien Didaktika arloko UPV/EHUko irakaslea da egun. Erdi Aroko euskal emakumeen Historiari buruzko doktorego tesia burutu zuen eta gaiari buruzko zenbait argitalpen egin ditu. Azken urteetan, bere ikerketa ildoak Historiaren Didaktikarekin lotuta egon dira, hezkidetzak toki nabarmena izan duelarik.

Regina Guerra. Doktorego tesiak ARTIKERTUZ ikasketa komunitatearen jarraipena egiten du (EHU15/24): *Adierazpen artistikoa birpentsatzea Unibertsitatea-Irakaskuntza praktika eraldatzeko eskola erlaziotik: ikuspegi narratiboa (2015etik 2017ra)*. ELKARRIKERTUZ talde egonkortutako kidea da 2013z geroztik. Hezkuntza eta arteen ikerketarekin zerikusia duten nazioko eta nazioarteko kongresu askotan parte hartu du eta bere argitalpenak gai horiekin lotutakoak dira.

Nagore Martinez Merino. Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua (2013) eta doktorea (2018) eta egun, Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko irakasle agregatua da Bilboko Hezkuntza Fakultatean (UPV/EHU). AKTIBOKi: Jarduera fisikoa, ariketa fisikoa eta kirola ikertzeko

taldeko zein Gizartea Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldeko (GIKAFIT) kide da, baita «LGBTI, heziketa fisikoa eta kirola» ikerketa-sareko kidea. Ikertzaile gisa dituen interesen artean, ikerketa kualitatiboa, hezkuntza eraldatzailea, gorputz-hezkuntza, genero-ikuspegia eta biztanleria zaurgarriaren jardura fisikoaren ingurukoa da.

Miriam Peña Zabala. Arte Ederretan doktorea da (2019) eta gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko irakasle agregatua da. ELKARRIKERTUZ ikerketa talde egonkortuko kidea da. Bere interesen artean arte-hezkuntzaren arloa dago, bereziki Ikaslea eta Arte Hezkuntzaren arteko harremana.

Josune Rodríguez-Negro. Lehen Hezkuntzako graduatua da Heziketa Fisikoko aipamenarekin (2014) eta Ariketa Fisikoan eta Kirolean doktore internazionala (2020). Maistra funtzionarioa da, eta egun, Heziketa Fisiko eta Kirol Saileko irakaslea da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (UPV/EHU). Ikertzaile gisa, 70 argitalpen baino gehiago argitaratu ditu, liburuak, artikuluak eta liburu-kapituluak barne. Berrikuntzarekin eta heziketa fisikoarekin lotutako hainbat ikerketa-taldetako kidea da. Bere ikerketa ildoak heziketa fisikoa, metodologiak, berrikuntza eta ariketa fisikoa dira. ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-6262-7210>

Mikel Iruskieta. Irakasle agregatua da Bilboko Hezkuntza Fakultatean (UPV/EHU), Euskal Filologian eta Filosofian lizentziatua eta Euskal Filologian lortu du doktore titulua. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika sailean (UPV/EHU) dihardu 2008tik. IXA ikertaldean ari da (2004tik), baita HITZ institutoan (2019tik) eta Euskara Institutuan (2022tik). Bi seiurteko ditu eta argitalpen gehienak eskuragarri daude hemen: <http://ixa.si.ehu.es/node/1394/74>. IP honako proiektuetan «Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa ikuspegi diziplinartekotik ikertzen» (HEZKUNTZA23/09) EJ finantzatua eta UBE-IKD³ (IKD323-06) EHUK finantzatua. ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-6121-3902> Research ID: <https://www.webofscience.com/wos/author/record/41661237>.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK ETA BIGARREN HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA: LITERATURA AKADEMIKOAREN ERREBISIO BAT

A REVIEW OF THE ACADEMIC LITERATURE: THE POTENTIAL FOR STUDENTS WITH SPECIAL EDUCATIONAL NEEDS TO ACQUIRE A SECOND LANGUAGE

Ane Olmedillo-Berasategi¹, Mikel Gartziaarena, Leire Ugalde

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Mundu mailako egungo erronketako bat guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa lortzea da. Haatik, jakin badakigu ikasleen ehuneko oso altu batek bigarren hizkuntzan (H2n) burutzen dituela ikasketak; beraz, ezinbestekoa bezain garrantzitsua da H2 horretan ikasle guztien hizkuntza-gaitasun egokia ziurtatzea. Nahiz eta azterlan batzuk gai horri heldu dioten, oso arreta gutxi ipini da H2n ikasteaz gain Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleengan. Gaiaren inguruan gehiago sakontzeko, literaturaren azterketa sistemikoa egin da. Hori horrela, guztira 14 artikulua sakon aztertu dira. Azterketa sistematiko horren ondorioek aipatutako erronka hobeto ulertzea ahalbidetu dute.

Hitz-gakoak: Hezkuntza Laguntzarako Berariazko Premiak; Bigarren Hizkuntza; inklusioa; hezkuntza formala.

Abstract

One of the foremost challenges at the global level is the attainment of quality and inclusive education for all. However, it is essential to recognize that a significant percentage of students have completed their studies in a second language (L2). Consequently, ensuring the development of proficient language skills in this second language is as important as it is necessary for all students. While some research has addressed this issue, there remains a notable gap in the literature regarding students who, in addition to studying in a second language, also have Specific Educational Support Needs (NEAE). To further investigate this topic, a systematic literature review was conducted. A total of 14 scholarly articles were examined in depth. The conclusions drawn from this systematic analysis contribute to a more nuanced understanding of the aforementioned challenge.

Keywords: Special Educational needs, Second language learning, inclusion, formal education.

¹ Harremanetarako: Ane Olmedillo Berasategi, Saila, Didaktika eta Eskola Antolakuntza, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
Helbide elektronikoa: aolmedillo001@ikasle.ehu.eus

Sarrera

Gaur egun, nazioartean onartuta dago ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidea ziurtatzen dien eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzen dien hezkuntza sistemaren aldarria. Hain zuzen ere, guztiontzat hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa eskaintzeak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako helburuak lortzen laguntzen du.

Hezkuntza kalitatezkoa izateko, ikaskuntza eraginkorra ahalbidetzea lortu behar da. Hots, ikasle guztiek salbuespenik gabe gaur egungo erronkei erantzuteko beharrezko diren trebetasun eta konpetentziak ikasi nahiz menderatzen dituztela ziurtatu beharra dago. Jakin badakigu, ordea, eskolan erabiltzen den hizkuntza ezinbestekoa dela ikaskuntza eraginkorra izan dadin. Izan ere, irakas prozesuan erabiltzen den hizkuntza ikasleak ondo menperatzen ez duenean, oztopo nabaria izan daiteke bere ikaskuntza prozesua modu egokian garatu dadin (UNESCO, 2016). Beraz, hezkuntza prozesuetan erabiltzen den hizkuntza menderatzea ezinbestekoa izanen da arestian aipatutako kalitatezko hezkuntza inklusiboa ahalbidetzeko. Nazioarteko azterlanek, ordea, argi utzi dute eskubide horren lorpena oztopatzen dela kalteberenak diren kolektiboetan, hala nola, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleen artean (Europako Batzordea, 2021).

Oinarri teorikoa

Egun, mundu mailan kalitatezko hezkuntza inklusiboan ardaztutako hezkuntza sistemaren aldarriak goraldia izan du. Horren adibidea dira Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko helburuak (Nazio Batuen Erakundea, 2022). Zehazki, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Agendan jasotako Garapen jasangarrirako laugarren helburuak azpimarratzen du beharrezkoa bezain ezinbestekoa dela kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea eta guztiontzat etengabeko aukerak sustatzea. UNESCOk (2008) nabarmentzen du inklusioa prozesu bat dela, zeinak berezko ezauzgarri dituen parte-hartzea areagotzea eta segregazioa eta alienazioa prebenitzea. Inklusio prozesua Salamancako Adierazpena argitaratu aurretik hasi bazen ere, denbora igaro da ikuspegi inklusiboa politiketan nahiz ikasketa-planetan sartu zenetik (Keles *et al.*, 2022).

Hezkuntza inklusiboa eskubide unibertsal gisa onartzera eraman zuen ibilbidea ez da ez laburra ez erraza izan. Denboraren poderioz desgaitasunari buruz sortu diren erantzun ereduak eta kontzeptualizazioek balio dute gainditu behar izan diren oztopoen lekukotza gisa, era guztietako aniztasunari helduko dion ikuspegi inklusiboa ezartzeko. Oztopo horien ondorioz, HPBak dituzten ikasleek emaitza akademiko txikiagoak lortzen dituzte.

Hori horrela, jakina da ikasle horiek emaitza akademiko okerragoak lortzen dituztela eta indarkeria eta eskola-uzte goiztiarra pairatzeko arrisku handiagoa dutela (Europako Batzordea, 2021). Ondorioz, gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiagoa dute, eta are beharrezkoago bihurtzen du ikasle horien inklusioa gauzatzen lagunduko duten formulak aurkitzea, beren arrakasta akademikoa eta soziala bermatzeko.

Azken hamarkadetan, eskoletan gertatu den aniztasun linguistiko eta kulturalaren gorakadak egoera korapilatzen du. Izan ere, UNESCOren (2016) arabera, munduko ikasleen % 40k jasotzen duen hezkuntza ez da etxeko hizkuntzan oinarritzen eta, horrek beraien ikaskuntza emaitzetan modu negatiboan eragin dezake. Egoera hori areagotu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn). EAEn, ikasleen % 68 D ereduan matrikulatuta badago ere (EUSTAT, 2023), kontuan hartu behar da 5-15 urte bitarteko haurren % 17,7k bakarrik duela euskara H1 gisa eta soilik familien % 12,9k erabiltzen duela normalean etxean (Eusko Jaurlaritza, 2023). Jakin badakigu eskolan erabiltzen den hizkuntza, edukiak behar bezala ikasteko ezinbesteko tresna dela, eta hori ondo menperatzea ezinbestekoa dela ikasleen arrakasta akademikoa ziurtatzeko (Santiago-Garabieta *et al.*, 2021). Ondorioz, argitu beharra dago nola erantzun behar zaien euskara H2 gisa duten eta HPBko ezaugarriak dituzten ikasleen kasuei, H2ren ikasketa modu eraginkorrean gerta dadin eta emaitzetan ez dezan negatiboki eragin.

Metodoa


Berrikuspen sistematikoa PRISMA estandarren arabera diseinatu da (Tricco *et al.*, 2018) ikerketaren gardentasuna, baliozkotasuna, erreplikagarritasuna eta eguneragarritasuna bermatzeko (Moher *et al.*, 2009). PRISMAren adierazpenak hainbat jarraibide eskaintzen ditu, ikerketa-prozesuaren zehaztasuna eta emaitzen erabilgarritasuna bermatzeko.

Bide horri jarraituz, berrikuspen sistematiko honek honako galdera honi erantzun nahi dio: HPBak dituzten ikasleek H2 ikas dezakete?

Hori horrela, honako lan honetan HPBak dituzten ikasleen kolektiboan Eusko Jaurlaritza-k (2020) talde horretan zehazten dituenak aintzat hartu dira. Zehazki, honako hauek: ikusmen desgaitasuna, entzumen desgaitasuna, desgaitasun motorikoa, desgaitasun intelektuala, Autismoaren Espektroaren Nahasmendua (AEN) eta Hizkuntza Garapenaren Nahasmendua (AEN).

Esplorazio-plana eta azterketa-etapa, bereziki galdera erantzugarri baten identifikazioa eta inklusio- eta bazterketa-irizpideen garapean oinarritzen zen, Gough eta Thomasek (2016) hezkuntza-ikerketako berrikuspen sistematikoen arloan egindako ekarpenetan oinarritutakoa.

1. irudian, bilaketa- eta hautaketa-prozedurak deskribatzen dituen fluxu-diagrama ikusten da. Ikerketa-estrategia Web of Science (WoS) eta Scopus datu-baseak erabiliz egin zen, bi eragin-faktore ezagunenetan indexatutako aldizkariak biltzen dituztelako, Web of Scienceko SSCI eta Scopuseko SJR (Ruiz-Eugenio *et al.*, 2023).



Iturria: Khalfaoui et al. (2021) ikerlanean oinarritua.

1. irudia

PRISMA fluxu-diagrama, bilaketa- eta behaketa-prozesurako

Hautaketa aztertzea: barneratze-eta baztertze-irizpideak

Burututako errebisio sistematikoa artikulu honen helburua gainditzeko xede nagusi batekin egin zen. Haatik, honako artikulu honetan xede orokor horren atal zehatz batean zentratu gara. Alegia, arestian aipatutako galderaren erantzuna bilatzea izanen da artikulu honen helburu nagusia.

Gauzak horrela, errebisio sistematikoaren xede nagusia hezkuntza-giro inklusi-boan premia bereziak dituzten ikasleen eta H2ren ikaskuntzan laguntzen duten elementuak aztertzea izan zen. Hori horrela, ikerketak hautatzeko irizpideak honako hauek izan ziren (ik. 1. taula): (1) 2007 eta 2023 urteen bitartean argitaratutako argitalpenak, (2) ikuspegia 2 eta 18 urte bitarteko ikasleengan jartzen dutenak, (3) ikerketa hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleen bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan zentra-

tzea eta (4) H2ren ikaskuntzan inpaktu positiboarekin erlazioa duten alderdiak, jomuga izanik hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

Baztertu egin ziren ingurune ez-naturalistetan egindako azterlanak, hala nola laborategietan, etxeetan edo haur-parkeetan egindakoak. Zehazki, azterketan sartutako ikasketak gela erregularretan egindakoak ziren, eta, horren ondorioz, 14 artikulua hautatu ziren azken analisirako. Horiek guztiek aipatutako barneratze irizpide guztiak betetzen zituzten.

1. taula

Artikuluen onarpen eta bazterketa irizpideak

Irizpideak	
Onarpena	2007 eta 2023 urteen bitartean argitaratutakoak.
	2-18 urte bitarteko ikasleak.
	Inpaktu positiboa dutenak H2 ikasteari buruz HLPBak dituzten ikasleengan.
Bazterketa	Ikerketaren fokoa ez bazen 2Hren ikaskuntza eta HLBPak dituzten ikasleak.
	Parte-hartzaileengan inpaktu positiborik ez.
	Ez bazen 2-18 urte bitarteko eskola-adinean zentratzen.

Ikerketa prozesua

Ikerketa prozesuari dagokionean, hasiera batean, bilaketa zabala egin zen Scopus eta Web of Science (WoS) datu-baseak erabiliz, 9 hitz eta esaldi konbinatuz: *Special needs, disabilit**, *special educational needs, second language learning, second language acquisition, additional language learning and inclusion*.

Hitz-gako horiek Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Erakunde Nazional Unescoren (UNESCO) Tesauroarekin alderatu ziren haien sendotasuna bermatzeko (Gough and Thomas 2016).

2. taula

Bilaketan egindako hitz konbinazioak

Terminologia		
Special needs	Second language learning	Inclusion
Special needs	Second language acquisition	Inclusion
Special needs	Additional language learning	Inclusion
Disabilities (disabilit*)	Second language learning	Inclusion
Disabilities (disabilit*)	Second language acquisition	Inclusion
Disabilities (disabilit*)	Additional language learning	Inclusion
Special educational needs	Second language learning	Inclusion
Special educational needs	Second language acquisition	Inclusion
Special educational needs	Additional language learning	Inclusion

Bilaketak egin aurretik, hiru iragazki aplikatu ziren bilatzailean: a) eremu-iragazkia, aurkitutako azterlanen egokitasuna bermatzeko «hezkuntza- eta hezkuntza-ikerketa» gisa zehaztu zena; b) datuen iragazkia, 2007 eta 2023 arteko argitalpenetara mugatzeko ezarri zena, azterlanen egokitasuna bermatzeko; c) dokumentu-mota, aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikulak baino ez diren aldetik, ez ziren aintzat hartu liburu-kapituluak, txostenak edo konferentzia-jarduerak; kontrara, inpaktu duten ikerketak aintzatetsi ziren.

Datuak analizatzeko eta grafikoki aztertze prozesua

Hautatutako 14 artikuluetako bakoitza sakon aztertzean, sistematika zorrotza erabili zen. Lehenik eta behin, taula bat sortu zen diseinu metodologikoa, herrialdea, parte-hartzaileen profilak eta esku-hartze testuingurua identifikatzeko. Ondoren, artikulak diseinatze kategoriak zehaztu ziren. Katetoria horien artean, garrantzi handia izan du inpaktu positiboak. Alegia, parte-hartzaileengan hobekuntza-eragin argiren bat izan duten artikulak zientifiko hantaketak.

Emaitzak

Burututako literaturaren errebisioak hainbat emaitza ahalbidetu ditu. Lortutako emaitzen artean, oraingo honetan, soilik honako galdera honen erantzuna ahalbidetu duten emaitzetan zentratuko gara: HPBak dituzten ikasleek H2 ikas dezakete? Hain zuzen ere, bilaketan egindako hitz konbinazioak aintzat hartuta, artikulak honek helburu zehatz horri erantzun nahi dio.

Galdera horri erantzuteko topatzen dugun lehen oztopoa da gaiaren inguruko argitalpen kopurua mugatua dela. Hezkuntza-ingurune eta programa ezberdinetan HPBak dituzten haur elebidunei buruzko ikerketa gutxi jaso ahal izan da berrikusketan, litekeena baita horiek hezkuntza-ingurune batzuetan soilik sartzea (Bird *et al.*, 2016). Hala ere, Bird *et al.*-en (2016) arabera, aintzat hartu behar dugu H2 ikastea, batzuetan aukera bat den arren, maiz eskubidea dela, eta, beraz, errespetatu egin behar dela. Hori errebi-sioko emaitza esanguratsuenetariko bat ere bada.

Pesco *et al.*-ek (2016) AEB, Canada, Erresuma Batuko zein Herberetako zenbait dokumentu nahiz ikerketa berrikusi ondoren, honako hau ondorioztatu zuten: HPBak dituzten haurrak hizkuntza bat baino gehiago ikastea gai dira. Hala ere, ezagutza mugatua dago HPBak dituzten haurrek bizi dezaketen elebitasun eta elebitasun modu espezifikoa lortzeko dituzten aukerei buruz (Pesco *et al.*, 2016).

Horren harira, Peker eta Regallek egindako ikerketa batean (2021), parte-hartzaile guztiek erakutsi zuten H1ean hiztegia handitu egin zela, eta horrek kontraesanean jartzen du H2ren esposizioak H1arekiko interferentzia eragin dezakeela HPBak dituzten ikasleengan. Gainera, HPBak dituzten ikasleek hizkuntza berri baten ikaskuntza arrakastatsua esperimintatu dezakete H2rekin nahasteko edo interferentzia izateko beldurrik gabe (Peker eta Regalla, 2021). Hezkuntza elebidunari eta atzerriko hizkuntzei buruzko hainbat hamarkadetako ikerketek erakutsi dute H2 ikasteak ikaslearen erren-

dimendu akademiko orokorra eta alfabetatze-trebetasunak hobetzen dituela H1ean (Regalla eta Peker, 2015).

Aitzitik, Pesco *et al.*-en (2016) arabera, argi dago HPBak dituzten haurrek —hala nola, autismoa, adimen urritasuna edo hizkuntza garapenaren nahasmendua— ez dutela beren hizkuntza-erronka areagotzen bi hizkuntza eskuratzean; bereziki, hizkuntza bakoitzaren esposizioa nahiko orekatua denean. Elebitasuna ere mesedegarria izan daiteke ezaugarri horiek dituzten haurrentzat, elkarreragin sozialerako aukerak eta zerbitzuetarako sarbidea zabaltzen baititu (Pesco *et al.*, 2016). Hain zuzen, garapen tipikoa duten haurren ikerketek erakutsi dute elebitasunak ez duela hiztegiaren garapen goiztiarra geldiarazten (De Houwer *et al.*, 2014) eta eragin positiboak dituela trebetasun kognitiboetan, hala nola funtzio exekutiboan (Barac eta Bialystok, 2012; Poulin-Dubois *et al.*, 2011).

Azken urteotan, Hizkuntzaren Nahasmendua duten haurrei, dislexia duten haurrei, Down sindromea duten haurrei zein Autismoaren Espektroaren Nahasmena duten haurrei buruzko ikerketa handiagoa egin da. Aurkikuntzek adierazten dute elebitasunak ez duela eragin negatiborik haur horien garapen linguistikoan eta kognitiboan. Esposizioan daudenek eta H2 ikasten ari direnek ez dute karga linguistiko edo kognitibo gehigarri izaten, eta ez dute atzerapen handiagorik izaten. Ikerketek erakusten dutenez, zailtasun linguistikoak dituzten haur horiek ez dute erronka gehigarri aurkitzen beste hizkuntza bat ikasten duten bitartean. Eta azpimarratu beharra dago elebitasunak emaitza onuragarriak ematen dizkiela haur guztiei (Besnard, 2013), interakzio sozialerako nahiz zerbitzuetarako sarbiderako aukerak zabaldurik (Pesco *et al.*, 2016).

Eztabaida

Ikerketa honetan egindako azterlanaren emaitzek laguntzen dute H2ren ikaskuntza zein Hezkuntza Premia Berezien ezagutzan gaur egun dagoen ezaupidea nahiz dauden erronkak arakatzen. Hain zuzen ere, aurrez egindako ikerketen ondorioek azpimarratzen dute HPBak dituzten ikasleen artean H2 eskuratzea sustatzen duten esperientziak eta hizkuntza-trebetasunak garatzen dituzten esperientziak esparru inklusiboan identifikatzeak erronkari laguntzen diotela.

Hizkuntzak inklusio-, normalizazio-, bazterketa- eta estigmatizazio-prozesu sozialetan duen zeregina hezkuntza inklusiboaren funtsezko dimentsioa da. Ikerketa batzuen arabera, HPBak dituzten ikasleek H2 ikas dezakete. Izan ere, elebitasunak onura ekar liezaieke ezaugarri horiek dituzten haurrei, gizarte-elkarreraginetarako eta zerbitzuetarako aukera zabalduz. Hala ere, hezkuntza bereziko politikek oso gutxitan jorratu dute H2 ikaskuntza esplizituki. Funtsezkoa da azpimarratzea pertsona horiek txikitatik bizi izan duten gizarteratze akademiko eta sozial osoak ongizate eta kidetasun sentimendu emozionala sustatzen duela, beren garapen sozial, linguistiko eta kognitiboa arras aberastuz.

Haatik, aurkitutako artikuluko zientifiko guztiek hizkuntza hegemonikoei egiten diete erreferentzia, hots, ingelesari edo frantsesari. Hortaz, ez da aurkitu ikerketarik hizkuntza gutxituekin egin denik eta maila horretako datu-baseetan dauden aldizkari zientifi-

koetan argitaratu denik. Beraz, beharrezkoa da hizkuntza gutxituak ardatz izango dituzten ikerketak egitea eta maila honetako aldizkari zientifikoetan argitaratzea.

Argudiatu daiteke, halaber, miaketan identifikatutako artikulu-kopuru orokorra mugatua dela. Horrek, beraz, agerian uzten du gaiaren inguruan gehiago ikertu, sakondu zein argitaratzeko beharra dagoela, batez ere goraldian dagoen gaia izanik. Gainera, behar hori bat dator inklusioaren azken urteetako berragertzearekin. 2011tik 2023ra bitarte argitaratutako artikulu guztiek azpimarratzen dute benetan inklusiboa den hezkuntza erakunde baten garrantzia. Hortaz, hizkuntzaren afera ere erdigunean ipini beharra dago.

Hori horrela, esku arteko artikuluak literaturaren azterketa sistematiko bat aurkeztu du, eskala txikiko lagin batekin, eta beraz, ikerketaren helburua ez da emaitzak orokortzea. Ikerketa gehiago behar da emaitzak beste testuinguru batzuetara transferitzeko modukoak diren ala ez argitzeko. Hala ere egia da oso ikerketa gutxi egin dela gai espezifiko horri buruz. Etorkizunari begira, gaiari buruz ikerketa gehiago burutu beharra dago, eta azterlan horiek egoeraren berezko tentsioak orekatzeko potentziala aitortu beharko lukete, baita hainbat emaitza positibo ere, hala nola, tokiko komunitatea inplikatzeko eta helburu espezifikoak lortzea. Are gehiago, interesgarria litzateke ikerketa horiek haurren beraien ikuspegiak jasotzea.

Erreferentziak

- Barac, R., eta Bialystok, E. (2012). Bilingual effects on cognitive and linguistic development: role of language, cultural background, and education. *Child Development*, 83, 413-422. <http://dx.doi.org/10.1111/j.1467-8624.2011.01707.x>.
- Besnard, C. (2013). The inclusion of students with special needs in the Canadian school system: The case of the high functioning autistic/Asperger syndrome second language learner. In *ICERI2013 Proceedings* (pp. 4950-4955). IATED.
- Bird, E. K. R., Genesee, F., eta Verhoeven, L. (2016). Bilingualism in children with developmental disorders: A narrative review. *Journal of communication disorders*, 63, 1-14. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jcomdis.2016.07.003>.
- De Houwer, A., Bornstein, M. H., eta Putnick, D. L. (2014). A bilingual-monolingual comparison of young children's vocabulary size: evidence from comprehension and production. *Applied Psycholinguistics*, 35(6), 1189-1211. <http://dx.doi.org/10.1017/S0142716412000744>.
- Europako Batzordea (2021). *Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. Una Unión de la Igualdad: Estrategia sobre los derechos de las personas con discapacidad para 2021-2030*. <https://www.observatoriodeladiscapacidad.info/estrategia-sobre-los-derechos-de-las-personas-con-discapacidad-para-2021-2030/>
- Eusko Jaurlaritz (2020). *Necesidades educativas especiales en el ámbito de la educación primaria y secundaria: Guía para la intervención educativa*. https://inklusiogunea.euskadi.eus/documents/30459257/30474781/neae_hlbp.pdf/9482e1f5-70e0-c16c-dfe5-30644570f136
- Eusko Jaurlaritz (2023). *Euskararen adierazle sistema. Eusko Jaurlaritz*. https://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px72_e.px/table/tableViewLayout1/?rxid=2e7a0462-38d9-4ad0-803f-664ac2ab4496

- EUSTAT (2023ko martxoaren 17a). *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde eta irakaskuntza-mai-laren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki*. https://www.eustat.eus/elementos/tbl0002427_e.html
- Gough, D., eta Thomas, J. (2016). Systematic reviews of research in education: Aims, myths and multiple methods. *Review of Education*, 4(1), 84-102. <https://doi.org/10.1002/rev3.3068>.
- Khalifaoui, A., García-Carrión, R. eta Villardón-Gallego, L. A. (2021). Systematic Review of the Literature on Aspects Affecting Positive Classroom Climate in Multicultural Early Childhood Education. *Early Childhood Educ J.*, 49, 71-81. <https://doi.org/10.1007/s10643-020-01054-4>
- Keles, S., Ten Braak, D., eta Munthe, E. (2024). Inclusion of students with special education needs in Nordic countries: a systematic scoping review. *Scandinavian Journal of Educational Research*, 68(3), 431-446. <https://doi.org/10.1080/00313831.2022.2148277>
- Moher, D., Liberati, A., Tetzlaff, J., Altman, D. G., eta The PRISMA Group. (2009). Preferred reporting items for systematic reviews and meta-analyses: The PRISMA statement. *PLoS Med.* <https://doi.org/10.1371/journal.pmed.1000097>
- Nazio Batuen Erakundea (2022). *Objetivo 4: Garantizar una educación inclusiva, equitativa y de calidad y promover oportunidades de aprendizaje durante toda la vida para todos*. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/education/>
- Peker, H., eta Regalla, M. (2021). Making exemption the exception, not the rule: Inclusion of all students in foreign language education. *Foreign Language Annals*, 54(1), 73-90. <https://doi.org/10.1111/flan.12513>
- Pesco, D., MacLeod, A. A., Bird, E. K. R., Cleave, P., Trudeau, N., de Valenzuela, J. S., ... eta Verhoeven, L. (2016). A multi-site review of policies affecting opportunities for children with developmental disabilities to become bilingual. *Journal of communication disorders*, 63, 15-31. <https://doi.org/10.1016/j.jcomdis.2016.05.008>
- Poulin-Dubois, D., Blaye, A., Coutya, J., eta Bialystok, E. (2011). The effects of bilingualism on toddlers' _executive functioning. *Journal of Experimental Child Psychology*, 108(3), 567-579. <http://dx.doi.org/10.1016/j.jecp.2010.10.009>.
- Regalla, M., eta Peker, H. (2015). Early language learning for all: Examination of a prekindergarten French program in an inclusion setting. *Foreign Language Annals*, 48(4), 618-634 <https://doi.org/10.1111/flan.12156>
- Ruiz-Eugenio, L., Soler-Gallart, M., Racionero-Plaza, S., eta Padrós, M. (2023). Dialogic literary gatherings: A systematic review of evidence to overcome social and educational inequalities. *Educational Research Review*, 100534. <https://doi.org/10.1016/j.edurev.2023.100534>
- Santiago-Garabieta, M., García-Carrión, R., Zubiri-Esnaola, H. eta López de Aguilera, G. (2021). Inclusion of L2 (Basque) learners in Dialogic Literary Gatherings in a linguistically diverse context. *Language Teaching Research*, 1362168821994142. <https://doi.org/10.1177/1362168821994142>
- Tricco, A. C., Lillie, E., Zarin, W., O'Brien, R. K., Colquhoun, H., Levac, D., et al. (2018). PRISMA extension for Scoping reviews (PRISMA-ScR): Checklist and explanation. *Annals of Internal Medicine*, 169(7), 467-473. <https://doi.org/10.7326/M18-0850>
- UNESCO (2008). *Education for all global monitoring report: Education for all by 2015. Will we make it?* UNESCO. <https://www.unesco.org/en/education-for-all-global-monitoring-report>
- UNESCO (2016). If you don't understand, how can you learn? Policy Paper 24. Paris: UNESCO. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000243713>

Aipamen biografikoa

Ane Olmedillo Berasategi. Doktoregaia Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak Doktorego Programan. Gaur egun, irakaslea eta karrerako-funtzionarioa Pedagogia Terapeutikoko espezialitatean.

Mikel Gartziarena. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko Irakasle Atxikia da.

Leire Ugalde Lujanbio. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Didaktika eta Eskola Antolakuntzaren Saileko Irakasle agregatua da.

IRAKASLEEN ROLA BIRPENTSATU ETA IKAS-ESPERIENTZIA ABERASTU: ESKOLA TXIKIEN EREDUA

RETHINKING THE TEACHER'S ROLE AND ENRICHING THE LEARNING EXPERIENCE: THE ESKOLA TXIKIAK MODEL

Garazi Ormazabal-Arizkorreta¹

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Azken hamarkadan, ikaslea erdigunean kokatzen duen hezkuntza inklusibo, eskuragarri eta kalitatezko baten alde egin da. Proposamen honen aurrean, besteak beste, irakaslearen jarduna birpentsatzeak zein berreraikitzeak garrantzi handia hartzen du. Auzi honetan zenbait ekarpen egiteko asmoz jaio da hurrengo azterlan etnografiko kritikoa. Eskola Txikien Sarean tailer integraletan antolatzen diren sei eskolatan kokatuz, ondorengo helburuak eskuratu nahi izan dira: (1) Hezkuntza berritzailea burutzen den sormenezko agertokietan irakasle-rola zein den identifikatzea eta bere funtzioak zehaztea. (2) Haren zailtasunei eta erronkei buruz hausnartzea. Ikerketan 6 eta 12 urte bitarteko 45 ikaslek eta 20 irakaslek parte hartu dute, eta 630 orduko behaketa-saio jaso, dokumentu analisiak egin eta 13 *Focus Group* burutu dira. Informazioaren analisia gauzatu ostean, emaitzek, irakaslea ikaslearen ikaskuntza prozesuaren laguntzaile edota aholkulari bihurtzen dela erakutsi dute, zeinak, ikasleen beharrak identifikatu, beraien ikaskuntza prozesuaren jarraipena burutu eta ikaskuntza espazioa sortu zein hornitu behar duen. Bide horretan, irakaslearen begirada lantzea zein irakasleen arteko hausnarketa burutzea ezinbesteko direla ikusi da.

Gako-hitzak: irakasleen rola, landa-eremuko eskolak, tailerrak, ikasleen ongizatea.

Abstract

In the last decade, efforts have focused on inclusive, accessible, and high-quality education, placing students at the center. This shift has emphasized the need to rethink and redefine the teacher's role. This critical ethnographic study, conducted in six schools that are organized in integral workshops within the Eskola Txikiak Network, aimed to: (1) identify the teacher's role in innovative learning environments and define its functions. (2) Reflect on their challenges and difficulties. With 45 students, between the ages of 6 to 12, and 20 teachers participating, the study included 630 hours of observations, document analysis, and 13 Focus Groups. After analysing the information, findings show that teachers act as guides in students' learning, identifying children's needs, monitoring progress and shaping learning spaces. The study underscores the importance of teacher reflection and perspective development in fostering effective education.

Keywords: teacher's role, rural schools, workshops, student-wellbeing.

¹ Harremanetarako: Garazi Ormazabal-Arizkorreta, Didaktika eta Eskola Antolakuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Tolosa Hiribidea, 70 (20018-Donostia).
Helbide elektronikoa: garazi.ormazabal@ehu.es

Sarrera

Ikerlan hau Eskola Txikien Ereduan sakontzeko helburuz jaio da. Eskola Txikiek, landa eremuko eskolekin zenbait antzekotasun dituzten arren, bestelako izaera bat dute. Beren oinarri zein praktika pedagogikoak kontuan hartuz, hezkuntza komunitatearentzat eredu adierazgarri bilakatu badira ere, ikerketaren arloan ez dago horren guztiaren adierazpen garbirik, Hargreaves-ek (2017) adierazi bezala, landa-eremuko eskolak errealtate ezkutatu edota ezezagun gisa hartzen baitira, bai gizarte eremuan, bai ikerketa eremuan. Eskola Txikien kasuan, hori guztia testuinguru espezifiko honetan egindako azterlanetan frogatu daiteke, orain arte egindako ikerketak bilakaera historiko eta legegilean (Aguirregoitia-Güenechea, 2024) eta eskola horien gako inklusiboetan (Arguiñano, 2019; Karrera *et al.*, 2021) oinarritu baitira. Beraz, ikerketa honen garrantzia Eskola Txikien esperientziaren zein gako pedagogikoen ezagutzan sakontzean dago, kasu honetan, ikerketaren ardatza irakaslearen rola dela. Ikerketa hau UPV/EHU-ko ikertzaileak prestatzeko kontratuaren (PIF 21/217) babespean burutu da.

Oinarri teorikoa

Egun ezagutzen dugun hezkuntza-sistema —sorkura industrializazio garaian duena— ez zen diseinatu bizi dugun errealtate aldakor eta konplexuari erantzuteko (Robinson, 2016). Hau guztia indarrean dauden hainbat antolaketa-egituretan eta hezkuntza-praktiketan ikus daiteke, zailtasunak baitituzte egungo erronkei eta beharrei erantzuteko (Beneyto-Seoane *et al.*, 2023). Inguratzen eta eragiten gaituen testuinguru globala bestelakoa denez, hezkuntzaren arloko edozein proposamenek aipatutako errealtatea aintzat hartu behar dute (Martínez eta Rogero, 2021). Eginbide honetan, hainbat dira hezkuntzaren eraberritze prozesua abiarazteko beharra adierazten dutenak.

Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren arloko Europako Lankidetzarako esparru estrategikoak duela hamarkada bat baino gehiago adierazi du hezkuntza eta prestakuntza ireki eta berritzaile baten beharra (Eurydice, 2024), ikasleengan oinarritutako hezkuntza integratu, inklusibo, eskuragarri eta kalitatezko baten alde eginez (Europako Parlamentua, 2021). Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Haur eta Oinarrizko Hezkuntzan indarrean dauden hezkuntza-dekretuei dagokienez (75/2023 Dekretua; 77/2023 Dekretua), irakasteko eta elkarri eragiteko beste hezkuntza-modu batzuk aldarrikatzen dituzte, guzti honetan, ikas-ingurune ahaldunduagoak zein egitura malguagoak beharrezko direla iragarritz.

Eginkizun horretan, eskola-komunitatea osatzen duten elementu edota agente bakoitzaren jarduna birpentsatzeak eta berreraikitzeak garrantzi handia hartzen du. Irakaslearen jardunari helduz, hezkuntza-aldaketa orok irakasleek oinarritzat dituzten ideiak partekatzea, beren praktikak aldatzea eta egungo printzipioak beren errealtatera edota testuingurura egokitzea eskatzen du (Rico-Gómez eta Ponce, 2022). Ildo beretik, aipatutako dekretuek hainbat ildo estrategiko definitu dituzte, horietako batean irakaslearen rol berrituari aipamen zuzena egiten zaiolarik (75/2023 Dekretua; 77/2023 Dekretua). Jarraibide hauen aurrean, hortaz, irakaslea ezagutzen transmisore huts izatetik, ikaskuntzen gidari, laguntzaile edo bideratzaile izatera igaroko da (Viñals eta Cuenca, 2016). Freire-k (1997, 79. or.) adierazi bezala, «inork ez baitu inor hezten (...)»

gizakiak munduaren bitartekaritzarekin elkarren artean hezten dira». Honenbestez, funtzio berri honek, irakasleak konpetentzia profesional konplexuagoak garatzea eskatzen du, hala nola, ikaskuntza sorraraztea, laguntzea, pentsaera bultzatzea, galderak egitea, orientatzea eta estimulatzea. Modu honetan, ikasleek beren burua zuzentzeko, galdera garrantzitsuak planteatzeko eta arazo konplexuei aurre egiteko aukera izango dute (Pérez, 2019), apurka-apurka nork bere proiektu pertsonala modu kritikoa zein sortzailean eraikitzei aukerak sortuz.

Rol berri horretan, irakasleak ikasle taldearekin dituen jardute- zein harreman-tze- dinamikak aldatzeaz gain, ikaslearen ikaskuntza-prozesuen etengabeko ikastun bihurtu beharko du (Pérez, 2019). Hau da, praktika pedagogikoa aurrera eramanez eta honi buruz hausnartuz ikasi beharko du irakasleak, horrela soilik hobetu ahal izango baitu bere jarduna (Castillo eta García, 2017; Korthagen, 2010). Halaber, talde-dimensioari arreta eskaintzea ere ezinbesteko bihurtzen da, hau da, hezkuntza-jardunari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatzea (González eta Barba, 2014).

Landa-eskolak gabezia gisa ulertu izan ohi diren zenbait ezaugarri erabiltzen dituzte erreferentziazko gako pedagogikoak garatzeko. Honenbestez, berrikuntzarako eta hobekuntzarako testuinguru egoki bihurtu dira (Santos, 2011). Horren isla dira testuinguru hurbilean zein urrunean buruturiko ikerketak, eskola hauek zenbait gako bultzatzen dituztela erakutsi baitute: ikasleen bestelako taldekatzea (Åberg-Bengtsson, 2009; Boix, 2011; Boix eta Bustos, 2014; Hargreaves, 2001; Santos, 2011; Veenman, 1995); testuinguruan kokaturiko ikaskuntza autonomoa (Abós, 2015; Boix, 2011; Bustos, 2006) eta diziplinartekoa (Boix, 2011); lankidetzan oinarritutako ikaskuntza (Abós, 2015; Boix, 2011; Boix eta Bustos, 2014; Santos, 2011); ikasleen arteko bestelako harremanak (de la Vega, 2020; Matías eta Vigo, 2020) bai eta ikasle eta irakasleen artekoak ere (Boix eta Bustos, 2014; Santos, 2011); ingurunea baliabide pedagogiko gisa erabiltzeko zein berarekin harremana sortzeko modu berriak (Abós, 2020; Boix, 2011; Boix eta Bustos, 2014; Hargreaves, 2009); familia-partaidetza handiagoa (Vigo eta Soriano, 2015); eta curriculum emergente bat (Arguiñano, 2009; Karrera eta Arguiñano, 2018).

Adin, interes, gaitasun eta behar aniztasuna landa-eskolen ezaugarri bereizgarri izanik, hezkuntza-erronka handiko testuinguru baten aurrean gaudela ondoriozta daiteke (Abós, 2020). Horregatik, testuinguru zehatz honetan jardunbide egokien ezagutzan ekarpenak egiteko asmoz jaio da ikerlan hau, helburu hauekin: (1) hezkuntza berritzaile burutzen den sormenezko agertokietan irakasle-rola zein den identifikatzea eta bere funtzioak zehaztea; eta bestetik, (2) haren zailtasunei eta erronkei buruz hausnartzea.

Metodoa

Azterlan hau etnografia kritiko bat da (Karrera, 2008). Etnografia eskola-antolamenduarekin eta ikasgelako bizitzarekin lotutako edozein fenomeno ikertzeko, ulertzeko eta kontatzeko aukera ematen duen metodoa da (Cotán, 2020; Maturana eta Garzón, 2015). Ikerketa honen kasuan, bere izate kritikoa nabarmentzea beharrezkoa da; izan ere, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan dialogikoa eraikitako prozesu batean oinarritu da (Denzin, 2018). Prozesu honen bidez, irakasleen zein ikertzaileen artean ikaskuntza sustatzeko xedeak zabaltzeko, eta hezkuntza-komunitatea indartzeko zein ahalduzko bideak ireki dira (Beach eta Vigo-Arazola, 2021).

Etika

Azterlan honek Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak ezarritako eskakizun etikoekin bat egiten du, eta UPV/EHUren Etika Batzordearen oniritzia du (M10/2022/339).

Testuingurua eta parte-hartzaileak

Ikerketa honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxek hartu dute parte. Eskola partaideen aukeraketa Eskola Txikien Sareko lau adituren gomendioei jarraiki burutu zen, hots, Eskola Txikien koordinatzaile ohiaren eta egungo koordinatzaileen laguntzaz. Jarraian, aukeratutako ikastetxeak eta horien ezaugarri garrantzitsu batzuk azalduko dira:

1. taula

Eskola parte-hartzaileak eta hauen inguruko ezaugarri esanguratsuak

Eskola parte-hartzaileak	Tailer eskaintza	Ikasle/irakasle kopurua
LHI Larraul (Larraul, Gipuzkoa)	1. Liburutegia 2. Zientzia (baratzarekin) 3. Artea 4. Aroztegia 5. Gorputz eta musika adierazpena 6. Joko sinbolikoaren espazioa	Ikasleak: 19 Irakasleak: 4
LHI Zerain (Zerain, Gipuzkoa)	1. Liburutegia 2. Zientzia (baratzarekin) 3. Artea 4. Gorputz Adierazpena 5. Aroztegia 6. Sukaldea	Ikasleak: 17 Irakasleak: 4
LHI Basakaitz (Aizarnazabal, Gipuzkoa)	1. Liburutegia 2. Zientzia (baratza eta sukaldearekin) 3. Artea 4. Gorputz Adierazpena 5. Irratia	Ikasleak: 105 Irakasleak: 21
LHI Olaberria (Olaberri, Gipuzkoa)	1. Liburutegia 2. Zientzia (baratza eta sukaldearekin) 3. Artea 4. Aroztegia 5. Gorputz Adierazpena 6. Mugimendu tailerra	Ikasleak: 33 Irakasleak: 8
LHI Barrundia (Ozaeta, Araba)	1. Zientzia 2. Artea 3. Joko sinbolikorako txokoa 4. Gorputz Adierazpena 5. Basoa	Ikasleak: 20 Irakasleak: 6
LHI Ezkio-Itsaso (Ezkio, Gipuzkoa)	1. Hizkuntza 2. Zientzia (sukalde eta kanpo espazioekin) 3. Sormena (arteari zuzendutako espazioa) 4. Artisten txokoa (gorputz zein musika adierazpenari zuzenduriko espazioa) 5. Aroztegia 6. Jostundegia 7. Istorioen txokoa (joko sinbolikoari zuzendutako espazioa)	Ikasleak: 51 Irakasleak: 10

Aipatutako eskola guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende daude, hau da, izaera publikoko eskolak dira. Era berean, dituzten ezaugarri bereizgarriak direla medio, Eskola Txikien Sarearen baitan kokatzen dira. Hezkuntza Sare hau, besteak beste, honako printzipio hauetan oinarritzen da: aniztasuna eta inklusioa, komunitatearekiko irekitasuna, haurra eskolaren eta ikaskuntzaren erdigune izatea, lan kooperatiboa eta irakaskuntza-rol berria. Eskola Txikien baitan eskola-egitura zein praktika ezberdinak abiarazten dituzten eskolak badaude ere, ikerketako partaide direnak tailer integraletan antolatzen dira. Honenbestez, eskola hauetan ohiko ikasgelen iruditegia alde batera utzi eta ikasgelak erabilera partekatuko leku bihurtzen dira. Gelak gai espezifikoetara eskainiak dira, hala nola artea, zientziak eta hizkuntzak. Espazio hauetan ezagutza akademikoek zein ikaskuntzek modu integral eta diziplinartekoan bat egiten dute, beren baitako txokoak eta materialak berariaz berrantolatuz. Eskola-egunean zehar, ikasleek tailer ezberdinetan jarduteko eta bertan zein lan edo proiektu aurrera eraman hautatzeko aukera dute. Irakasleak, berriz, tailerretan banatzen dira, eremu horietan espezializatzeko aukerak zabaltuz. Ikasleen taldekatzei dagokionez, eskolako haur orok (3-12 urte bitartekoak) espazio hauetan elkar-bizi eta elkarrekin ikasten dutela aipatzekoa da (Eskola Txikiak, 2024).

Eskola parte-hartzaileak EAEko Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoe-tako landa-eremuk herrietan kokatzen dira, 2000 biztanletik beherako udalerrietan zehazki. Udalerri horien ezaugarri sozioekonomikoei eta kulturei dagokionez, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat, 2021) datuei jarraiki, indize sozioekonomiko altua eta % 10 inguruko immigrazio-tasa duten udalerriak dira. Halaber, ikerketa burutu zen garaiko EAEko immigrazio-tasarekin alderatuz gero, erkidegoko tasa apur bat baxuagoa zela ikus daiteke, immigrazio-tasa % 8,5ekoa baitzen (Eustat, 2022). Egitura ekonomikoari dagokionez, udalerri gehienetan industria-sektorea da nagusi, tokiko garapen ekonomikoan funtsezko zeregina betetzen duelarik (Eustat, 2024). Bestetik, aipatzekoa da landa-udalerriak ezaugarritzeko burututako azterlan batek herri parte-hartzaileak arreta bereziko herri gisa identifikatu dituela (Eusko Jaurlaritza, 2022), adierazle hauek kontuan hartuz: (1) zerbitzuetara bideratutako elkarleen eta establezimenduen kopurua, (2) udalerri horietako batez besteko biztanleria (Eusko Jaurlaritza, 2022).

Informazioa eskuratzeko teknikak

Karrera *et al.*-ek (2024) agerian utzi bezala, ikerketa-lan baten alderdi garrantzitsuena azterlanaren landa-lana da, informazioa biltzeko erabiltzen diren prozedurak zein teknikak biltzen dituen, hain zuzen. Ondorengoak dira ikerketa honetan informazioa eskuratzeko erabilitako teknikak.

Batetik, behaketa-saio parte-hartzaileak egin dira. Zehazki, 630 orduko behaketa-saio parte-hartzaileak osatu dira (Hammersley, 2017), ikastetxe bakoitzean hiru astean zehar, zeintzuetan ikerlariak ikasleekin eta irakasleekin batera lanaldi osoz hamabost egun igaro dituen. Saio horietan, ikastetxea bera eta praktika pedagogikoak behatu dira. Era berean, behaketa parte-hartzaileak burutu direnez, tailerreko hainbat jardueratan aktiboki parte hartu da. Parte hartze horren bidez, irakasleen zereginari eta inguruko testuinguruari buruzko ezagutza sakonagoa lortu da. Saio horietan bildutako

informazioa landa-oharren eta dokumentu grafikoaren bidez erregistratu da. Landa-oharrak behaketa-koaderno batean bildu dira, zeina kategoriatutako sistema baten arabera antolatuta zegoen.

Bestetik, dokumentazioari ekin zaio. Teknika honen bidez, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-proiektuak eta hezkuntza-sarearen printzipio pedagogikoak jasotzen dituzten dokumentuak aztertu dira.

Azkenik, *Focus Group*-ak burutu dira. Behaketa-saioetan bildutako informazioarekin, eztabaida taldeak gidatzeko (Gundumogula, 2020), ikerketa-taldeak gidatzen jarraitu zuen. Hammersley-ren (1999) ideiei jarraiki, azterketa honek ikastetxe horietako haurren eta irakasleen esperientzia, ikuspegiak eta ekintzak biltzen ditu. Horretarako, ikastetxe bakoitzean bi *Focus Group* mota burutu dira, bat ikasleekin eta bestea, berriz, irakasleekin, guztira 13 (ikastetxe batean ikasle kopuru altua zela medio, ikasleekin beste *Focus Group* bat burutu baita). Topaketa hauetako partaideei dagokienez, 6-12 urte bitarteko 45 haurrek eta 20 irakaslek parte hartu dute azterlanean. Ikasle partaideen kasuan, hautaketa ikastetxe bakoitzeko irakasleen aholkuen baitan burutu da, topaketa hauek parte-hartze aktiboagoa eskatzen baitute. Hortaz, hautaketarako irizpide hauek hartu dira kontuan: genero-parekotasuna eta adin-aniztasuna. Haurrekin burututako topaketa bakoitzean sei-zortzi ikaslek parte hartu dute. Irakasleei dagokienez, beren ikastetxeko hezkuntza-proiektua hobeto ezagutzen zutenei eta bertan lanean denbora asko zeramatenei lehentasuna eman zaie. Irakasle gutxi dituzten eskolak direla aintzat hartuz, irakasleekin egindako *Focus Group* bakoitzean gehienez 3 pertsonak parte hartu dute.

Analisia

Edukiaren analisia Karrerak (2008) proposatutako faseetan oinarritu da. Lehenengo fasean, behaketa parte-hartzaile-, dokumentazio-, eta *Focus Groups*-en bidez bildutako informazioa bereizi da. Jarraian, informazioa kategorizatu eta kodetu egin da. Hori guztia, NVivo v.12 programaren laguntzarekin burutu da. Urrats hori egin ondoren, informazioa aztertuz eta interpretatuz, izaera induktiboa duen kategoriatutako sistema bat lortu da. Jarraian, 2. Taulan, edukiaren analisiaren bidez lortutako kategoriak eta kategoriatutako bakoitzari esleitutako esanahia ageri dira:

2. taula

Gaiak eta hauen kategoriak

Gaia	Kategoriak
Irakasleen funtzioak eta rola Eskola Txikietan	Irakasleek tailer integraletan betetzen dituzten funtzioak Irakasleek tailer integraletan hartzen duten rol berritua.
Eskola Txikietako irakasleen rolaen erronkak eta zailtasunak	Rol berriaren aurrean irakasleek dituzten erronkak eta zailtasunak Rol berriaren inguruko bizipen zein iritziak

Ondoren, kodetzea osatu da, dagozkien kategoria, informazio-iturri eta parte-hartzaileei kodeak sortuz (ikus 3. taula):

3. taula

Gaiei, informazio-iturriei eta parte-hartzaileei loturiko kodeak

Gaia	Kodea
Irakaslearen funtzioak eta rola Eskola Txikietan	IRF
Erronkak eta zailtasunak	EZ
Informazio iturriak	Kodeak
Behaketa saioetako Landa Oharrak	LO
Ikasleen <i>Focus Group</i> -ak	IKTE
Irakasleen <i>Focus Group</i> -ak	IRTE
Dokumentuak	DOC
Parte hartzaileak	Kodeak
Irakasleak	IR
Ikasleak	IK

Azkenik, informazioaren triangelatzea osatu da. Era berean, lortutako emaitzen egiazkotasuna ziurtatzeko parte-hartzaileei egindako lana itzuli zaie.

Emaitzak

Irakasleen funtzioak eta rola Eskola Txikietan

Tailerretan antolatzen diren Eskola Txikietan kokatuz, hainbat dira irakasleak tes-tuinguru hauetan bete beharreko funtzioak. Lehenik eta behin, ikerkuntza-ikaskuntza jarduera nagusia tailer integraletan burutzen denez, ikaskuntza esperientzia hasi aurretiko prestakuntza ezinbestekoa dela adierazten dute irakasleek. Espazioaren eraikuntzan, tailerraren helburua edota tailer horretan zer sorrarazi nahi den argi izatea beharrezkoa dela azaltzen dute: «*Nik uste det garbi izatea zein dan gela hortan, zer dan zuk gela hortan gertatzea nahi dezuna. Hori da neretzako lehenengo garbi eduki behar dezuna, zientzia gelarena adibidez, (...) planteatu genittun gune ezberdinek. Eta ordun gune ezberdin hoiekin ba nahi genun erantzun ba pixka bat zientziaren begirada zabal horren barrun ez? Pixkat ba guk gure eskolan gertatzea nahi gendun horri. Eta ordun sortu genun zonalde bat pixka bat esperimenez edo fisika kimikarako gune bat, nolabait nahi genulako ba materialak, materialaren propietatek, disolbagarritasuna, nahasteak edo disoluzioak, bueno. Beste gune bat sortu genun pixka bat fisikarekin, fisika, teknologia, bueno pixka bat... nahi genun sartu asmakuntzak, makinak eta zaile eiten zitzaigun hori manipulaziotik edo gertutasunetik. Ordun sortu genun asmatzaileen txoko bat (...)*» (IRF_EIRTE_IR37_2). Honenbestez, tailer bakoitza tentuz prestatzeak garrantzi handia

hartzen du: «*espaziok antolatzea, gelak antolatzea ze azkenen gure eragiteko modua hoi da*» (IRF_ZIRTE_IR25_16-17).

Era berean, espazio biziak direla ulertuz, ikasturtean zehar tailer bakoitzaren horniketa lanetan aritu behar dute irakasleek. Horretarako, ikasleen beharrak behatu eta premia horien baitan, espazio hauek aberasten direla adierazi dute: «*Beharrak identifikau, behar horiei erantzuteko materiala sartu kendu, hori denbora guztin eittea eskatzen do pixka bat*» (IRF_OIRTE_IR2_15). Are gehiago, tailerren osaera ikasturtean zehar erabat ezberdina dela azaldu dute: «*Ordun hoiek bai oso aldakorrak izan daitezke, egon daiteke irailean modu batera eta gero urtarrilean erabat aldatuta ezta? Ba esatezu, sukaldeak igual ez dauka horrenbesteko arrakasta ordun sukaldea momentu baten igual itxi egiten da edo ezta?*» (IRF_IRTE_IR12_20-21). Aldi berean, irakasleak irakasleen ardura honen jakitun dira, tailerretan topatzen dituzten proposamen guztiak irakasleek prestatzen dituztela ohartzen baitira: «*irakaslek beaiek, gure ustez gutxi eiten dute baino guain pentsatzen jarrita irakaslek prestatzeituzte trivial galdera hoiek eta denak beaiek pentsatutakok dia, liburu batetik ateatzen dute gaia ta beaiek prestatzen dituzte galderak ta dena*» (IRF_IKTE_IK39_5).

Tailerren osaera eta horniketa lanak alde batera utzi eta tailerretan sortzen diren ikerkuntza-ikaskuntza prozesuei helduz gero, irakasleek ikasleen proiektuen jarraipena burutzeko ardura dute. Ikasle bakoitzak egingo duenaren, egiten ari denaren edota egin duenaren inguruko informazioa etengabe bilduz. Hortaz, irakasleen funtzioekin jarraituz, lehenik eta behin, ikasle bakoitza tailer batera heltzean, irakasleak zer egingo duen galdetzen dio haurrari: «*Arratsaldean zientzia-tailerrera joan naiz, irakasleak ikasle bakoitzari zer egin behar duen galdetu dio*» (IRF_OLO_61). Irakasleak egingo duen hori hautatzean eta bere egitekoarekin hastean, behar izanez gero, eskatutako horretan laguntzen dio irakasleak. Honenbestez, eskola hauetan irakasleak haurren ikaskuntza prozesuan laguntzaile edota aholkulari rola eskuratzen du: «*Aroztegian irakasleak «laguntzaile» rola izan du. Hau da, irakasleak laguntza eskatuz gero, gerturatu eta beharrezko laguntza eskaini die. Horrez gain, «ondo zoaz?» bezalako galderak egin dizkiela behatu dut. Edota, haurrak lanean zenbiltzala «Nik egurra apur bat barrurago jarriko nuke, begira, hemen ez dago oso sendo lotuta eta mugitu egiten da, baina horrela moldatzen bazara utzi horrela»» (IRF_ELO_7). Irakasleek ere horrela aditzen dute irakaslearen jarduna: «*Laguntzen digute, (...) esaten digu igual zuk jartzen dezu neurri bat adibidez ta beaiek esaten dizue igual in beharko zenun... ba ez dakit igual bost zentimetro gutxigo ta ba... txikigoa geitzeko edo hobeto ez dakit. Uzten digue oso libre guk itten ta gero laguntza txikikin sartuta*» (IRF_OIKTE_IK7_1); «*Proposamenak bezela ematen dizkigute*» (IRF_OIKTE_IK8_1). Ildo beretik, irakasleen lan karga aitortzen dute, sarritan ikasle ugarik irakasleen laguntza behar dutela onartuz: «*Osa denak ez deula behar laguntza baino gehienetan pillo batek behar do laguntza*» (IRF_EIKTE_IK40_5). Guzti horrek hortaz, irakaslearen rola erabateko birmoldaketa eskatzen du: «*Aldaketa bat egin dala ez? Guk lehen, neu niregatik ari naiz e, andereñu nintzen ta nik esplikau behar nun, ta nik antolau behar nun, ta nik... ta... oin berriz, pixka bat atzea iten deu ez? Gu gea gehixo... lagundu in ber deu gauzek itten baino ez gea gu markau ber deunak denbora guztixen ez?*» (IRF_AIKTE_IR68_1).*

Egingo dutena garbi ez duten ikasleen kasuan, ikaskide zein tailerreko elementuak inspirazio iturri izan daitezkeen modura, irakasleek funtzio garbia dute une horietan:

«*Ideiak ematen dizkigu*» (IRF_LIKTE_IK15_4). Kasu hauetan, ikasle bakoitzaren hezkuntza garapena ongi ezagutzea beharrezkoa dela adierazten du irakasle batek: «*Desberdinak izan daitezke, horixe, beharretatik baita edo ikusten dezulako mm igual ikasle hau ya ezagutzen dezu... nola da bere matematika edo bere garapen prozesua nola dioan eta ordun, holako erronkatxo bat botako diot*» (IRF_LIRTE_IR13_26). Bestetik, behaketak burutzearen eta ikasleen elkarrizketak entzutearen garrantzia azpimarratzen dute irakasleek, hauen bidez, informazio interesgarria eskuratzen baitute, hala nola, ikasleen interesekoak diren gai posibleak: «*Zuk adi egotea ta esatea nola-nola... ze ai zeate esaten? Pues hartu ez? Ta idea hori hartu ta hortik ba esaten dezu... jo ba igual beidatu in beharko deu o beidatuko deu interneten aber ze jartzen dun o?*» (IRF_ZIRTE_IR25_10). Ondorioz, ikasleen jarraipenean burutzen den behaketa edo entzute lan horretatik eskuratutako informazioa erabiliz, ikasleen gaitasunez ohartu eta zenbait erronka planteatzen dizkiete: «*nik ireki nun komiki bat zala txerrikumena e zea... ikaskide batek nahi zola ikusi, irakurri nion e hola altxatzen ziala marrazkik ta gero irakaslek lan iteko ordua zanen esan zian, zuk zeba ez dezu iten holako bat eta esan nion bale ta inun txano moretxun ipuina*» (IRF_LIKTE_IK20_16).

Bestetik, ikerkuntza-ikaskuntza proiektuen zehar irakasleek ikaskuntza eta hausnarketa prozesuak abiarazteko funtzioa ere hartzen dute: «*Baratzean zeudela ikasle batek tximeleta beten krisalida topatu du. Hortaz, irakasleari eman eta irakaslea galderak egiten hasi da «badakizue zer den hau?, zer ateratzen da hemendik?» «eta tximeleta ondoren zertan bihurtzen da? Arrak bere bizia egitean zer gertatzen zaio?».* Haurrak irakaslearen galderak erantzunez joan dira» (IRF_OLO_26). Ikasleak ere, irakaslearen jarduteko modu honetaz ohartzen dira, erantzunik eman gabe, irakasleek sarritan pentsaraztera bultzatzen dietela azaltzen baitute: «*Esaten digute guk pentsatu behar deula ta ordun igual pistatxo bat ematen digute*» (IRF_EIKTE_IK43_5); «*Isildu iten dia, botatzen dute zerbait, isildu iten dia... Ta gero nahi dute guk erantzutea*» (IRF_LIKTE_IK15_4).

Horrez gain, ikasleen garapen mailaren arabera, irakasleak esku-hartze ezberdinak planteatzen dituzte. Modu honetan, haurrei beren gaitasunen zein mugen kontzientzia hartzen lagunduz: «*Aroztegiko arduradunak esan didanez, 6. mailako ikaslea batek, egurrezko kaxa bat berak egin du, eta bertan, irakasleak, neurriak hartzeko edota bestelako lanetan laguntzeko ardura hartzen du. Lehen mailako ikasle batek berriz, kaxa ikustean, berak ere hori egin nahi zuela adierazi omen zion, eta irakasleak ez omen zion horretan lagundu. Ondorioz, haurraren garapen maila dela eta, haurrak alde ezberdinak moztu omen zituen eta ondoren, hauek bateratzea ezinezkoa zela ohartu omen zen. Beraz, azkenean, bakoitzak bere momentuan ahal duen hori burutzen du.*» (IRF_OLO_49).

Tailerretan jazotzen diren ikerkuntza-ikaskuntza prozesuak ikasleek modu autonomoan kudeatzen badituzte ere, sarritan irakasleen funtzioa ezinbesteko bihurtzen da, proiektuen garapenaren momentu kritikoetan batez ere: «*Ba laundu in behar zaie, galderak eginez edo planifika... edo behintzat igual planifikatzen ba aste honetan aber hau bukatzen deun, hurrengon aber hau iten deun... o... zerbaitetan arazon bat baldin badaukie ez badiezue launtzen igual hor gelditzen dan lan hori pixka bat laundu in behar dezu arazo hori konpontzen ze bestela ez do aurrea egingo*» (IRF_OIRTE_IR2_24). «*O espektatiba errealak ez ditue jartzen eta burun in duena ez da oso reala gero in daikienakin...*» (IRF_OIRTE_IR2_24); «*Edo hasten die eta gero nekatzen dira, erreta baita, eta ez daukate aguante hori gero aurrera...*» (IRF_OIRTE_IR3_24).

Azkenik, arestian aipatu bada ere, ebaluazioari begira, ikerkuntza-ikaskuntza proiektuen garapenaren prozesuan behaketak burutzeaz eta honen erregistroa aurrera eramateaz arduratzen da irakaslea: *«Irakaslea artean geundela une batean ordenagailuan erregistroak sartzen hasi da. Normalean koadernoan idazten dituela azaldu dit baina orokorrean haurrak lasai zeudela ikusten zuenez, ordenagailuan idaztea erabaki du. Ordenagailuko dokumentuan, haur bakoitzarekin izena gehi espazio motak agertzen direla behatu dut»* (IRF_OLO_18); *«saioa erregistroa iten deu ordun, saioa ume guztingan daukagu, osa gure tokatzen zaigun ume guztingan daukagu begirada»* (IRF_ZIRTE_IR25_5-6).

Eskola Txikietako irakasleen rolaren erronkak eta zailtasunak

Hezkuntza eredu tradizionalen irakasleak duen jardunarekin alderatuz, rol berri honetara egokitzea zaila egiten zaiela adierazten dute Eskola Txikietako irakasleek. Ezaguera irakaslearengan kokatu beharrean haurraren kokatzen denez, kontrola galtze sentazioa edota ezjakintasuna sentitzen dute: *«Irakasle bezela ere bai pff nik krisia Bai bai krisi oso ona ta positiboa baino ez? Dena zure kontrolpean edukitzetik eta bueno gaur launduko diteu ez dakit zer ta badakit zer ta hola ez? Zure burun hola edukitzetik... ez orain in behar dezu malgutasun batea, bueno proposatuko diet hau, ea hemen-dik ze ateratzean eta hor ere kriston lanketa in behar da, nei horrek hasieran egonezina sortzen zian»* (EZ_ZIRTE_IR25_1). Ondorioz, jarduteko modu zaharraren eta berriaren arteko oreka topatzea zaila egiten zaiela onartzen dute: *«Bai nik uste det oreka hori bi-latzea kostatzen ai zaigula, gidatzetik, igual pixka bat pasa ginen ezer ez gidatzea»* (EZ_OIRTE_IR2_2). Areago, rol berri honetan, irakasle batek partekatzen duen moduan, gorputz-jarreraren aldaketa eta behaketaren funtzioa dela eta, zenbait zalantza izan ohi dituzte irakasleek: *«bakarrik fisikoki, nun kokatu behar naiz? Hemen? Egongo naiz zutik? Ez, eserita egongo naiz? Ez, nik libururik ez daukat, aber zer, non eseri? Hor, ez? Horki haste zaizu baita ez? Non kokatzen naiz? Ni irakasle bezala, ze begirada eduki behar det? Eta gero begiratze... be... asko unibertsitatean bai, beha behatu... zer da behatu? Nik askotan hori... zer da behatu? Hola egotea begira? (besoak gurutzatuz, begiratzuz). Behatu, ikasten dezu behatzen, eta hemen (sabelean) urduritasuna sentitzen dezu, zer ai naiz egiten?»* (EZ_LIRTE_IR13_1).

Horrez gain, adin desberdinetako ikasleen (3-12 urte bitarteko ikasleak) arteko elkarrekintza eta bizikidetza ere erronka handi bilakatzen da Eskola Txikietako irakasleentzat: *«Eta gure artean ere zalantza asko, nola kudeatu adin aniztasun hori... e bale Haur Hezkuntzan igual ikusten dugu baino gero Lehen Hezkuntzako kurrikulumeko oinarrizko horiek nola edo hala lortu behar dira, helburuak edo horiek eta orduan...»* (EZ_BIRTE_IR61_1). Irakasleek ikasleen gaitasun zein ezaugarri oro gogoan izan eta hauen baitan esku hartu behar baitute.

Irakasle izateko modu berri honetan zailtasunak topatzen dituzten arren, rol berriaren berreraikitze prozesuan zenbait erronkari aurre egitea beharrezkoa dela diote irakasleek. Horien artean, ordura arteko jarduna zalantzan jartzeko eta beste aritzeko modu batzuk ikasteko prestutasuna zein gogoia izatea beharrezkoa dela adierazten dute: *«prest eon behar naiz nerea zalantzan jartzeko lehenengo eta nere oinarrik mugitzeko eta gauza berrik ikasteko eta... eta gainera hori, nik uste det aktiboki jun behar nizeela gauza berrik ikastea ez? Iruditzen zait hori dala... des-ikasteko modu bakarra, irikita*

egon behar zea eta ikasi behar dezu badakienetik, dakiten hoietatik ikasi behar dezu» (EZ_EIKTE_IR37_3). Era berean, irakaslearen rola eta eskolaren planteamendu pedagogikoa berregiten ari den eskola bateko irakasle batek adierazi bezala, hasierako fase honetan esperientziazioa eta denbora ezinbestekoak dira: «denborarekin gauzak auto erregulatzen juten diela (...). Ordun bueno, denbora guztian gaude aztertzen ez? Aurrea atzea, piska bat, neurria hartzen.» (EZ_OIRTE_IR3_3).

Horrez gain, jarduteko modu berri hau ulertzeko zein barneratzeko irakasleen arteko hausnarketa eta barne formakuntza saioak beharrezkoak direla diote irakasleek: «Hortako denbora behar dala nik ustet, eta geure (irakasleen) artan lantzea ere, hori beti esaten deu, estrategiak o zein dien gure funtzioak ondo zehaztea... horretan aritzen gea baino...» (EZ_OIRTE_IR2_4). Hausnartze edota berreraikitze prozesu honetan, begirada antzekoa duten irakasleekin topo egitea lagungarria dela adieraziz: «Zaudenen beste leku baten ez dauden afinitate hori, ez dauden begirada hori zaila zaizu garatzea, zaila zaizu konpartitzea, zaila zaizu zu benetan ziurtatuta zeneukan hori zalantzan jartzea eta aldatzea, ze beti zaude borroka horretan ez?» (EZ_EIKTE_IR35_3). Halaber, Hezkuntza Sare baten, kasu honetan, Eskola Txiki Sarearen barne egoteak zenbait onura ekartzen dituela onartzen dute, talde honen baitan kokatzean, begirada konkretu edota balio pedagogiko zehatz batzuen inguruan hausnartzeko eta formatzeko aukera baitute. Kasu honetan, irakaslearen bestelako jardunaren edota begirada baten inguruan ikasten dute: «Gero laguntzen do eskola txikitako parte izate horrek nolabait laguntzen do ez? Ulertzen, zu zatoz zatozen errealitateetik eta zatoz beste errealitate batera baino errealitate hortan badago ya jendea ibilbide batekin, formakuntza batekin, eta pixka bat nik uste det, nere iritzi pertsonala da baino eskola txikitako dagon giro horrek laguntzen do nolabait bueno ba mugitzen zea zirkulu baten nun bueno ba beste metodologia batzuen kutsua jasotzen hasten zea... beste begirada bat edukitzeko ez? Aukerak ere, ez?» (EZ_EIKTE_IR37_5).

Eztabaida

Testuinguru hurbiletik zein urrunetik aldarrikatu den bezala, haurrengan oinarritutako hezkuntza helburu gisa ezarritako gero, ezinbestekoa da hezkuntza-ingurune malguak, inklusiboak eta diziplinartekoak bermatzea (75/2023 Dekretua; 77/2023 Dekretua; Europako Parlamentua, 2021). Ildo horretan, pertsona bakar batek dituen ezaugarriak eta behar amaigabeak kontuan hartzen badira, eskola bat berdintzen, pentsatzen eta jarduten duten haurrek osatzen dutela pentsatzea onartezina da (Malaguzzi, 2001; Santos, 2011; Tonucci, 2017). Beraz, ikasle guztiek momentu berean, modu berean, baliabide berberen bidez gauza bera egiten duten hezkuntza-ereduekin jarraitzea ezinezkoa da (Herrera eta Guevara, 2019). Azterlan honen bidez, Eskola Txiki Sarearen baitan kokatzen diren landa-eremuko eskolek bere baitan dituzten indarguneak zein ahulguneak kontuan hartu eta, aurretik adierazitako printzipioekin bat egiten duten hezkuntza proposamen berritzaileak zein eredugarriak eskaintzen dituztela erakutsi da. Ikerlan honen bizkarrezurra izan den irakaslearen jardunari helduz, hezkuntza praktikak aldatuz gero, irakaslearen jarduna aldatzea beharrezkoa dela erakutsi da; eta jardute berri honen baitan dauden funtzioak, kezkak zein lagungarriak izan litezkeen gakoak identifikatu dira.

Ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren jabe zein eraikitzaile aktibo bilakatu arren, irakaslearen egitekoa ezinbestekoa dela gogoratu behar da, berak koordinatuko eta erraztuko baititu eskolaren barnean gertatzen diren ikerkuntza-ikaskuntza prozesuak. Hots, jardute berri honetan irakasleek ez dute beren egitekoa alde batera utzi behar. Areago, ikaskuntza egoerak bultzatzen jarraitzeko ardura dute, modu honetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuari buruz kontzienteki hausnartu eta ikasi dezaten (Sinc-lair *et al.*, 2000). Ildo horretan, azterlan honetan frogatu den bezala, ikaskuntza ingurune sortzaile, inspiratzaile zein estimulatzaileak sortzeak garrantzi handia hartzen du (Malaguzzi, 2001; Tonucci, 1995, 2001, 2012, 2017). Areago, ikaskuntza prozesuen garapenean, ikas-inguruneen etengabeko berritze zein hornitze lanek ere garrantzi handia hartzen dute, material egokiak hautatuz eta hauen zaintza zein mantenua ziurtatuz (Trueba, 1989).

Ingurune ahaldundu horiek bermatu ostean, irakaslearen egitekoari arreta jartzea beharrezkoa da, irakaslearen jardunaren oinarrian, irakaslearen sinesmen, pentsaera zein begirada dagoela ulertuz. Salum-ek dioen bezala (2018, 900. or.), ikaskuntza-prozesuaren inguruko kontzientzia hartzeak «egiten dutena ez ezik, nola pentsatzen duten eta nortzuk diren berrikustea dakar. Prozesua ez da soilik kognitiboa, emozionala eta fisikoa ere bada, ongizate-eremutik ateratzea baitakar». Horretan guztian, beraz, hezkuntza arloan ikasle edota irakasle gisa bizitako esperientziei arreta eskaintzea eta barneratutako begirada lantzea ezinbesteko bihurtzen da (Castillo eta García, 2017; Korthagen, 2010). Haurrak erabateko protagonismoa hartzen duen hezkuntza praktikek haurrengan dugun begirada erabat berreraikitzea baitakarte (Karrera *et al.*, 2021), haurrak, ikertzaile baten antzera, jakin-minez bere bizitzari zentzua emanaz, mundua eraikitzen duela ulertuz. Hots, haurra bere buruari galderak eginez eta erantzunak bilatuz, zentzua duten teoriak eta azalpenak eraikitzeko gai dela aditu behar dugu (Malaguzzi, 2001; Tonucci, 1995).

Hortik abiatuta, hortaz, hainbat hezkuntza-bizipen ahalbidetu behar ditu irakasleak, beste konpetentzia edota funtzio batzuk bultzatuz: ikaskuntza-prozesuak behatzea eta haien jarraipena egitea, aholkuak ematea, ideiak proposatzea, ikasleen pentsamendu sortzailea eta gogoetatsua eragitea, etab. (Pérez, 2019): «*Behaketa, esperimentazioa, hipotesiak egitea, galderak, bueno hortik, baina hortako nik ustet utzi egin behar zaiela hortan, egoten, ibiltzen, bakoitzak bere erritmoa errespetatzen eta hor guk egon behar degu*». Ikaskuntzaren bidaia horretan irakaslea prozesuko bidelagun bihurtzen da (Viñals eta Cuenca, 2016): «*Ni naiz bidelaguna (...). Esaten deu guk, bide hortan laguntzea baino horrek ze esan nahi du bide horretan laguntzek? Da bere erritmoa errespetatzea hein baten..., da jakitea ze behar ditun, ze interes ditun, e garapeneko ze puntutan aurkitzen dan, ez? Eta guzti hortan pixka bat laguntzea*» (IRF_EIKTE_IR36_15-18).

Adin aniztasuna guzti horretan erronka garrantzitsu bilakatzen da, maila, adin, interes eta gaitasun desberdineko ikasleak espazio berean hartzeak eta artatzeak irakaslearen jarduna zailtzen baitu (Bustos, 2006; Santos-Gelvasio, 2022). Aniztasun horrek sortzen dituen egoerak Vygotsky-ren (1978) pentsamenduarekin lotuz gero, agertoki horietan irakaslearen bideratzaile rola ezinbestekoa izango da. Berak erraztutako egoeren bidez, ikasleek, autonomoki, sozializazioaren eta elkarrekintzaren bidez, ikaskuntza prozesuan aurrera egitea lortuko baitute.

Horretan guztian, talde izaerak garrantzi handia hartzen du (González eta Barba, 2014), ikerketan adierazi den moduan, kezkak partekatzeko edota ideiak hartzeko taldeko dimentsioa beharrezkoa baita. Areago, eskolaz haratago, sare berearen baitan dauden gainerako eskolak ere, eredu bilakatzen dira irakasle rolaren berreraikitze prozesuan. Hori dela eta, irakasleen arteko topaketa- eta hausnarketa-guneak sortzea eta beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta praktikak entzutea mesedegarria izan daiteke irakasleek bihurtu nahi duten lanbide-figura berri hori birplanteatzeko eta berre-raikitze prozesuan.

Amaitzeko, Little-ren (2001, 2007) hitzez baliatuz, azterlan honen bidez, *ikusezina ikusarazteko* beharra adierazi nahi da, errealitate hauei buruzko ezagutza zabaltzearen eta testuinguru berezi hauen baitan irakaslearen jarduteko modu bereizgarriaren formakuntzaren beharra azpimarratuz (Bustos, 2006; Hargreaves, 2001; Hargreaves et al., 2001; Little, 2001, 2007; Santos-Gelvasio, 2022).

Erreferentziak

- 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 109. zk., 2023ko ekainaren 9koa, 1-41 orr.)
- Åberg-Bengtsson, L. (2009). The smaller the better? A review of research on small rural schools in Sweden. *International Journal of Educational Research*, 48(2), 100-108. Hemendik berreskuratua: <https://doi.org/10.1016/j.ijer.2009.02.007>
- Abós, P. (2015). El modelo de escuela rural ¿es un modelo transferible a otro tipo de escuela?. *Educação & Realidade*, 40(3), 667-684. <https://doi.org/10.1590/2175-623645781>
- Abós, P. (2020). La escuela ubicada en territorios rurales: una escuela diferente, un reto pedagógico. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 26(29), 41-52.
- Aguirregoitia-Güenechea, M. (2024). Antecedents de les escoles rurals a Euskadi (Eskola Txikiak) des de principis del segle xx fins a l'actualitat. *Temps d'Educació*, 66, 177-195.
- Arguiñano, A. (2019). *Hezkuntza berrikuntza: Antzuola herri eskolako bilakaera berrikuntza pedagogikoaren bidean* [doktorego tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/42035>
- Beach, D., eta Vigo-Arazola, M. B. (2021). Critical ethnographies of education and for social and educational transformation: A meta-ethnography. *Qualitative Inquiry*, 27(6), 677-688. <https://doi.org/10.1177/1077800420935916>
- Beneyto-Seoane, M., Carrete-Marín, N., Arregui-Murguiondo, X., eta Domingo-Peñafiel, L. (2023). (Re)conceptualizando la renovación pedagógica en España. Una revisión sistemática. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 21(2), 9-30. <https://doi.org/10.15366/reice2023.21.2.001>
- Boix, R. (2011). ¿Qué queda de la escuela rural? Algunas reflexiones sobre la realidad pedagógica del aula multigrado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 15(2), 13-23.
- Boix, R., eta Bustos, A. (2014). La enseñanza en las aula multigrado: una aproximación a las actividades escolares y los recursos didácticos desde la perspectiva del profesorado. *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 7(3), 29-43.
- Bustos, A. (2006). Los grupos multigrado de educación primaria en Andalucía [doktorego tesia, Granadako Unibertsitatea]. Digibug. <https://digibug.ugr.es/handle/10481/1020>

- Castillo, M. C., eta García, P. A. (2017). La práctica pedagógica, un espacio de reflexión en la formación docente. *Rastros y Rostros del Saber*, 2(1), 74-86.
- Cotán, A. (2020). El método etnográfico como construcción de conocimiento: un análisis descriptivo sobre su uso y conceptualización en ciencias sociales. *Márgenes, Revista de Educación de la Universidad de Málaga*, 1(1), 83-103, <http://dx.doi.org/10.24310/mgnmar.v1i1.7241>
- De la Vega, L. F. (2020). Investigación sobre enseñanza y desarrollo profesional docente en escuelas rurales: una revisión. *REXE, Revista de Estudios y Experiencias en Educación*, 20(43), 307-325.
- Denzin, N. K. (2018). *The qualitative manifesto: A call to arms*. Routledge.
- Eskola Txikiak (2024ko azaroak 25). *Sare izaera. Printzipio eta baloreak*. Eskola Txikiak. <https://www.eskolatxikiak.eus/>
- Europako Parlamentua (2021). *INFORME sobre el Espacio Europeo de Educación: un enfoque global común (2020/2243(INI))*. Comisión de Empleo y Asuntos Sociales. https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-9-2021-0291_ES.html
- Eurydice (2024ko irailak 30). *Marco estratégico de Educación y Formación ET2020*. Ministerio de Educación, Formación Profesional y Deportes, Gobierno de España. <https://www.educacion-yfp.gob.es/mc/redie-eurydice/espacio-europeo-educacion/contexto-politico/antecedentes/et2020.html#:~:text=Desde%202012%2C%20el%20Marco%20ET2020,de%20gobernanza%20en%20este%20sentido>
- Eusko Jaurlaritza (2022). *Caracterización de las zonas rurales de Euskadi*. Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/caracterizacion_zonas_rurales/es_def/adjuntos/Caracterizacion-zonas-rurales.pdf
- Eustat (2021). *Renta familiar media de la C. A. de Euskadi por ámbitos territoriales, según tipo de renta (euros)*. 2021. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/renta-familiar-media-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-tipo-de-renta-euros/tbl0005791_c.html
- Eustat (2022). *Estadística municipal de habitantes*. https://www.eustat.eus/elementos/not0020444_c.pdf
- Eustat (2024ko azaroak 25). *Udalmap. Departamento de Economía, Trabajo y Empleo*. <https://www.euskadi.eus/indicadores-municipales/web01-a2ogaeko/es/>
- Freire, P. (1997). *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI.
- González, G., eta Barba, J. J. (2014). Formación permanente y desarrollo de la identidad reflexiva del profesorado desde las perspectivas grupal e individual. *Profesorado*, 18(1), 397-412.
- Gundumogula, M. (2020). Importance of focus groups in qualitative research. *The International Journal of Humanities & Social Studies*, 8(11), 299-302. Hammersley, M. (1999). «Introduction». In M. Hammersley (Ed.), *Researching School Experience: Ethnographic Studies of Teaching and Learning* (pp. 1-14). Routledge.
- Hammersley, M. (2017). What is ethnography? Can it survive? Should it? *Ethnography and Education*, 13(1), 1-17. <https://doi.org/10.1080/17457823.2017.1298458>
- Hargreaves, E. (2001). Assessment for learning in the multigrade classroom. *International Journal of Educational Development*, 21, 553-560. [https://doi.org/10.1016/S0738-0593\(01\)00015-3](https://doi.org/10.1016/S0738-0593(01)00015-3)
- Hargreaves, L. (2009). Respect and responsibility: review of research on small rural schools in England. *International journal of educational research*, 48, 117-128. <https://doi.org/10.1016/j.ijer.2009.02.004>
- Hargreaves, L. (2017). Primary education in small rural schools: past, present and future. In R. Maclean (Ed.), *Life in Schools and Classrooms* (pp. 223-243). Springer.

- Hargreaves, E., Montero, C., Chau, N., Sibli, M. eta Thanh, T. (2001). Multigrade teaching in Peru, Sri Lanka and Vietnam: an overview. *International Journal of Educational Development*, 21(6), 499-520. [https://doi.org/10.1016/S0738-0593\(01\)00013-X](https://doi.org/10.1016/S0738-0593(01)00013-X)
- Herrera, J. I., eta Guevara, G. (2019). *Las estrategias organizativas y metodológicas para la atención a la diversidad en el aula: innovar para enseñar*. Repositorio Digital de la Universidad Nacional de Educación. <http://repositorio.unae.edu.ec/handle/56000/568>
- Karrera, I. (2008). *El método cualitativo como herramienta válida en la resolución de conflictos* [doktorego tesia, UPV/EHU].
Baso-eskolen printzipio metodologikoak lau oinarri nagusiren inguruan ardaztu ohi dira: jolas librea, curriculumari lotutako proposamen gidatuak, elkarrizketa eta ingurune naturalarekin kontaktu jarraitua. Eskola-jarduera guztiak aire zabalean egin ohi dira, baso, zuhaitz edo berdegune naturaletan eta planteamenduak natura integratzen du bere filosofia, curriculum edota ingurune orokorrean (Cooper, 2015). Espazio horrek, gainera, ikasleei onurak dakarzkien osasun arloan zein psikologikoan (Dabaja, 2021; Johnstone *et al.*, 2022; Vella-Brodrick eta Gilowska, 2022). Hala ere, egunerokotasunean natura eskaintzen duten eskolak libreak edo pribatuak izan ohi dira eta, beraz, orokorrean, ez dira izaten familia guztientzako aukera bat.

Naturarekin kontaktua ikasle guztiengana hurbildu asmoz, 2016ko apirilean baso-eskolako Batzorde Teknikoa osatzen da Kutxa Fundazioko, Berritzeguneko, Ingurugela-CEIDAKo, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Gipuzkoako hiru ikastetxeetako ordezkari-tzarekin. 2016ko maiatzean «Naturan Hezi, baso-eskola ereduen estudioa» txostena sortu zen, Batzorde Teknikoan landutako estudioa. Aipatutako txosten horretan honela definitzen da baso-eskola proiektua: «Helburua eskolak naturara gerturatzea da, bi fase eskainiaz, eskola guztiek aukera izan dezaten: lehena, pilotaje bat egitea Kutxa Ekogunean bertan; eta bigarrena, Ekoguneko pilotaje hori eredutzat hartuta etorkizunean hezkuntza-metodologia hau beste eskoletan ezartzea».

Lehen fasea, gertuko bi eskolekin pilotatu zen Kutxa Ekogunean (Donostia) 2017-2018 ikasturtean zehar. Eskola hauetako Haur Hezkuntzako 4 urteko eta 5 urteko lehen osoak, hurrenez hurren, txandaka egon ziren Ekoguneko basoan. Froga eta estudio hori, bigarren faserako ezinbestekoa izan zen, Kutxa Fundazioak esperientzia pilotu hau baliatu baitzuen handik aurrera inguruko eskoletan baso-eskola metodologia ezartzeko. Pilotu hori baliatuta, bigarren fasea abiatu zuten eta gaur egun Gipuzkoako 38 ikastetxek osatzen dute «baso-eskolen sarea» (<https://kutxafundazioa.eus/eu/baso-eskola>).

Baso-eskola eredu horrek baso-eskola ereduan ohikoak diren ezaugarriak ditu, esate baterako, natura bera dela baliabide didaktikorik garrantzitsuen, hezkuntza edukiak curriculum ofizialean oinarrituta daudela eta ohikoa dela jolas librea batik bat Haur Hezkuntzan, metodo naturalizat jotzen delako. Alabaina, baditu ezaugarri propioak ere, bereziki arlo metodologikoari dagokionez, parte hartzen duten ikastetxeek euren ohiko eredu eta baso-eskola eredu txandakatzen dituztelako. Beste berezitasun bat litzake ikasleak orain arte hezkuntza-eredu estandar batean murgilduta egon direla, edo beste hitzetan esanda, ez dutela parte hartu naturarekin kontaktu jarraitua duten baso-eskola bezalako esperientzia batean.

Ikerketa honen helburu nagusia, beraz, proiektu pilotu honen baliozkotasuna ebaluatzea da eta horretarako hainbat helburu definitu dira: (1) Baso-eskola proiektu pilotuan erabilitako eremu naturaletako ingurune fisiko eta materiala bera ebaluatzea, eta eskolan aurki daitekeenarekin alderatzea; (2) haurrek espazio fisiko eta naturalekin sortzen dituzten harremanak aztertzea; (3) baso-eskolan parte hartzen duten Haur Hezkuntzako haurren jolasa nolakoa den eta nola gertatzen den aztertzea, baita honen inplikazio-maila ere; (4) ikasleen ingurumen-jarrerak neurtzea; eta (5) baso-eskolan parte hartzen duten ikasle zein familien hitza jasotzea.

Metodoa

Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan, baso-eskola sareko hiru ikastetxek hartu dute parte. 2017/2018 ikasturtean lehen pilotajea parte hartu zuten Amara Berri ikastetxeko bi talde aztertu dira (5 urteko 46 haur) eta Langile Ikastolako beste bi (4 urteko 40 haur). Azkenik, 2018/2019 ikasturtean baso-eskola herrian bertan abiatu zuen lehen eskolako, hau da, Alkizako eskola txikiko talde bat (2-5 urteko 20 haur) aztertu da.

Behatutako hiru ikastetxeak Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dauden arren, nahiko testuinguru ezberdina dutela esan daiteke. Amara Berri Urbietako gunea, Donostiako (214.234 bizt.) erdigunean kokatutako ikastetxea da, eraikin historiko baten baitan eta jolastoki txiki batekin eraikinaren barruko eremu estali batean. Langile Ikastola ere, Hernaniko erdigunean kokatuta dago baina herria bera txikiagoa da (20.013 bizt.) eta kultur aniztasun txikiagoa dago eskolan. Azkenik, Alkizakoa landa eremuan kokatutako eskola txikia da, mendi artean eta ingurune natural paregabean, 400 biztanle baino gutxiagoko auzunean.

Ikasleen profila eta kopurua ere desberdina da ikastetxe batetik bestera. Donostian, talde bakoitzak 23 ikasle zituen, gehienak Donostia erdigunekoak eta gelan hizkuntza eta kultura aniztasuna handia zen. Hernanin, gelak txikiagoak ziren, 20 ikaslekoak eta kasu honetan, bazeuden landa eremutik zetozen ikasleak ere, nahiz eta gehientsuak herri erdigunekoak izan. Azkenik, Alkizan, 20 ikasleko taldea zuten eta denak landa eremukoak.

Basora joateko maiztasunari dagokionez, pilotuan zehar Donostiako eta Hernaniko ikasleak hileroko astebetez jarraian joaten ziren basora, eta ondoren, hiru aste ematen zituzten basora joan gabe. Aldiz, Alkizan astean behin joaten ziren ikasleak basora (ostiralean).

Hiru ikastetxeek, basora joateko errutina bera jarraitzen zuten. Basoko egunetan, arropa iragazgaitzak jantzita zihoazen eta aldatzeko arropak poltsa batean eraman ohi zituzten. Basora irten aurretik, komunetik pasa, basora eraman beharreko materialak elkarrekin aukeratu eta bertaratu zen ikasle kopurua zenbatzen zuten, baita ikasle laguntzaile edo ordezkari bat aukeratu ere. Ondoren, basorako bidea hartzen zuten, Amara eta Langileren kasuan autobusean Ekogunera eta Alkizaren kasuan oinez. Basora iritsitakoan, biribilean eseri, basoko arauen inguruan hitz egin eta basoari, bertan egoteko baimena eskatzen zion ikasle arduradunak. Arauak taldean adosten bazituzten ere, ikasle taldeari zein natura zaintzeari buruzko gomendioak ohikoak ziren. Basoari baimena eskatu ondoren, proposamen gidatu batetik abiatu ohi ziren eta, ondoren, jolas librerako bi ordu inguruko tarteak uzten zuten. Jolas librean zehar, irakasleek ikasle taldea behatzen zuten eta ikasleen inguruko oharrak hartu, haien ikasketa-prozesua, interesak, suerta zitezkeen gatazkak, etab. jaso asmoz. Ikerketa horretako datu ugari ere, ikasleak jolas librean zeuden bitartean jaso dira, basoan eta eskolako jolastokian. Jolaserako tarte hori bukatuta, ikasleek hamaiketako egin ohi zuten eta ondoren berriro irakasleek behatutakoaren inguruko proposamen gidatuak egiten zituzten, etapa bakoitzeko eskakizun curricularrekin lerratuta zeudenak.

Espazioak

Espazioak eragindako interferentziak saihesteko, adierazle guztiak espazio berdinen baitan behatu dira (1. irudia). Amara Berriren kasuan, behaketa guztiak Menditxo izeneko eremuan burutu dira (1A. irudia); Langile eskolaren kasuan Kutxa Ekoguneko etxolaren inguruko eremuan (1B. irudia); eta azkenik Alkizako eskola txikiaren kasuan, Hernio bailarako eremuan (1C. irudia). Hiru guneak, baso misto epel izeneko biomari dagozkio, hain zuzen, hostozabalen baso atlantikoak. Bioma honetan, urtaro hotzak eta beroak txandakatzen dira eta Golkoko korrante ozeanikoak mugatzen ditu tenperaturak: atmosferako zirkulazio nagusia ipar-mendebaldetik dator eta Ozeano Atlantikoan sortzen diren hodei fronteak ekartzen ditu. Fronte atlantikoak isurialde atlantikoan husten dute euria eta 2.000 l/m²-ko prezipitazioak jasan ditzakete, erliebe gorabeheratsua eraginez. Substratuari dagokionez, margak eta kareharriak dira nagusi isurialde atlantikoan, euri ugariak garbituta (Aizpuru, 2004).

Jolastokiei dagokionez ere, espazioak nahiko ezberdinak ziren. Amara Berri ikastetxeko jolastokia, eraikin historiko bateko barruko patioak osatzen zuen (egun be-

rritua izan da). Jolastoki iluna zen, argi natural gutxikoa eta ikasleen jolaserako parke txiki bat zuena. Jolastokiaren eremu batean, baratze txiki bat ere aurki zitekeen. Hernaniko jolastokia zabala da, belarrez estalitako eremu gorabeheratsuak ditu eta kasu honetan ere parke txiki bat aurki daiteke. Azkenik, Alkizako eskolak ez du berezko jolastokirik eta herriko plaza edo frontoia erabiltzen dute ikasleek patio garaian, beraz, herritarrekin partekatzen dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek (1D-F. irudiak).



Goitik behera eta ezkerretik eskubira: (A) Donostiako 5 urteko ikasleek erabilitako Menditxo gunea. Errekastoa ikus daiteke bertan. (B) Hernaniko 4 urteko ikasleek erabilitako gunea. Ikasleek bazkaltzeko eta siestarako erabiltzen zuten basoko etxola ere ikusten da bertan. (C) Alkizako 2-5 urteko ikasleek erabilitako gunea. Saio bukaerako borobilean, irakaslea ikusitakoaren inguruan hitz egiten. (D) Amara Berriko jolastokia; (E) Langileko jolastokia; (F) Alkizako jolastokia.

1. irudia

Aztertutako espazioen argazkiak

Tresnak

Ikerketa honetan erabilitako ebaluaziorako tresnak ikasleak ez ezik, ingurunea bera ebaluatu eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten bestelako agenteen (kasu honetan, familien) hitza jasotzeko helburuz garatu dira (Sanz *et al.*, 2018). Datuen bilketarako erabili diren ebaluazio-esparru eta adierazleak 1. taulan jasota daude (Sanz *et al.*, 2018).

1. taula

Ikerketa honetan ebaluatutako eremuak eta ebaluaziorako tresna eta adierazleak

Aztergaia	Egokitutako tresna (Sanz et al., 2018)	Lagina	Maiztasuna	Lekua
Ingurune fisiko eta materiala (1.1)	E C E R S eskala (Harms, 2006)	106 haur (3 ikastetxe, 5 gela)	Udazken, negu eta udaberrian	Jolastokian eta basoan
Ingurune naturala (1.2)	Gertuko naturaren behaketa (Corraliza eta Collado, 2011)	106 haur (3 ikastetxe, 5 gela)	Udazken, negu eta udaberrian	Jolastokian eta basoan
Ikasleen jolasa (2.1)	POS eskala (Rubin, 1989)	106 haur (3 ikastetxe, 5 gela)	Astero ikasturte guztian zehar	Jolastokian eta basoan
Ikasleen inplikazioa jolasean (2.2)	EELPCIS eskala (Laevers, 2005)	106 haur (3 ikastetxe, 5 gela)	Astero ikasturte guztian zehar	Eskolan eta basoan
Ikasle-irakasle harremanak eta giroa (2.3 eta 2.4)	E C E R S eskala (Harms, 2006)	106 haur (3 ikastetxe, 5 gela)	Udazken, negu eta udaberrian	Eskolan eta basoan
Ikasleen eko- kidetasuna eta ingurumen-jarrerak (3.1)	NEP eskala (Manoli et al., 2007)	30 haur (5 gela)	Udazken, negu eta udaberrian	Basoan
Ikasleen ingurune naturalari buruzko ezagutza (3.2)	<i>Process oriented in- quiry</i> (Martin et al., 2005; NGSS, 2013)	3 irakasle (3 gela)	Udazken, negu eta udaberrian	Basoan
Baso-eskolaren inpaktua	Galdetegia (O'Brien eta Murray, 2007)	90 familia	Ikasturte bukaeran	—

Prozedura

Ikasle guztien behaketak ikasturte oso batean zehar egin dira, irailean hasi eta ekaineraino urtaro bakoitzean (udan izan ezik, ikasleak ez zeudelako ikastetxean). Amara Berriko bi talde aztertu dira (5 urteko 46 haur), Langile Ikastolako beste bi (4 urteko 40 haur) eta Alkizako eskola txikiko talde bat (3-5 urteko 20 haur). Datu bilketak haurrak baso-eskolan zein euren eskolako jolastokian daudenean egin dira, astebetez laginketa bakoitzean.

Denbora horretan zehar, ikerlari nagusia baso-eskolako saioen % 90ean egon da eta ikasleak eskolan zein jolastokian hainbatetan behatu ditu; kontaktu estu horrek ikasleak ondo ezagutzea baimendu du baita haien jokabideak basoan zein ikastetxean alderatu ahal izatea ere. Ikerlari nagusiak ebaluaziorako tresna bakoitzarentzako emaitzak jaso ditu (Allen, 2017), baita bestelako ohar gehigarriak ere, betiere ikasleen anoni-motasuna gordez.

Ingurune fisiko eta materiala aztertzerako orduan (1.1. eta 1.2 adierazleak), zein irakasle-ikasle harremana eta une estresagarriak ebaluatzerako orduan (2.3. eta 2.4. adierazleak), denbora-tarte bera hartu da jolastokian zein basoan eta bi kasuetan, ikasleak jolas librean zeuden behaketa unean. Hasierako 30 minutuak giroaz jabetzeko erabili dira eta gero behaketa egin. Item batzuk ez daude denbora zehatz bati lotuta (adibidez espazioari lotutakoak —baliabideak, irisgarritasuna, segurtasuna, azalera naturala, etab.—), berriz, interakzioak edo errutinak momentuan behatu dira (adibidez, osasun praktikei lotutakoak —eskuak ongi garbitzea, arropa egokia janztea, etab.—; ekintza gidatuei lotutakoak —curriculum lantzeko proposamen gidatuak, materialak eskaintzea, etab.—; harremanei lotutakoak —konfiantza, elkarbizitza, etab.—; edota une estresagarriei lotutakoak —zazpita maila, jarrera desegokiak, negarrak, etab.—). Bukaeran, 20-30 minutu erabili dira momentuan behatu ezin izan direnetan sakontzeko. Ikasle eta irakasleen arteko harremanak neurtzeko (2.3. adierazlea), behaketak astearen erdian egin dira Amara Berri eta Langile ikastetxeetako kasuan, ikasleek asteko erritmoa hartuta zutela bermatzeko.

2.1. eta 2.2. adierazleen neurketa, haurren jolas librea hasi eta 30 minutura burutu da, ikusi baita hau dela hurrek jolasean sartzeko behar duten denbora (Ward, 1994). Basoko saio bakoitzean taldetik hiru ikasleren behaketa egin da, hauengan jarritz fokua: zeinekin jolasten zuten, zenbat denboraz, zer erabiliz, zertara, zein motibazioarekin, etab. nahiz eta zeharka, ikasle horiekin jolasean zebiltzanak ere behatu diren. Jolasa behatzeko talde guztia begibistan izatea baimentzen zuen leku bat aukeratu da eta Jolasaren Behaketa-Eskala erabili da (Rubin, 1989). Eskala honek jolasa neurtzeko bi kategoria bateratzen ditu: soziala (Parten, 1932) —bakartia, paraleloa edo talde-jolasa—; eta kognitiboa (Piaget, 1962)— funtzionala, eraikuntza, sinbolikoa edo arautua.

Jolas librea hasi eta ordu erdira, aukeratutako ikasleen jolasak 2-5 minutuz behatu dira, jolas mota nagusiak zein ziren (2.1 adierazlea) eta inplikazio maila (2.2. adierazlea) kontuan hartuz. Behaketak egin diren bitartean, ez da beste talderik egon ingurunean (ezta jolastokian ere).

Ikasleek ingurune naturalarekiko zituzten jarrerak (3.1. adierazlea) elkarriketa bidez neurtu dira. Horretarako, 30 ikaslez osatutako lagin bat aukeratu da eta 15 minutuko solasaldi bat izan da ikasleetako bakoitzarekin modu indibidualean. Naturarekiko jarrera neurtzeko, galdera sinple batzuen bidez egin da (adibidez, «*Animaliak eta landareak garrantzitsuak dira? Zergatik? Zertarako...?*») eta galdera hauek, eredu ezberdinak edo haurraren egunerokotasunaren aipamenak eginez osatu dira erantzunak errazteko. Azkenik, ikasleek ingurune naturalari buruz zuten ezagutza neurtzeko, irakasleekin elkarriketak egin dira 40 egunean behin basoko saioa amaitu ondoren.

Familiei zuzendutako galdetegiaren kasuan, ikasturte bukaeran Google Forms erabiltzaile galdetegi bat helarazi zaie ikastetxearen bidez.


Analisi estatistikoak

Datu gordinak SPSS (22. bertsioa) software-arekin landu dira. Baso-eskolako datuen eta kontrolen arteko adierazpen desberdintasunak aztertzeko T-Test bat erabili da eta Barriantzen analisia (ANOVA), esangarritasun estatistikoa ondorioztatzeko. Desberdintasunak estatistikoki esangarritzat jo dira $p < .05$ izan denean, Bonferroni zuzenketa ostean.

Emaitzak

Ingurune fisiko eta materiala (1.1. adierazlea)

ECERS eskala ebaluatzeko 43 itemetatik, 7 behatu dira ikerketa honetan: (1) Motrizitate lodia lantzeko espazioak eta baliabideak; (2) Osasun praktikak; (3) Segurtasun praktikak; (4) Eraikuntzarako egiturak; (5) Area/Ura; (6) Natura/Zientzia; eta (7) Jolas libre. Emaiza nagusiak 2. irudian jasota daude.



Oharra: Aztertutako ikastetxeen batz besteko emaitzak agertzen dira. *** $p < .001$.

2. irudia

Ingurune fisiko eta materialaren azterketa ECERS-R eskalan jasota (Harms, 2002)

Motrizitate lodia lantzeko espazio eta baliabideek puntuazio hobeak lortu dituzte baso-eskolan. Aldiz, eskolako emaitzak jolastokiek baldintzatu dituzte eta beraz, oso ezberdinak izan dira ikastetxearen arabera. Kasu guztietan, basoak baliabide anitz eskaini ditu ikasle guztiek motrizitate lodia landu ahal izateko, adibidez, salto eta korrika egiteko, lau hanketan eta arrastaka ibiltzeko, eskalatzeko, kulunkatzeko, etab. Aldiz, eskolako jolastokiek horrelako ekintzetara bideratutako gune mugatuagoak izan dituzte. Bi kasuetan, arriskuak minimizatzeko zein irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak hartu dira eta ezintasun fisikoak dituzten ikasleentzako oztopoak gainditzeko neurriak hartu dira.

Osasun- zein segurtasun-praktikei dagokionez, ez da ezberdintasun esangarririk behatu basoaren eta jolastokiaren artean. Osasun-praktiken kasuan, basoan zein jolastokian, kutsakorrek diren gaixotasunen aurkako prozedurak ezarrita daude, ikasleak arropa egokiekin jantzita daude, busti edo hoztuz gero arropa aldatu zaie, langileek osasun praktika eredugarriak dituzte ikasleen aurrean, hamaiketakoak jan aurretik eskuak garbitzen dituzte (basoan ur eta xaboez osatutako «oinarrizko kit» baten bidez)

eta botikinaren erabilera zuzena egiten da. Segurtasun-praktikei dagokienez, irakasle praktika onak identifikatu dira ikastetxean zein baso-eskolan, esate baterako, alerta meteorologikoak aurrez identifikatuta edota basoan aurkitu daitezkeen landare «arris-kutsuak» aipatuta. Gainera, bi kasuetan ikasleek errespetatu egiten dituzte emandako oharrak eta arauak.

Basoan zein jolastokian, eraikuntzarako egitura ezberdinak dituzte eskuragarri ikasleek: (a) Unitate-egiturak (forma ezberdinekoak, adibidez, laukizuzena, laukia, triangelua, zilindroa...); (b) Egitura handiak (garraiatzeko blokeak, enbor handiak, harri handiak...); (c) eta etxeko egiturak (birziklatutako materialekin egindakoak, adibidez, zerealen kartoizko kutxak, plastikozko ontziak...). Basoa unitate-egituretan eta egitura handietan aberatsagoa izan da eta naturako elementuak topa daitezke egunerokotasunean: egurrezkoak (enborrak, makilak, adarrak,...), tamaina eta forma ezberdineko harriak, hostoak, landareak eta fruituak, etab. Ikastetxeetako materiala anitza eta aberatsa izan den arren, gehienetan egituratutako materiala izan da eta hauen erabilera-maiztasuna txikiagoa izan da jolastoki garaian.

Baso-eskolako espazioak oso aberatsak izan dira bai harearekin (etxola azpian dagoen espazioa) edo lokatzarekin baita urarekin jolasteko ere (euria egiten duenean sortzen diren putzuak edo espazio propioetan). Ikastetxeei dagokienez, kasu batean jaso da jolastokian harearekin jolasteko espazio bat baino euria egiten zuenean ezin izaten zuten erabili.

Natura eta zientzia lantzeko material anitza egon da eskuragarri ikastetxean zein basoan eta ikasleen ezagutza-mailara egokituta egon da. Bi kasuetan, langileek natura edo zientziarekin zerikusia duten materialak ekartzeko bultza dituzte ikasleak, besteekin konpartitzeko edo bildumak osatzeko (zuhaitzen hostoak, harriak...). Dena dela, basoan maizago bultzatu dira natura/zientzia lantzeko jarduerak, adibidez sukaldatzea, esperimendu sinpleak egitea edo eguraldiaren behaketak erregistratzea. Gainera, bestelako materialak ere eskaini zaizkie basoan: kuboak, tamaina ezberdinetako kutxak, lupak, landa gidak, tamaina ezberdinetako ontziak, sokak edo ur botilak. Horien bitartez, ikasleek kontzeptuak landu eta frogatzen zituzten (flotatu, hondoratu, ...), esperientzia praktikoak indartu eta eguneroko gertaerak natura edota zientzia ikasteko erabili dituzte, adibidez, eguraldiaz hitz egin, txoriak edo zomorroak behatu, kometak heganarazi, elurra urtuarazteko esperimenduak egin, etab. Ikasleen arteko ikasketa ere behatu da basoan, ikasle batek zerbait frogatzean gainontzekoei erakusten zielako. Jolastokietan, aldiz, tarteka baizik ez ziren egiteko irakasleek bultzatuta zientzia lantzeko proposamenak (haziak landu kristalezko edo jogurt potetan, balantzen erabilerak, etab.).


Azkenik, jolas libreari dagokionez ere, emaitzak ezberdinak izan dira modu esanguratsuan, basoan eta jolastokian. Eskolan, eguraldi euritsurik ez zegoen egunetan baizik ez zuten ikasleek jolas librerako tartea jolastokian, eta jolasa gehiagotan eteten zela behatu da, adibidez, hurrei euskaraz hitz egiteko esateko, hurrei zertan jolasten ari ziren galdetzeko, etab. Basoan zein jolastokian, irakasleek hezkuntzaren ikuspegitik arretaz behatzen zituzten ikasleak, adibidez, haurren interesak zeintzuk ziren jasoz. Alabaina, basoan jolas librerako tartea amaitzean, langileek jolasean zehar ateratako zenbait kontzeptu lantzeko tartea hartzen zuten.

Ingurune naturala (1.2. adierazlea)

Eskola-inguruneke natura kantitatea erregistratzeko, zenbait aldagai kontuan hartu dira, hala nola ikastetxeko elementu naturalen kantitatea (zuhaitzak, harea, zuhaixkak eta abar egotea) edo ikasgeletako ikuspegi naturaltasuna. Espero zitekeen moduan, adierazle horri dagokionez ere ezberdintasun esangarriak behatu dira jolastokiaren eta basoaren artean, eta jolastoki batetik bestera ere aldakortasuna handia izan da. Kasu gehienetan, basoak puntuaziorik altuena lortu du (bataz beste, 6,33): azalera berdeak % 90 baino gehiago osatzen zuen eta elementu ezberdinak zituen (belardia, zuhaixkak, zuhaitzak, lorontzi handiak landareekin, area, egurra, bidexkak...). Gainera, espazio horiek egunero erabiltzen ziren jolaserako. Jolastokiei dagokionez, 2-5 arteko puntuazioak lortu dira. Kasurik onenetan, azalera berdea, % 15koa izan da eta jolastoki batzuetan eskola baratza bazegoen ere, ez zegoen ondo landuta edo ez zen maiz erabiltzen (1. irudia).

Jolasa (2.1. adierazlea)

Jolas sozialari dagokionez, ikasleak modu bakartian, paraleloan edo talde-jolasean aritzen ote ziren behatu da. Ikusi denaren arabera, ikasturteko lehen saioetan, jolas bakartia nagusitzen da jolas paraleloaren eta talde-jolasaren gainetik, bai basoan eta baita jolastokian ere. Dena dela, basoko zein eskolako egunek aurrera egin ahala, talde-jolasa nagusitzen hasten da eta, bereziki, basoko saioetan (3. irudia).




3. irudia

Jolas sozialen eboluzioa basoko saioetan ikasturtean zehar

Horrez gain, desberdintasun esanguratsuak ikusi dira jolastokian zein basoan, jolas sozialari dagokionez. Ikasturtean zehar egindako behaketa guztiak kontuan hartuta, jolas bakarti gehiago behatu da eskolako jolastokian eta, aldiz, talde-jolasak basoan ugariagoak izan dira. Jolas paraleloari dagokionez, ez da desberdintasun esangarririk ikusi (3. irudia).

Arlo kognitiboari dagokionez, aldiz, lau motatakoa izan daiteke jolasa: jolas funtzionala, eraikuntza-jolasa, jolas sinbolikoa, edo jolas arautua.

Jolastokian, eraikuntza jolas gehiago behatu dira eta ezberdintasun esangarriak ikusi dira basoarekin alderatuta. Aldiz, basoan, jolas funtzionala, sinbolikoa eta arautua gailendu diren arren, ez modu esangarrian. Dena dela, jolas sinboliko bakartia gehiago eman da jolastokian modu esangarrian ($p = .008$) eta aldiz talde-jolas sinbolikoa, basoan gailendu da modu esangarri batean ($p = .01$) (4. irudia).



Aztertutako ikastetxeen batzuetan besteko emaitzak agertzen dira. ** $p < .05$

4. irudia

Jolas sozialak eta kognitiboak konbinatuta


Irakasle-ikasle harremanak (2.3. adierazlea) eta talde giroa (2.4. adierazlea)

ECERS eskala oinarri hartuta, langile eta ikasleen arteko interakzioa zein ikasleen arteko interakzioa nolakoa den behatu da. Kasu guztietan, langileek ikasleekiko dituzten jarrerak puntuazio maximoak lortu ditu basoan zein jolastokian, hau da, bi espazioetan, irakasleek heldu eta haurren arteko begirunea bultzatzen zuten eta ikasleek, irakasleak babestu eta erabakiak hartzen laguntzen zituzten norbanako modura identifikatzen zituzten, elkarrenganako jarrera txeratsu eta maitekorrak adieraziz (5. irudia).

Dena dela, ikasleek haien artean azaldutako harremanetan bai ezberdintasun esangarriak ikusi direla jolastokian zein basoan. Basoan, ikasleen arteko elkarrenganako ia-ia beti positiboak izan dira, ongi moldatzen ziren elkarrekin jolasean borrokatu

gabe, materialak partekatzen zituzten eta elkarbizitzarako arauak errespetatzen zituzten. Aldiz, jolastokian orokorrean giro ona egon arren, ikasleen arteko gatazka gehiago behatu dira (5. irudia).

Talde giroari dagokionean, basoan puntuazio maximoak lortu ditu kasu guztietan, hau da, espazioan zarata maila baxua zen, irakasleek ez zuten ahotsa altxatu behar azalpenak emateko, lankidetzan eta modu autonomoan aritzen ziren ikasleak eta ikasle nahiz irakasleen arteko giroa alaia zen. Gainera, ikasleak motibatuak zeuden jarduerak burutzeko. Aldiz, jolastokian ere emaitza onak lortu ziren arren, gatazka gehiago gertatu ziren, zarata maila altuagoa zen eta irakasleek maizago altxa behar izaten zuten ahotsa (5. irudia)




Aztertutako ikastetxeen batzuetako emaitzak agertzen dira. ** $p < .001$.

5. irudia

Ikasle eta irakasleen arteko harremanak eta une estresagarriak ECERS eskalan adierazita (Harms, 2002)

Ikasleen ingurumen jarrerak (3.1. adierazlea)

Ikasleen eko-kidetasuna neurtu ikasleen erantzunak antropozentriko/ekozentriko bezala definitu ziren. Denborak aurrera egin ahala, haurren erantzunek ekozentrismo-ranzko bidea egiten dutela behatu da (6. irudia). Hori euren portaeretan ere islatzen da, naturarekin duten harremana aldatu egin baita. Ikasturtearen hasieran animalia edo intsektu txikiak zanpatu edo etxera eramaten saiatzea ohikoa bazen ere, ikasturte bukaerarako haiekiko enpatia garatzen dute. Adibide grafiko batean: basoan hildako animalia bat aurkitzen duten kasuetan, umeak triste sentitzen dira eta lurperatu egiten dute.



1. (udazken), 2. (negu), eta 3. (udaberria) neurketetan haurrek emandako erantzunak ehunekoetan

Horrez gain, argi ikusi da haurren inguruneak asko mugatzen dituela erantzunak: landa eremuko haurrek, askoz erantzun antropozentristagoak ematen dituzte hiri-guneetakoek baino, gehienetan, natura ustiatzeko baliabide bezala ikusten dutelako etxean.

Hauek dira jasotako erantzun ekozentristetako batzuk: «Zuhaitzak garrantzitsuak dira bizitza ematen dutelako pertsoneri eta animaliei» edo «Ezin gara zuhaitzik gabe bizi, oxigenoa ematen dutelako». Aldiz, erantzun antropozentrista hauek ere jaso ziren: «Zuhaitzak garrantzitsuak dira frutak ematen dituztelako eta landareak ere bai zergatik gero loreak hazten dira eta horrekin perfumea egiten da» edo «Landareak garrantzitsuak dira ume bat gaixo baldin badago, jarabea ematen dutelako».

Ikasleen ingurune naturalari buruzko ezagutza (3.2. adierazlea)

Irakasleekin egindako aldizkako elkarrizketen bidez ikasleek ingurune naturalari buruz duten ezagutza kuantifikatu da (edukiak) eta ikasleen gaitasun zientifikoa neurtu da (prozedurak) (7. irudia). Baso-eskolan jolas libreak garrantzia handia badu ere, irakasleek elkarrekintza eta esplorazioa bultzatu dute, materialen, animalien eta landareen presentzia fisikoa aprobetxatuz, baita komunikazioa eta hausnarketa bezalako prozesuak ere, eta, beraz, kasu askotan, eskolan egin ohi duten behaketa hutsetik askoz haratago joan dira.

Ikastetxe berdinetan aurreko urteetan landutako edukiekin alderatuz, baso-eskolako pilotuko ikasturtean zehar, eduki gehiago landu dituzte irakasleek. Gai aztertuena izaki bizidunena izan da: ikasleek basoan bizidunekin izan duten eguneroko elkarrekintzari esker, etengabe alderatu ahal izan dute beren burua haiekin ikasleek: «Zer jaten dute? Nola mugitzen dira? Ba al dute begirik? Hilda al dago historik gabeko zuhaitza?»... Hildako animaliak aurkitzeak haien deskonposizioa epe luzera ikustea ahalbidetu du. Aurreko ikasturteetan eskolan izaki bizidunak lantzen bazituzten ere, haien ezaugarri eta bizilekuetara mugatu ohi ziren baina basoan, izaki bizidun horien beharrak, bizi-zikloa eta bioaniztasuna esploratu ahal izan dute eta ikasleak gai izan dira hainbat bizidunen beharrak irudikatu eta komunikatzeko ere.

	1. Behatu	2. Saikatu / Neurtu / Alderatu	3. Esploratu	4. Irudikatu	5. Komunikatu
Izaki bizidunak					
Ezaugarriak					
Beharrak					
Bizi-zikloa					
Bioaniztasuna					
Habitata					
Lur zientziak					
Eguraldia					
Uraren zikloa					
Eguzki sistema					
Fisika					
Indarrak					
Materiaren egoera					
Argia					

Oharra: aurreko ikasturteetan adin bereko ikasleekin ikastetxean landutako eduki eta prozedurak (grisez) eta baso-eskolako proiektu pilotuan zehar landutakoak (berdez).

7. irudia

Irakasleek landutako eduki eta prozedura zientifikoak


Lur zientzietako edukiei dagokionez, aurreko ikasturteetan ikastetxean eguraldia behatu eta neurtzen zutela adierazi dute irakasleek, baita egun eta urtaro ezberdinetako eguraldia alderatu ere. Aldiz basoan, eguraldi eta urtaro aldaketak esploratu, irudikatu eta komunikatu ahal izan dituzte ikasleek, adibidez, adieraziz «*Neguan euriarekin azkarrago hozten garela eta berotan sartzeko edari goxoak ematen dizkigutela*». Uraren zikloari dagokionez, ikastetxean ez zuten gai hau lantzen baina basoan bai ikasleak gai izan direla uraren egoera aldaketa ezberdinak alderatu eta esploratu, eta uraren zikloaren hainbat oinarri komunikatzeko, esaterako «*hotza egiten duenez putzuak izoztu dira!*», «*euririk egiten ez duenean putzuak desagertu egiten dira*» edota «*ur asko egin duenez erreka berriak egin dira*». Gainera, nahasteak aztertu ahal izan dituzte, lokatza eta urarekin jolastuz eta dentsitate ezberdineko nahasteak sortzeko gai izan dira, adibidez, «*ur asko baldin badu kolakaoa prestatuko dugu*» edo «*ekarri lokatz gehiago buztinarekin formak sortu ahal izateko*»; baita gaitasun matematikoa lantzeko ere, adibidez, ibaiaren sakonera makilekin neurtzean eta ur ontziak betetzean.

Eguzki-sistemari dagokionez, batez ere ikastetxean landu dute zeharkako behaketaren bidez, hau da, Eguzki-sistemaren irudi eta bideoak ikusiz. Baina baso-eskolako pilotuan zehar, Alkizako eskolakoek ilargiaren faseen jarraipena egin ahal izan dute eta goizero ordu berean ilargia, herriko plazarekiko non ikusten duten eta haren forma zein den jaso dute argazkien bidez, ondoren mural batean irudikatuz.

Azkenik, fisikako edukiei dagokionez, baso-eskolako material eskuragarritasunak erraztu du hainbat kontzeptu fisiko bereganatzea ikasleek, esate baterako oreka eta indarrei dagozkionak, etxolak eraikitzean, katapulta txikiak egitean, etab.

Baso-eskolaren inpaktuak familien arabera

O'Brien eta Murrayren ikerlanean oinarrituta (O'Brien eta Murray, 2007), baso-eskolaren inpaktuak eragiten duen arlo nagusien inguruan galdetu zaie familiei ikasurte bukaeran (8. irudia). 90 familiak bete dute galdetegia eta soilik % 14,4k ez du haien seme-alabengan hobekuntzarik sumatu. Aldiz, familien % 81,1ek adierazi du zuzenean baso-eskola proiektu pilotu honi lotutako hobekuntzak sumatu dituela seme-alabengan. Hobekuntza horiek bereziki ezagutzen eta ulermenean antzeman dira. Familien % 60k adierazi du baso-eskolaren bidez haien umeen ingurumenarekiko errespetua eta naturarekiko interesa handitu direla. Baso-eskola proiektuaren ondorioz, umeek fenomeno naturalen gaineko behaketa gehiago egiten dituztela (esate baterako, urtaro aldaketak), eta flora- eta fauna-espezie desberdinak identifikatzeko gaitasuna hobetu dutela.



Oharra: baso-eskolaren ondorioz zein arlotan ikusi zituzten hobekuntzak adierazita dago ehunekoetan.

8. irudia

Familien galdetegiaren emaitzak

Motibazioan eta kontzentrazioan ere hobekuntza handiak antzeman dituzte familiek eta hain zuzen, familien % 41,1ek adierazi du etxeko elkarrizketetan baso-eskolarekiko bereziki, baina ikaskuntzarekiko oro har jarrera positiboa erakusten dutela umeek eta haien esplorazio, ikaskuntza eta jolas jardueretan parte hartzeko gaitasuna hobetu dela, baita zeregin zehatzetan zentratzeko eta denbora luzez kontzentratzeko gaitasuna ere.

Ehunekorik altuenak lortu dituen hirugarren arloa gaitasun fisikoena izan da. Familien % 32,2k adierazi du haien umeek gaitasun fisikoak hobetu dituztela, haien gorputza hobeto ulertu, kontrolatu eta motrizitatea oro har hobetu dutela. Motrizitate lodiari dagokionez, natur inguruneetan mugitzeko trebetasuna irabazi dutela adierazi dute. Horrez gain, motrizitate finari lotutako trebetasunak eskuratu dituztela ere adierazi dute hainbat familiek.

Konfiantzari dagokionez, familien % 24,4k adierazi du haien umeen auto-estimua hobetu dela eta % 27,8k autonomia hobetu dela. Ehunekorik baxuenak hizkuntza eta komunikazio arloan eta gaitasun sozialen arloan eskuratu dira. Familien % 16,7k adierazi du haien seme-alabek ahozko hizkuntzaren erabilera sofistikatuagoa garatu dutela eta soilik familien % 5,5ek gaitasun sozialak hobetu dituztela, hau da, haien umeek egindako ekintzek beste pertsona batzuegan (ikaskideengan eta helduegan) dituzten ondorioei buruzko kontzientzia areagotu dutela, materiala gehiago partekatuz edo jolas kooperatiboetan gehiago parte hartuz.

Baina haurrek baso-eskolarekiko zuten jarreraren ondorioz, esperientzia «etxera» ere ekarri dutela adierazi dute familien % 42,2k. Horrek aldaketak ekarri ditu eskolaz kanpoko errutinetan eta familiek naturan ematen duten denbora areagotzera eraman ditu.

Eztabaida

Azterlan honetan, baso-eskolako proiektu pilotu batean murgildutako Haur Hezkuntzako hiru ikastetxeetako ikasleen ebaluazio-hezigarria burutu da ikasturte oso batean zehar. Ikastetxeko dinamikekin alderatuta basoan ezberdintasun eta hobekuntza batzuk behatu dira eta hobekuntza horietako asko bat datoz egunero naturan murgilduta jarduten duten baso-eskoletan deskribatutakoekin, pilotu honetan ikasleek basoan eman duten maiztasuna txikiagoa izanik ere (hilean 4-5 egun baino ez). Alde batetik, ingurune fisiko eta materialari dagokionez, ikus daiteke basoan motrizitate lodia eta jolas librea lantzeko aukera gehiago sortzen direla eskolako jolastokian baino eta emaitza hauek bat datoz aurretik egindako ikerlanekin ere (adibidez, Dabaja, 2021; Johnstone *et al.*, 2022; Mann *et al.*, 2021; Vella-Brodrick eta Gilowska, 2022). Gure ikerketan jolas sinboliko gehiago ikusi zen basoan. Haurren jolas-eremuak eta honen aniztasunak, eragin zuzena du jolasaren kalitatean (Senda, 1992) eta naturako materialak egituratu gabeak direnez (makilak, harriak, hostoak, ezkurak, fruitu ezberdinak...), sormena eta jolas sinbolikoa bultzatzen dituzte (Chancellor, 2007; Moore *et al.*, 2009). Era berean, aniztasun ekologikoak haurrak jolas sinbolikora bideratzen dituela iradoki izan da (Woolley & Lowe, 2012). Horrez gain, talde-jolasa nagusitu da basoan, naturan harreman sozialak eta laguntasuna hobetu egiten direla dioten ikerketekin bat eginez (Davidson, 2001; Davis *et al.*, 2006; Knight, 2009; Maas *et al.*, 2009; Mygind, 2009). Ikasleen arteko harremanei dagokienez, nabarmentzekoa da haurren arteko gatazkarik

eza. Naturguneei egozten zaien eragin erreparatzaile- eta leheneratzaileak, azal dezake fenomeno hau: elementu eta espazio naturalek, zaratarik ezak, pertsona eta naturaren arteko loturak, edo ikasleen mugimendu beharra astea egoteak ikasleen ongizate sententzia areagotu eta estres-maila murriztea dakar (Hartig *et al.*, 2014; Kaplan, 1995; Markevych *et al.*, 2017). Espazio, material eta denbora eskuragarritasunak, naturgune erakargarri, aldakor eta era berean konstante batean, ingurune ezin hobea sortzen du ikasleentzat, berehalako errealitatetik haratago joan daitezen, haien irudimena sustatuz. Ikerketek diotenez, naturarekiko esposizio goiztiarrak haurrek ingurugiroarekiko erantzun positiboak garatzea eragiten du (Ewert, Place eta Sibthorp, 2005) eta hain zuzen, hori da guk behatutakoa: denborak aurrera egin ahala, haurren erantzunek ekozentrismoranzko bidea egin zutela. Gurasoek ere bat egiten dute, % 60k uste baitu haurrek naturarekiko zuen jarrera hobetu dutela. Beraz, baso-eskola bezalako programak etorkizun berdeago bat izateko baliagarriak izan daitezke (Smith, Dunhill, eta Scott, 2018; Turtle, Convery, eta Convery 2015).

Erreferentziak

- 2/2023 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena. (EHAA, 44 zkia., 2024ko otsailaren 29koa, 52 orr.)
- 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 109 zkia., 2023ko ekainaren 9koa, 5.or.)
- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, 109 zkia., 2023ko ekainaren 9koa, 78 orr.)
- Aizpuru, I., Aseginolaza, K., Uribe-Echebarria, P. M., Urrutia, P., eta Zorrakin, I. (2004). *Euskal Herriko landareak eta inguruetakoa sailkatzeko gako irudidunak*. Eusko Jaurlaritza.
- Allen, M. (2017). *The SAGE encyclopedia of communication research methods*. SAGE Publishing.
- Altuna, L. (2023). Aire zabaleko Haur Hezkuntza balioztatzen. Eztabaidarako gakoak. *Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, 5(1), 65-80. <https://doi.org/10.1387/tantak.23999>
- Arregi, A., Zubimendi, S., eta Sanz, J. (2019). Esparru ez-formaleko iraunkortasun hezkuntzarako balialide-gune baten ebaluazioa: kasu-azterketa EAEn. *Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, 31(2), 75-108. <https://doi.org/10.1387/tantak.20911>
- Barrutia, O., Ruiz-González, A., Sanz-Azkue, I., eta Díez, J. R. (2022). Secondary school students' familiarity with animals and plants: hometown size matters. *Environmental Education Research*, 28(10), 1564-1583.
- Chancellor, B. (2007). Public spaces for play: Creating natural playspaces for children 8-12 years in urban landscapes that support free, imaginative and creative play. *International Journal of Humanities*, 5(4), 55-58.
- Collado, S., Rosa, C. D., eta Corraliza, J. A. (2020). The effect of a nature-based environmental education program on children's environmental attitudes and behaviors: A randomized experiment with primary schools. *Sustainability*, 12(17), 6817. <https://doi.org/10.3390/su12176817>
- Cooper, A. (2015). Nature and the outdoor learning environment: The forgotten resource in early childhood education. *International Journal of Early Childhood Environmental Education*, 3(1), 85-97.
- Corraliza, J. A., eta Collado, S. (2011). La naturaleza cercana como moderadora del estrés infantil. *Psicothema*, 23(2), 221-226.

- Dabaja, Z. F. (2021). The forest school impact on children: Reviewing two decades of research. *Education 3-13*, 50(5), 640-653.
- Davidson, L. (2001). Qualitative research and making meaning from adventure: A case study of boys' experiences of outdoor education at school. *Journal of Adventure Education and Outdoor Learning*, 1(2), 11-20.
- Davis, B., Rea, T., eta Waite, S. (2006). The special nature of the outdoors: Its contribution to the education of children aged 3-11. *Australian Journal of Outdoor Education*, 10(2), 3-12.
- Ewert, A., Place, G., eta Sibthorp, J. (2005). Early-life outdoor experiences and an individual's environmental attitudes. *Leisure Sciences*, 27(3), 225-239.
- Ghafouri, F. (2014). Close encounters with nature in an urban kindergarten: a study of learners' inquiry and experience. *Education 3-13*, 42, 54-76.
- Gill, T. (2014). The benefits of children's engagement with nature: A systematic literature review. *Children Youth and Environments*, 24(2), 10-34
- Harms, T., Cryer, D., eta Clifford, R. M. (2006). *Infant/Toddler Environment Rating Scale-Revised Edition*. Teachers College Press.
- Hartig, T., Mitchell, R., De Vries, S., eta Frumkin, H. (2014). Nature and health. *Annual review of public health*, 35(1), 207-228.
- Higgins, P. eta Christie, B. (2020). Environmental and sustainability education. In M. A. Peters (Ed.), *Encyclopedia of Teacher Education* (pp. 1-6). Springer.
- Johnstone, A., McCrorie, P., Cordovil, R., Fjørtoft, I., Iivonen, S., Jidovtsef, B., Lopes, F., Reilly, J. J., Thomson, H., Wells, V., eta Martin, A. (2022). Nature-based early childhood education and children's physical activity, sedentary behavior, motor competence, and other physical health outcomes: A mixed-methods systematic review. *Journal of Physical Activity and Health*, 19(6), 456-472.
- Joyce, R. (2012). *Outdoor Learning: Past and Present*. Open University Press.
- Kaplan, S. (1995). The restorative benefits of nature: Toward an integrative framework. *Journal of environmental psychology*, 15(3), 169-182.
- Kellert, S. R. (2012). *Building for life: Designing and understanding the human-nature connection*. Island press.
- Knight, S. (2009). *Forest schools and outdoor learning in the early years*. Sage.
- Kutxa Fundazioa (2024). Baso-eskola. Hemendik berreskuratua: <https://kutxafundazioa.eus/eu/baso-eskola>
- Laevers, F (2005). *Well-Being and Involvement in Care Settings. A Process-Oriented Self-Evaluation Instrument (SiCs)*. Hemendik berreskuratua: www.cego.be or www.kindengezin.be
- Lugg, A., eta Quay, J. (2022). Curriculum in outdoor and environmental education. In M. A. Peters (Ed.), *Encyclopedia of Teacher Education* (pp. 378-383). Springer.
- Maas, J., Van Dillen, S. M., Verheij, R.A., eta Groenewegen, P. P. (2009). Social contacts as a possible mechanism behind the relation between green space and health. *Health Place* 15, 586-595.
- Mann, J., Gray, T., Truong, S., Sahlberg, P., Bentsen, P., Passy, R., Ho, S., Ward, K., eta Cowper, R. (2021). A systematic review protocol to identify the key benefits and efficacy of nature-based learning in outdoor educational settings. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(3), 1199.

- Manoli, C. C., Johnson, B., eta Dunlap, R. E. (2007). Assessing children's environmental worldviews: Modifying and validating the New Ecological Paradigm Scale for use with children. *The Journal of Environmental Education*, 38(4), 3-13.
- Markevych, I., Schoierer, J., Hartig, T., Chudnovsky, A., Hystad, P., Dzhambov, A. M., eta Fuertes, E. (2017). Exploring pathways linking greenspace to health: Theoretical and methodological guidance. *Environmental research*, 158, 301-317.
- Martin, D. J., Raynice, J. S., eta Schmidt, E. (2005). Process-oriented inquiry—A constructivist approach to early childhood science education: Teaching teachers to do science. *Journal of Elementary Science Education*, 17(2), 13-26.
- Moore, R. C., Cosco, N., Sher, J., Bieber, B., Varela, S., Gurina, N., eta Murphy, J. (2009). *Creating & retrofitting play environments: Best practice guidelines*. Playcore Inc. and Natural Learning Initiative, College of Design.
- Mygind, E. (2009). A comparison of childrens' statements about social relations and teaching in the classroom and in the outdoor environment. *Journal of adventure education & outdoor learning*, 9(2), 151-169.
- NGSS Lead States. (2013). *Next Generation Science Standards: For States, By States*. The National Academies Press.
- O'Brien, L., eta Murray, R. (2007). Forest School and its impacts on young children: Case studies in Britain. *Urban Forestry & Urban Greening*, 6(4), 249-265.
- Parten, M. B. (1932). Social participation among pre-school children. *The Journal of Abnormal and Social Psychology*, 27(3), 243.
- Piaget, J. (1962). The stages of the intellectual development of the child. *Bulletin of the Menninger clinic*, 26(3), 120.
- Quay, J. (2016). Outdoor education and school curriculum distinctiveness: More than content, more than process. *Journal of Outdoor and Environmental Education*, 19, 42-50.
- Rubin, K. H. (1989). *The Play Observation Scale*. University of Waterloo
- Sanz, J., Sistiaga, M., Urkidi, P., Andoño, I., eta Orbegoza, K. (2018). Baso-eskola proiektu pilotuko haurren ebaluazio hezigarria burutzeko adierazleen definizio. *Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, 30(2), 63-78.
- Senda, M. (1992). *Design of children's play environments*. McGraw-Hill Companies.
- Smith, M. A., Dunhill, A., eta Scott, G. W. (2018). Fostering Children's Relationship with Nature Exploring the Potential of Forest School. *Education 3-13*, 46 (5), 525-534.
- Turtle, C., Convery, I. eta Convery, K. (2015). Forest Schools and Environmental Attitudes: A Case Study of Children Aged 8-11 Years. *Cogent Education*, 2(1), 1100103.
- Vella-Brodrick, D. A., eta Gilowska, K. (2022). Effects of nature (greenspace) on cognitive functioning in school children and adolescents: A systematic review. *Educational Psychology Review*, 34(3), 1217-1254.
- Ward, C. D. (1994). Adult intervention: Appropriate strategies for enriching the quality of children's play. *Young Children*, 51(3), 20-25.
- Wesley-Esquimaux, C. (2017). Reconciliation is not just a word. In M. B. Garry (Ed.), *Proceedings of Building Reconciliation Forum Fort Garry, MB* (pp. 8-9).
- Woolley, H., eta Lowe, A. (2013). Exploring the relationship between design approach and play value of outdoor play spaces. *Landscape Research*, 38(1), 53-74.

Aipamen biografikoa

Maialen Sistiaga Poveda. Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Zientzien didaktikako irakaslea eta ikertzailea da Gipuzkoako Hezkuntza fakultatean. Zortzi urte eman ditu Kutxa Fundazioko Baso-eskolen sarea eta Naturan Hezi programak koordinatzen eta basoan hezten duen hezkuntza-komunitatearekin kontaktu estuan egoteko aukera izan du. Bere lan ildoari dagokionez, kanpo-espazio naturalen erabilera didaktikoen inguruko ikerketetan interesatuta dago.

Josu Sanz Alonso. Kimikaria, ingeniari kimikoa eta azken honetan doktorea. Ingurumen esparruan lan egindakoa (IHOBE, UNESCO Etxea eta LKS S.Koop, besteen artean) eta orain Bilboko Hezkuntza Fakultatean irakaslea, zientziaren didaktika sailean. Irakaskuntza eta ikerketa Haur Hezkuntzan egin du nagusiki, bere interes nagusien artean kanpo-espazioen erabilpena, eskolaren eta unibertsitatearen arteko harremanak eta lur zientzien didaktika daudelarik.

FORMANDO FORMADORES EN LA UPV/EHU: PERCEPCIÓN DE COMPETENCIAS PROFESIONALES ADQUIRIDAS POR ESTUDIANTES DE EDUCACIÓN MEDIANTE APRENDIZAJE-SERVICIO

TRAINING TRAINERS AT THE UPV/EHU: PERCEPTION OF PROFESSIONAL SKILLS ACQUIRED BY EDUCATION STUDENTS THROUGH SERVICE-LEARNING

Isabel Margarita Ugalde Salas¹, María Teresa Vizcarra Morales

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Resumen

Este estudio analiza las reflexiones de 24 estudiantes del Grado en Educación Primaria de la UPV/EHU que desarrollaron sus Trabajos de Fin de Grado (TFG) mediante la metodología Aprendizaje-Servicio (ApS), para conocer sus percepciones sobre la adquisición de sus propias competencias. A través de un enfoque interpretativo, se revisaron 22 TFG-s y 10 respuestas a cuestionarios en NVivo 11 Plus. Se han analizado las percepciones de los estudiantes respecto a las competencias profesionales adquiridas. Los resultados aportan que el ApS anima al estudiantado en formación inicial docente a ampliar conocimientos sobre educación, pone en valor la importancia de la planificación educativa, refuerza metodologías para la mejora de la gestión del aula y favorece la reflexión y la apertura al cambio en la formación inicial docente. El alumnado tiene la percepción de que el ApS, como paradigma educativo, les permite conectar la teoría con la práctica, ayudándoles a comprender la complejidad de la labor docente y a adquirir herramientas para enfrentar los retos del siglo XXI.

Palabras clave: formación inicial docente, Trabajos de Fin de Grado, metodología, paradigma educativo.

Abstract

This study examines the reflections of 24 students from the Primary Education Degree at the University of the Basque Country (UPV/EHU) who developed their Final Degree Projects (FDP) through Service-Learning (S-L), aiming to understand their perceptions of their own competency development. Employing an interpretative approach, 22 FDPs and 10 open questionnaires were reviewed using content analysis with NVivo 11 Plus. Students' perceptions of the professional skills acquired have been analyzed. The results indicate that S-L encourages students during initial teacher training to expand their knowledge about education, highlights the importance of educational planning, reinforces methodologies for improving classroom management, and fosters reflection and openness to change in initial teacher training. The students perceive that S-L, as an educational paradigm, allows them to connect theory with practice, helping them understand the complexity of teaching and acquire tools to face the challenges of the 21st century.

Keywords: initial teacher training, Final Degree Projects, methodology, educational paradigm.

¹ Correspondencia: Isabel Margarita Ugalde Salas, Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal, Facultad de Educación y Deporte. Juan Ibáñez de Santo Domingo 1 (01006 Vitoria-Gasteiz). E-mail: iugalde039@ikasle.ehu.eus

Introducción

La pandemia del COVID-19 ha marcado una nueva década de transformaciones y desafíos en el mundo educativo, ya que ésta evidenció las crisis estructurales del modelo educativo (Velásquez y Ruydiaz, 2021), destacando las limitaciones del enfoque tradicional de enseñanza bancaria (Freire, 1992, 2018) y replanteando el rol de escuelas y universidades (Grinberg, 2022). Esto, junto con la irrupción de la inteligencia artificial, generó interrogantes sobre el propósito y las competencias necesarias para la educación en un mundo globalizado y complejo (Hargreaves, 2003). En respuesta, organismos como la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura-UNESCO a través de sus informes (Delors, 1996 y 2013) y la Organización de Naciones Unidas-ONU (2018), con la publicación de la agenda de Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) han impulsado iniciativas orientadas a la ciudadanía global y a la transformación educativa. Todo ello se ha realizado con el objetivo de avanzar hacia la formación integral del alumnado, para que sea protagonista de su propio aprendizaje (Orbea, 2024), para que su formación sea enfocada en el desarrollo de competencias transversales (Mayor, 2018; Orbea 2024; Rubio, 2009; Tejada, 2013), y para que permita formarse como una ciudadanía crítica y propositiva (Battle, 2020; Titlebaum *et al.*, 2004).

